



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 16a

65. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-26/LEY-00005. Foru-lege proiektua, industriari eta enpresa sustapenari buruzkoa (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-26/PRO-00012. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea xede duena. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (54. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00203. Galdera, Abaigar eta Goñiko kanpaldiei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (56. or.).
- 11-26/POR-00204. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan medikuntzako espezialistak galtzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (56. or.).
- 11-26/POR-00205. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailearen dimisioari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (57. or.).
- 11-26/POR-00206. Galdera, hutsik egon litezkeen etxebizitzak automatikoki detektatzeko tresna digital berriaren emaitzei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (58. or.).
- 11-26/POR-00208. Galdera, Nafarroari lotutako enpresa, proiektu edo esleipenak direla-eta María Chivitek Leire Díezekin izandako bilerei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (58. or.).
- 11-26/POR-00209. Galdera, Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunaren inplementazioaren kudeaketari buruzkoa. Javier Ollo Martínez jaunak egin du (59. or.).
- 11-26/POR-00210. Galdera, jakiteko ea noiz egingen den ikasketa-beken eta -laguntzen deialdia, eskumenen kudeaketa jada transferituta baitago. Cristina López Mañero andreak egin du (59. or.).
- 11-26/POR-00211. Galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konektibitatea hobetzeko bigarren lizitazioari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (60. or.).

- 11-26/POR-00212. Galdera, jakiteko ea Gobernuak zer aurreikuspen darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko hitzarmena Estatuarekin sinatzeko. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (60. or.).
- 11-26/POR-00213. Galdera, sektore aeroespazialerako aurreikusitako laguntza-neurriei baldintzak jartzeko aukerari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (61. or.).
- 11-26/POR-00214. Galdera, ikasturte honetako eskola-kanpainei buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (62. or.).
- 11-26/POR-00215. Galdera, ospitaleetako klimatizazioari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (62. or.).
- 11-26/POR-00216. Galdera, Nafarroako igerilekuek bete beharreko higiene eta osasun baldintzei eta segurtasun baldintzei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (63. or.).
- 11-26/POR-00217. Galdera, Foruaren Hobekuntza gaurkotzeko ponentzian euskara behin eta berriro azaltzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (63. or.).
- 11-26/POR-00218. Galdera, industriari eta enpresa-sustapenari buruzko foru-legearen proiektuan jasotako xedeei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (64. or.).
- 11-26/POR-00219. Galdera, Nafarroako suhiltzaile-parkeetan behar diren langileei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (64. or.).
- 11-26/POR-00220. Galdera, “nafarrak prestazio handiko trenera igoko dira legegintzaldia bukatu baino lehen” zioen konpromisoari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (65. or.).
- 11-26/PES-00182. Galdera, eskola-uzte goiztiarrari buruzko datu eguneratuei, oinarrizko gaitasunen emaitzei (PISA edo baliokideak) eta eskola-porrotaren Nafarroako ratioari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (65. or.).
- 11-26/PES-00183. Galdera, 2023 eta 2026 bitarteko itxaron-zerrendei eta bitarte horretan oinarrizko osasun-laguntzako medikuek eta ospitaleetako espezialistek sistema publikotik alde egiteari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (66. or.).
- 11-26/PES-00184. Galdera, jakiteko ea Nafarroan zertan den etxebizitzaren okupazio ilegala. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (66. or.).
- 11-26/PES-00185. Galdera, Nafarroan Hithium enpresa ezartzeko prozesuari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (67. or.).
- 11-26/PES-00186. Galdera, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren legegintzaldi honetako erabakiak betetzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (68. or.).
- 11-26/PES-00187. Galdera, foru-sektore publikoko enpresa publikoak, fundazioak edo erakunde instrumentalen galera errepikatuei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (68. or.).
- 11-26/PES-00188. Galdera, mendekotasunaren balorazio-eskaria egiten denetik aitortutako prestazioa edo zerbitzua egiaz jasotzen denera arte batez beste igarotzen den denbora errealarari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (69. or.).
- 11-26/PES-00189. Galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak antolatutako udalekuak debekatzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (69. or.).
- 11-26/PES-00190. Galdera, Errege Bardeako berriztagarrien proiektuari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (70. or.).
- 11-26/PES-00191. Galdera, Abiadura Handiko Trenaren hirigintza-kudeaketaz arduratzen den partzuergoaren bilerarako deialdia egiteko aurreikuspenari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (72. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-26/ELCR-00003. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzea (73. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-26/LEY-00005. Foru-lege proiektua, industriari eta enpresa sustapenari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2026ko ekainaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, industriari eta enpresa sustapenari buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea industriari eta enpresa sustapenari buruzko foru-lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

2. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordeari esleitzea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epea irekiko da, **2026ko irailaren 8ko 12:00etan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru-lege proiektuari.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, industriari eta enpresa sustapenari buruzkoa

ZIOEN AZALPENAK.

ATARIKO TITULUA. Xedapen orokorrak.

I. TITULUA. Industriaren plangintza estrategikoa eta gobernantza.

I. kapitulua. Industriaren plangintza estrategikorako tresnak.

II. kapitulua. Gobernantza helburuak eta organoak.

II. TITULUA. Nafarroako industriaren balioak.

III. TITULUA. Pertsonak Nafarroako industrian.

IV. TITULUA. Administrazioaren sinplifikatzea eta arintzea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

II. kapitulua. Foru intereseko inbertsio-proiektuak.

III. kapitulua. Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuak.

IV. kapitulua. Ziurtapeneko entitate laguntzaileak.

V. kapitulua. Administrazioen arteko lankidetzatoki entitateekin.

VI. kapitulua. Enpresentzako Leihatila Bakarra.

V. TITULUA. Enpresa sustapena.

I. kapitulua. Lehiakortasunerako xedapen orokorrak.

II. kapitulua. Industria ezarpen berriak erakartzeari buruz.

III. kapitulua. Nafarroako enpresen eta industriaren nazioartekotzea.

IV. kapitulua. Industria lurzoruaren eta azpiegituren kudeaketa.

V. kapitulua. Industria eremuen kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak.

VI. kapitulua. Industria suspertzeko prozesuak.

VI. TITULUA. Trantsizio digital eta ekologikorako eta ekonomia zirkularerako laguntza.

I. kapitulua. Trantsizio digitalerako neurriak.

II. kapitulua. Trantsizio ekologikorako neurriak.

III. kapitulua. Ekonomia zirkularerako trantsiziorako neurriak.

VII. TITULUA. Berrikuntza eta ekintzailatza bultzatzea.

I. kapitulua. Enpresa berrikuntza bultzatzea.

II. kapitulua. Ekintzailatza ekosistema bultzatzea.

VIII. TITULUA. Nafarroako industriaren finantzaketa.

I. kapitulua. Nafarroako Aurrekontu Orokorren konturako finantzaketa.

II. kapitulua. Foru-sektore Publiko Instituzionalako finantza jardueretarako irizpideak.

III. kapitulua. Nafarroako industriara bideratutako finantzaketa sustatzeko eta zabaltzeko neurriak.

IV. kapitulua. Aurrezki Jasangarrirako Nafarroako Plana.

Lehen xedapen gehigarria. Gardentasun bete-beharren justifikazioa sinplifikatzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru intereseko inbertsioak.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ezartzea eta garatzea Nafarroako Enpresen Behatokia eta administrazioa sinplifikatzeko eta errazteko neurriak.

Xedapen iragankor bakarra. Foru intereseko inbertsio-proiektuen deklarazioak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehena. Aldaketa Klimaldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko marxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean.

Azken xedapenetako bigarrena. Aldaketa apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren 12. artikuluan, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Suspertzeko Europako Bitartekoetatik hel-tzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.

Azken xedapenetako hirugarrena. Aldaketa Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea.

ZIOEN AZALPENEA

I

Industria politika Nafarroako sare ekonomikoaren funtsezko zutabea da, eta, bizi dugun une honetan, beste bultzada indartsu bat behar du. Munduko finantza krisiaren eta COVID-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, mundu osoko gobernuek industria estrategiak diseinatu dituzte hazkundera, produktibitatea eta erresilientzia sustatzeko eta gizartearen erronkei aurre egiteko. Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak gai hori ikertzen duen taldearen arabera, industria politikaren esparru kontzeptualak haren definizio zabala erabiltzen du, eta politikarako tresnen multzo handia hartzen du aintzat. Esparruak bi alderdi nagusi hauek nabarmentzen ditu industria arloko estrategiak proposatzeari begira: industria estrategia bat diseinatzea eta estrategia hori gauzatzeko erabiliko diren politikarako tresnak hautatzea.

Indarrean den 2021-2025 Nafarroako Industria Planak oinarriak finkatu ditu Nafarroako industriak aurre egin ahal diezaien industriaren oraingo eta etorkizuneko erronkei, baita Covid-19aren pandemiak sortutako egoerari ere, Nafarroako industriaren eta lurraldearen berezitasunak kontuan hartuta. Horretarako, jarduketara xede hauek ezarri ditu: 1) Nafarroako industriaren hazkundera eta garapena lortzen laguntzea, baita industriaren eraldaketa digitala eta ekologikoa lortzen laguntzea ere, 2) lehentasunezko balio-kate industrialetan nitxoko jarduera ekonomiko berria sortzen eta erakartzen laguntzea eta 3) Nafarroako industriari hazten, sendotzen eta eraldatzen lagunduko dion industria ekosistema indartzea.

Hori guztia bat dator aurretik garatu eta ezarri diren industria politikarekin, Espainiako 2030erako Industria Politikarekin eta, orobat, Europar Batasunaren industria politikarekin. Ildo horretan, gogoratu behar da Europako Batzordeak 2023an aldatu zituela laguntza kategorien araberrako salbuespenen arau orokorrak, trantsizio ekologikoa eta digitala errazteko eta arintzeko.

Foru-lege hau egiteko, kontuan hartu da aipatu 2021-2025 Nafarroako Industria Planaren esparruan egindako diagnostikoa. Nafarroako industria enpresak, guztira, EINen datuen arabera (2021), 3.337 dira; horietatik % 75 mikroETEak dira (10 langile baino gutxiagokoak) eta % 18,6 enpresa txikiak (10 eta 49 langile bitartekoak). Bestetik, % 5,2 enpresa ertainak dira (50 eta 249 langile bitartekoak), eta % 1,2 (40 enpresa) baino ez dira enpresa handiak (250 langile edo gehiagokoak).

Era berean, Europari dagokionez, kontuan hartu da duela gutxi aurkeztu den plan berri bat, Europaren oparotasun eta lehiakortasun jasangarriako plana (2024-2029), helburu baitu negozioak errazteko ingurunea sortzea; industria garbirako ituna ezartzea industriaren deskarbonizazioa bizkortzeko; ekonomia zirkularragoa eta erresilienteagoa lortzea, ekonomia zirkularrari buruzko lege baten bidez; produktibitatea bultzatzea teknologia digitalaren, ikerketaren eta berrikuntzaren hedapenarekin –gure ekonomiaren funtsezko faktore direla ulertuta–; eta inbertsioei bultzada handia ematea, betiere, ahaztu gabe zuzendu egin behar direla gaitasunetan eta eskulanean dauden arrakalak. Jakina, ezin ahazten ahal ditugu Europaren autonomia estrategikorako helburuak; besteak beste, funtsezko mendekotasun estrategikoen jarraipena egitea, merkatu erkiderako aukera ere eskaintzen baitu, ekonomia zirkularrago eta digitalago baterantzko bidean.

Foru-lege honek Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia hartzen du erreferentzia esparrutzat, eta parte hartzeko prozesu baten bitartez landu da Nafarroako industria ekosistemen partaide bakoitzaren proposamenak biltzeko, hainbat alderdiren gainean: gobernantza, balioak, pertsonak, eraldaketa ekologikoa, eraldaketa digitala, inbertsioak erakartzea, sinplifikatzea, lurraldea eta finantzaketa.

Azaldutakoa oinarri hartuta, foru-lege honek arau esparru berri bat ezartzen du, behar diren tresnekin batera, Nafarroako industria Europan erreferente bihurtzeko eta arrakastaz ekin diezaioten egungo inguruabarrek eskatzen duten ekoizpen ereduaren aldaketari. Horretarako, Nafarroako industriaren eta garapen ekonomikoaren arloan dituen eskumenak baliatu dira, zeinak Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1 artikuluen a), b) eta c) letretan jasota baitaude, eta aintzat hartu da botere publikoek sektore ekonomikoen modernizazioari eta garapenari erantzuteko betebeharrak dutela, Espainiako Konstituzioaren 130.1 artikuluen arabera.

Era berean, Nafarroak eskumen eskusiboak dituen lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eta ingurumenaren eta ekologiaren arloan, foru-lege honek eskumen eskusibo horien babesa du (aipatu abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.1 eta 57.c) artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren).

Bestalde, Nafarroak eskumenak ditu toki administrazioaren arloan, tributuen gainean eta Nafarroa-

ko toki entitateen gainerako finantza baliabideen gainean, bat etorritik abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. eta 46. artikuluetan eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluko VI. kapituluaren ezarritakoarekin, hargatik deusetan galarazi gabe erabat errespetatzea toki araubidearen arloko oinarriko arauak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta udal autonomiaren printzipioa.

Azaldutako konstituzio- eta estatutu-esparruarekin bat etorritik, foru-lege honen xedapenak eman dira.

Azpimarratu behar da, orain arte azaldutakoaren arabera, arau testu hau bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan xedatutako premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren, sinpletasun eta efizientziaren eta irisgarritasunaren printzipioekin.

Arauaren xedea eta edukia aintzat hartuta, beharrezkoa da foru-lege baten bidez onestea, eta hasieratik baztertu dira maila apalagoko arau motak.

Era berean, proportzionaltasun printzipioa ere betetzen da, eskuratu nahi diren helburuak erdies-teko ahalegina egin baita.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, bermatu da arau-proiektua foru-ordenamendu juridikoarekin koherentea dela.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, deusetan galarazi gabe Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharra, gardentasuna bermatzeko, proiektua eta memoria Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian argitaratu dira, entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko izapidea egin bitartean herritarrek testu horiek ezagutzeko aukera izan zezaten.

Sinpletasun eta efizientzia printzipioari dagokionez, ahalegina egin da arauak ahalik eta administrazio-karga eta zeharkako kostu gutxien sordez, eta baliabide publikoen arazoizko erabilera sustatzeko. Alde horretatik, arauak lortu nahi dituen helburuak betetzeko ezinbestekoak diren informazioa eta agiriak baino ez dira exijitzen.

Azkenik, irisgarritasunaren printzipioari dagokionez, aipatzekoa da Enpresentzako Leihatila Bakarraren misioa dela, hain zuzen ere, enpresei, ekintzaileei eta profesionalei zerbitzu integratu, irisgarri, digital eta proaktiboak eskaintzea, jarduera ekonomikoan hastearekin eta aritzearekin loturik.

II

Industriari eta Enpresa Sustapenari buruzko foru-lege honek ehun eta bat artikulua ditu, eta hone-lako dago egituratuta: atariko titulua, zortzi titulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

Atariko tituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu, eta foru-legearen xedea, helburuak eta tresnak eta aplikazio-eremua ezartzen ditu. Era berean, egokiak diren definizioak jasotzen ditu.

I. tituluak industriaren plangintza estrategikoa eta Nafarroako industria ekosistemaren gobernantza arautzen ditu, kapitulu banatan egituratuta.

I. kapituluak Nafarroako industriaren plangintza estrategikorako tresnak ezartzen ditu. Haren funtsezko elementuak dira Espezializazio Adimentsuaren Estrategia eta Nafarroako Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Plana, zeina funtsezko arloetarako berariazko programen bitartez garatuko baita. Orobat, Nafarroako Enpresen Behatokia izanen da Foru Komunitateko enpresen errealitatea ezagutzen lagunduko duen tresna.

II. kapituluak industria eta enpresa arloko politikaren gobernantza sistema ezartzen du. Alde batetik, modu koordinatuan lan egiten duen administrazio baten aldeko apustua jasotzen du, bai plangintzaren ikuspegitik, baita gauzatzearen, jarraipenaren eta ebaluazioaren ikuspegitik ere, eta Industriaren Departamentuarterako Batzorde sortzen du horretarako. Bestetik, partaidetzazko gobernantza publiko-pribatua egiteko asmoarekin, Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahaia ezartzen du. Eta, orobat, Enpresentzako Leihatila Bakarra bultzatzeko eta enpresei eragiten dieten administrazio izapideak sinplifikatzeko, Enpresentzako Leihatila Bakarraren Koordinazio Komitea ezartzen du.

II. tituluak Nafarroako industria sustatzeko eta bultzatzeko politikak gidatu behar dituzten balioak jasotzen ditu, NBEren 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta, jakina, Europaren balioekin lerrotatuta. Europar Batasunaren Tratatua balio hauek ditu oinarri: “giza duintasuna errespetatzea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide estatua eta giza eskubideak –gutxiengoetako pertsonenak barne– errespetatzea” eta, halaber, “aniztasuna, diskriminaziorik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakumeen eta gizonen berdintasuna ezaugarri dituen gizartea”; eta, hori horrela, “merkatuko ekonomia sozialean” oinarritutako barne merkatua sortzen du. Era berean, gogoan izan behar da 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa, Kontsumitzaile eta Erabil-tzaileen Estatutua arautzen duena, zeina aurkako

botorik gabe onetsi baitzen Nafarroako Parla-mentuan. Izan ere, foru-lege horrek belaunaldi berriko eskubide esaten zaienak ezartzen ditu, hala nola ingurumen osasungarrirako eskubidea, balio bizi-tzaren araberako funtzionalitatea bermea izateko eskubidea eta produkzio eta kontsumo eredu etiko eta jasangarrien bidez lortutako ondasunak edo zerbitzuak izateko eskubidea, parte-hartze aktiboa izanez ekoizpen eta kontsumoko prozesu zirkularre-tan, bai eta hondakinen prebentzioan eta birzikla-tzean ere. Gauzak horrela, gaur egun dugun Nafa-rroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiak, Europar Batasunak finkatutako ildoari jarraituz, ain-tzat hartzen du jarduera ekonomiko batek, inbertsio jasangarrien taxonomiarekin lerrotatua izateko, zen-bait baldintza bete behar dituela, besteak beste, giza eskubideei buruzko arau jakin batzuetan oina-rritutako gutxieneko babes batzuk bermatzea.

Honako hauek ezartzen dira Nafarroako indus-triaren balioetat: enpresen gizarte erantzukizuna; ingurumen, gizarte eta gobernantza irizpideak; aukera berdintasuna eta genero arrakalei aurka egitea; eta familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea. Era berean, Nafarroako indus-triaren balioetat hartzen da lurraldean sustraituta egoteari loturik dagoen eredu bat babestea, lagun-duko duena belaunaldien arteko erreleboa egiten, ikasleen prestakuntzarako eredu duala bultzatuta, familia-enpresak sendotzen eta ekonomia soziala eta lurralde kohesioa sustatzen.

III. tituluak pertsonak Nafarroako industrian izan beharreko tokia heldu dio, ziurtatzeko beti per-sonak izanen direla aldaketaren erdigunean, eta politika ororen ardatz nagusia izanen direla. Ongi prestatutako eta kualifikazio egokiak dituzten per-sonak dira, beren jakintzaren eta trebetasunen bitartez, industria eraldatzen dutenak, alde askotatik begiratuta, dela ekoizpen prozesuak eta kudeaketa hobetzea, teknologia eta garapenak barneratzea zailak edo disruptiboak izanik ere, abian jartzea berrikuntza prozesuak edo I+G jardueren garapena, merkaturatzea eta abar. Hau da, benetan pertsonak dira industriak egin behar duen digitalizaziorako eta jasangarritasunerako trantsizioa lortuko dutenak, kudeaketa eta prozesuak hobetuz zein ikuspegi hori produktuetan eta zerbitzuetan txertatuz.

Kalitatezko enplegua da foru-lege honen hel-buru estrategikoetako bat, eta, helburu hori erdies-teko, kontuan hartu da Lan Harremanei buruzko Nafarroako Sektore arteko Akordioaren 2018ko Berrikuspenean adostutako definizioa, lerrotatua baitago lan duinari eta laneko eskubideei buruz Lanaren Nazioarteko Erakundeak eta Europar Batasunak dituzten printzipioekin.

Era berean, talentua sortzea, erakartzea, atxikitzea eta birkualifikatzea funtsezko alderdietako bat da industriako balio-kate guztietarako (hala lehentasunezkoak nola gaikuntzakoak).

IV. titulua administrazioaren sinplifikatzeari eta arintzeari buruzkoa da, enpresa jardueretan hasteko bidea erraztea eta enpresa jarduera bultzatzea bilatzen baitu. Titulu hori zazpi kapitulutan egituratua dago.

I. kapituluak administrazio prozedurak sinplifikatzeko eta arintzeko xedapenak jasotzen ditu. Proiektuak prozedura bakar baten bidez izapidetzeko aukera antolatu du. Prozeduren kudeaketa koordinatua bilatzen da, eta, xede horrekin, administrazio eskumenak modu koordinatuan gauzatzeko lan esparrua ezarri da, instrumentala eta antolakuntzakoak. Txostenak arinago emateko xedapenak erantsi dira. Era berean, lizentziak ukatu beharrean baldintzapeko lizentziak emateko aukera jaso da.

II. kapituluak foru intereseko inbertsio-proiektuak arautzen ditu, figura horrek foru intereseko inbertsioak ordeztuko baititu, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedarekin administrazioa errazteko neurri buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legean jasotzen direnak. Foru intereseko inbertsio-proiektuak deklaratzeko eskatzen diren baldintzak, prozedura eta deklarazioaren ondorioak zehazten dira, deklarazio horri irismen zabalagoa emanez aipatutako abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legean lehen azaltzen zena baino.

III. kapituluak figura berri bat sartzeko du, Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuak, era horretako ekimenak ahalik eta arinen ezarri ahal izateko, izapidetu behar diren administrazio prozedura guztiak koordinatuta. Izapideak bi fasetan antolatzen dira. Lehenbiziko fasea da deklaratzeko kasuko ekimena Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektua dela. Industria arloko eskumena duen departamentuari dagokio izapidetzea, eta deklarazio horrek berekin dakar, foru intereseko inbertsio-proiektuek dituzten ondorioez gain, proiektuaren udalez gaindiko eragina eta interes publikoa aitortzea, proiektua onesteko prozedura lehentasunez kudeatzea –are foru intereseko inbertsio-proiektuen aurretik–, prozeduren kudeaketa koordinatuaren bidez izapidetzea eta, baldin proiektuak jarduera sailkaturako lizentzia behar badu, ingurumen baimen bateratuaren mende jartzea. Bigarren fasea da Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektua onestea. Onespenak berekin dakar onura publikoa edo gizarte interesa deklaratzeko desjabetzearen ondorioetarako, eta ez egotea lizentziaren edo tokiko beste edozein prebentzio kontrolen mende, ezta Lurralde-

aren Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko 29.1.a) artikulua lurralde antolamenduko tresnetarako ezartzen dituen mende ere. Proiektua Nafarroako Gobernuak onetsiko du, lurralde antolamenduaren eta hirigintzaren arloko eskumena duen departamentuak izapidetu ondoren, izapidetuko baitu Foru Administrazio Publikoak izapidetzen dituen gainerako prozedurekin koordinatuta, alegia, aplikatzekoak diren arau sektorialek eskatzen dituzten prozedurekin koordinatuta.

IV. kapituluak entitate laguntzaileen figura sartzeko du, administrazioari lagunduko baitiote egiaztapen, kontrol eta ikuskapen jarduerak egiten.

V. kapituluan, toki entitateei laguntzeko neurriak antolatzen dira enpresa-proiektuen ezarpena arintzeko.

VI. kapituluak Enpresentzako Leihatila Bakarra ezartzen du, administrazioen arteko sare gisa aritu dadin. Izan ere, informazioa emanen du administrazio publikoen eskumeneko administrazio prozeduren gainean, eta prozedura horien kudeaketa bultzatuko du azken batean enpresei eta profesionalei jarduera ekonomikoetan hasteko bidea errazteko. Enpresentzako Leihatila Bakarrak tresna hauek izanen ditu: jarduera ekonomikoetarako atari bakarra, eremu pribatua eta enpresa, establezimendu eta erregistroen direktorioa. Halaber, zehazten da zer jarduketa egin behar dituen industria arloko eskumena duen departamentuak enpresa jarduera errazteko eta inbertsiorako laguntza administratiboa emateko. Era berean, enpresa ekimenak ezartzen laguntzeko zenbait neurri ezartzen ditu, eta, bereziki, foru intereseko inbertsio-proiektu edo Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratu nahi diren ekimenei zuzendutako laguntza administratiboa.

V. titulua enpresak sustatzeko neurriak jasotzen ditu, Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin. Lehiakortasuna da industria bat edo enpresa sektore bat gai izatea merkatu globalean dituen lehiakideek baino balio, eraginkortasun eta errentagarritasun handiagoarekin ekoizteko ondasunak eta zerbitzuak. Honako hauek dira lehiakortasun faktoreak: berrikuntza eta teknologia, produktibitatea, kalitatea eta besteengandik bereiztea, egokitzeko gaitasuna (hau da, azkar moldatu ahal izatea merkatuaren aldaketetara), komunikazio azpiegiturak, industria lurzorua, hornidurak eta energia, giza kapitala, finantzaketa eskuratzeko ahalmena, administrazioa sinplifikatzea eta enpresen lankidetzak (aliantzak eta elkarlana eginez enpresen artean, baita erakunde akademikoekin eta ikerketa erakundeekin ere). Lehiakortasuna faktore guztien arteko orekaren emaitza izanen da, eta ingurune

lehiakorretan posizio onetara iristen lagunduko die Nafarroako enpresei. Helburu horretarako, titulu horretan hainbat neurri ezarri dira, sei kapitulutan antolatuta.

I. kapituluak lehiakortasuna babesteko eta enpresen dibertsifikazioa bultzatzeko neurriak biltzen ditu.

II. kapituluak industria ezarpenak erakartzeari buruzkoa da, eta Nafarroa industria eta enpresa arloko inbertsioetarako helmuga erakargarri bihurtzeko neurri sorta bat zehazten du. Era berean, lege estatusa ematen dio “Invest in Navarra” zerbitzuari, inbertsioak erakartzeko eta sustatzeko bultzatutako zerbitzua den aldetik, eta hainbat eginkizun esleitzen dizkio baliabideak eskuratzearekin loturik dauden koordinazio, jarraipen, sustapen, aholkularitza eta errazte lanetarako.

III. kapituluak Nafarroako enpresak eta industriak nazioartekotzeari buruzkoa da. Nafarroako Nazioarteko Plana hartzen du nazioartekotzea bultzatzeko tresna izateko, eta “NNP zirkulua”ren bidez antolatzen du erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlana.

IV. kapituluak industria lurzorua eta azpiegituren kudeaketari buruzkoa da, eta xedatzen du industria arloko eskumena duen departamentua izanen dela industria lurzorua gobernantza organoa, toki entitateekin eta gainerako entitate edo erakunde garrantzitsuekin elkarlanean. Horrez gain, lurzorua bisore bat sortuko dela eta azpiegitura estrategikoak bultzatuko direla xedatzen du, Nafarroan industria garatzeko.

V. kapituluak industria eremuen kudeaketarako eta modernizaziorako entitateen figura ezartzen du, industria eremuek tresna bat izan dezaten haietan azpiegituren eta zerbitzuen zuzkidura eta hobekuntza bermatzeko eta, horrekin batera, udalen inplikazioa eta elkarlan publiko-pribatua indartzeko. Arautzen dira era horretako entitateak eratzeko prozedura, antolamenduaren eta funtzionamenduaren araubidea, finantza baliabideak, indarraldia eta azkentzeko kasuak.

VI. kapituluak, industria suspertzeko prozesuak ezartzen dira, industria ahalmenaren galera nabarmenak dakartzan ondorioak arintzeko neurriak antolatzeko tresna izan dadin, industria ahalmenaren galera nabarmena dagoela ulertuko baita Nafarroan kokatutako lantoki batean ekoizpen ahalmena % 20 baino gehiago jaisten denean eta 75 langileko murrizketa dagoenean lanaldi osoko zuzeneko langileen kopuruan. Xede horrekin, prozesua abiatzea bidezkoa den ebazteko prozedura arautzen du eta Industria Suspertzeko Mahaia sortzen du akordio bat lor dadin berrindustrializatzeko aurreikusitako

jarduketan gainean eta behar diren konpromisoak har daitezzen.

VI. tituluak trantsizio digital eta ekologikorako eta ekonomia zirkularrerako laguntza neurriak biltzen ditu. Titulu hori hiru kapitulutan egituratua dago.

I. kapituluak enpresen trantsizio digitalerako neurriak biltzen ditu eta industria digitalizatzeko programa arautzen du, industriaren digitalizazioa bultzatzeko tresna izanen baita, honako hauen bitartez: eraldaketa digitaleko planak sustatzea, zerbitzuen hornitzaileak –personak zein entitateak– homologatzea, frogantza proiektuak bultzatzea, zaintza teknologikoko sistema bat sustatzea, sinergiak bultzatzea eta industriak digitalizatzeko laguntza.

II. kapituluak enpresen trantsizio ekologikorako neurriak biltzen ditu, industriaren energia efizientziarako eta deskarbonizaziorako estrategian txertatuta. Deskarbonizazioa bultzatzeko neurriekin batera, industria sektoreak deskarbonizaziorako planak egiteko betebeharra ezarri eta horretarako epemuga zehatzak finkatzen dira. Halaber “Net Zero” industrialdeen figura berria sortzen da: zero emisio garbi duten jarduera ekonomikoko eremuak izanen dira.

III. kapituluak ekonomia zirkularrerako trantsiziorako neurriak buruzkoa da, eta xedatzen du Nafarroako Gobernuak berriazko neurriak ezarriko dituela enpresa sarean ekonomia zirkularrerako trantsizioa egin dezan. Neurri horiek Espezializazio Adimentsuaren Estrategian txertatuko dira, eta Nafarroako Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren bidez ezarriko. Gainera, “Navarra Zirkular” izeneko ekimen publiko-pribatua jasotzen du, enpresen interesak eta beharrak bideratzeko tresna izanen baita.

VII. tituluak berrikuntza eta ekintzailtza bultzatzeko neurriak biltzen ditu, eta bi kapitulutan dago egituratua.

I. kapituluak, enpresa berrikuntza bultzatzeko neurriak buruzkoa baita, Enpresen I+G+Ba sustatzeko programa ezartzen da, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan prestatutakoa, berrikuntza eta ekintzailtza bultzatzeko tresna izan dadin. Orobat, berrikuntzak testatzeko eskualdeen eraketa bultzatuko dela xedatzen du, enpresa berritzaileen ezarpena errazteko espazioak izan daitezzen, zeinetan kontzeptu probak, proba pilotuak eta ebaluazioak egiten ahalko baitira ingurune kontrolatu eta lagungarri batean. Halaber, *sandbox* arautzaileen proiektuak sortzea aurreikusten da.

II. kapituluak ekintzailatza ekosistema bultzatzeko neurri buruzkoa da, eta ezartzen du Nafarroako Ekintzailatza Plana izan den dela ekintzailatzeko politikak planifikatzeko eta koordinatzeko funtsezko tresna. Halaber, xedatzen du ekintzailatzaren arloko eragile guztien arteko koordinazioa antolatuko dela, elkarlan publiko-pribatua bultzatuko dela eta neurriak ezarriko direla sektore eta kolektibo estrategikoetan enpresa ekimenerako baldintza lagungarriak errazteko. Era berean, mekanismoak ezartzen ditu teknologiaren transferentzian oinarritutako ekintzailatza sustatzeko, ikasleek enpresak sor ditzaten eta lankidetzarako guneak sortzeko, ekintzailatza merkatura eta, bereziki, nazioarteko merkatuetara hurbiltze aldera. Xedatzen da batzorde tekniko bat sortuko dela Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahaia-ren barnean, parte-hartze organoa izan dadin. Orobat, elkarlan publiko-pribatua eta industria arloko ekintzailatzarako lankide sareak bultzatzen dira. Eta, gainera, hazkunde potentzial handiko enpresa emergenteen figura sortzen da.

VIII. tituluak Nafarroako industriaren finantzaketarekin loturiko neurriak biltzen ditu, eta lau kapitulutan dago egituratuta.

I. kapituluak gaikuntza ematen du Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren neurriak finantzatzeko industrializazio funtsa sortzeko; erregelamenduz ezarriko da nola.

II. kapituluak antolatzen du nola lagunduko duten Foru-sektore Publiko Instituzionaleko entitateek enpresen finantzaketan, eta, horretarako, erabil daitezkeen finantzabideak zehazten ditu, eta finantzaketa eskuratzeko lehentasun irizpideak ezartzen.

III. kapituluak, Nafarroako industriara bideratutako finantzaketa sustatzeko eta zabaltzeko neurriak biltzen dira, zehazki, finantzaketa eskuratzeko aholkularitza zerbitzu zentralizatu bat bultzatuko dela, eta, orobat, inbertsio eta finantza ekosistema bateratzeko eta ikusarazteko neurriak.

IV. kapituluak, aurrezki plan berezi bat sortzea aurreikusten da, herritarrei zuzendua, industria jasangarritasunarekin lotutako alderdiak finantzatzeko parte har dezaten.

Lehen xedapen gehigarriak irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretua berrikusi beharra dakar, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunek dituzten gardentasun betebeharrak arautzen dituena; izan ere, sinplifikatu egin nahi da enpresek gardentasun betebeharrak betetzen dituztela justifikatzeko modua.

Bigarren xedapen gehigarriak esaten du ezen, foru intereseko inbertsioak (Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurri buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 4. artikuluan araututa daudenak) foru araudian aipatzen diren orotan, eta, bereziki, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aipatzen direnean, hemendik aurrera ulertuko dela foru intereseko inbertsio-proiektuei buruzko aipamenak direla.

Hirugarren xedapen gehigarriak zenbait aurreikuspen jasotzen ditu Nafarroako Enpresen Behatokia eta administrazioa sinplifikatzeko eta errazteko neurriak ezartzeari eta garatzeari begira; zehazki, industria arloko eskumena duen departamentuaren egitura organikoa egokitzea eta behar diren giza baliabideez hornitzea, betiere aurrekontuko baliabideen arabera.

Xedapen iragankor bakarrak araubide iragan-korra ezartzen du 15/2009 Foru Legearen babesean foru intereseko inbertsio deklaratu ziren proiektuetarako (15/2009 Foru Legea, abenduaren 9koa, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurri buruzkoa).

Xedapen indargabetzaile bakarrak berariaz ezartzen du indarrik gabe utzi dela 15/2009 Foru Legea, abenduaren 9koa, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurri buruzkoa; izan ere, forulege honek administrazioa sinplifikatzeko esparru berria ezartzen du jarduera ekonomikak abian jartzeari dagokionez.

Azken xedapenetako lehenak martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea aldatzen du, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzkoa, arau-hauste astuntzat sailkatzeko deskarbonizaziorako planak ezarritako epeetan prestatzeko obligazioa ez betetzea (forulege honen 82. artikuluan ezartzen dira epe horiek).

Azken xedapenetako bigarrenak 12. artikulua-ren a) letra aldatzen du apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuan, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Susperterako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzeko ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko. Aldaketaren helburua da 2 MW-eko edo gutxiagoko potentzia duten energia elektrikoa biltzeko instalazioen izapidetzea arintzea, aintzat hartuta era horretako instalazioek ekarpen handia egiten dutela trantsizio energetikorako helburuetan.

Azken xedapenetako hirugarrenak 37. artikuluen 3. apartatuko e) letra aldatzen du apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean, Nafarroako Ondareari buruzkoan. Zehazki, industrialdeekin eta Nafarroako Gobernuak sustatutako ezarpen bereziekin loturik aipatzen diren “lurzatiak” eta “lurzorua” terminoen ordez, “higiezinak” agertuko da, termino zabalagoa delako, barnean biltzen baititu bai lurzorua, bai leku horietan dauden eraikinak.

Azken xedapenetako laugarrenak arautzen du noiz hartuko duen indarra foru-lege honek.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

1. Foru-lege honek Nafarroako industriarentzat arau esparru berria ezartzeko xedea du. Esparru berri horrek jomuga hauek ditu:

a) Nafarroako industria eta bertan lan egiten duten pertsonak Foru Komunitateko politika sozioekonomikoaren ibilbide orriaren erdigunean kokatzea, industria enpresa berriak sortzen lagunduz, batez ere balio erantsi handikoak, eta lehendik daudenei hazten eta hobetzen lagunduz.

b) Haren balioak eta beharrezko eraldaketa indartzea, bereziki ETEena, proiektu eraldatzaileak abian jar daitezten eta industria ekosistema lehiakor eta erresilientea sendotu eta indartu dadin sustatuz, lehentasunezko balio-kateen inguruan.

Hori guztia, industria sektoreak Nafarroako ekonomiari ekartzen dion balio erantsi gordinak hazkunde etengabea eta anbiziotsua izatea lortzeko, eta langileak sektore honetan sar daitezten errazteko, gero eta kalitate handiagoko enpleguaren premisen pean.

2. Era berean, foru-legearen xedea da esparru egonkor bat ezartzea Nafarroako enpresen hazkundera, sendotzea eta garapena laguntzeko, bai eta beharrezko duten eraldaketa digital eta ekologikoan laguntzeko ere, lehiakortasunez egin dezaten.

2. artikulua. Helburuak eta tresnak.

1. Foru-lege honek helburu hauek ditu:

a) Ingurune lagungarria sustatzea enpresen lankidetzarako, industria ekosistemak sortzeko eta proiektu bultzatzaileak eta interes orokorreko proiektuak bultzatzeko.

b) Pertsonak industria garapenaren erdigunean kokatzea.

c) Nafarroako industria ekosistema eta haren balio-kateak indartzea, errazago sortu ahal dezan ekintzailtzarako eta enpresak garatzeko lagunga-

ria den ingurunea; ingurune bat aukera emanen duena, orobat, beharrezko diren egiturazko aldaketan aurrean industriaren egokitzapena azkartzeko, baita erresilientzia ere, bereziki enpresa txiki eta ertainena.

d) Industria enpresen nazioartekotzea, eta inbertsio estrategikoak eta ekonomiaren bultzatzaile direnak erakartzea.

e) NBEren 2030 Agendako Garapen Jasangarri-rako Helburuekin lerokatzzea, bai eta ingurumeneko, gizarte arloko eta gobernantza oneko irizpideekin ere, bereziki enpresa txiki eta ertainetan, familia-enpresetan eta ekonomia sozialaren eremuan.

f) Lurralde kohesioa indartzea.

g) Nafarroako industriaren estrategian langileen parte-hartzea bultzatzea.

2. Foru-lege honen funtsezko tresnak honako hauek dira:

a) Industria sustatzea eta haren lehiakortasuna eta erresilientzia hobetzea, eta, orobat, hobeki aprobetxatzea teknologiak, berrikuntzak eta trantsizio berde eta digitalak industriarako duten potentziala, karbonoan neutroa den ekonomia zirkular baten testuinguruan.

b) Produktibitatearen eta autonomia estrategikoaren hobekuntza etengabea.

c) Ingurune lagungarria sustatzea industria sektorerako inbertsioak erakartzeko, pizgarriak eta erraztasunak emanez industrien ezarpenerako eta jarduerarako.

d) Laguntzea industria sektoreko ikerketari, teknologiaren garapenari, berrikuntzari eta talentua erakartzen, eta pizgarriak ematea enpresen efizientzia eta lehiakortasuna areagotzen duten teknologia berriak eta prozesuak ezartzeko, bat etorri Zientziari eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legearen xedatutakoekin.

e) Administrazioaren sinplifikatze ausarta eta, horrekin batera, errepikapenak edo atzerapenak eragiten dituen Nafarroako arau esparruaren murrizketa sustatzea, administrazioen arteko koordinazioa hobetzea, izapideen epeak laburtzea eta administrazio publikoa engaiatzea proiektuak garatzeko helburuak lortzera begira.

f) Industriaren pixkanakako deskarbonizazioa sustatzea, bultzatzea eta laguntzea, energia berriztagarriko proiektu estrategikoetarako lankidetzara publiko-pribatua indartzea eta arintzea, bai eta ekonomia zirkularrerantz igarotzea ere, lehengai birjinen erabilera arrazionalizatuz, bigarren mailako

gaien erabilera sustatuz eta negozio eredu berrien enpresa garapena sustatuz, berrerabilera, konponketan, birmanufakturan, birziklatzean eta, orobat, zerbituzioan oinarrituta.

g) Industriaren trantsizio digitala sustatzea eta bultzatzea.

h) Industria jardueraren plangintza estrategikoa egitea eta premiazko baliabideak eta baliabide estrategikoak ematen dituen industria oinarria babestea, Europar Batasunaren politikekin koordinatuta, bai eta espezializazio adimentsuaren estrategiek ere.

i) Industria lurzorua finkapena sustatzea eta azkartzea.

j) Nafarroarako kritikoak eta estrategikoak diren azpiegiturak identifikatu, bultzatu eta gartzea, industria jardueraren euskarria baitira.

k) Funts publikoak eta pribatuak mobilizatzea eta lankidetzak publiko-pribatuak sustatzea interes komunekin proiektuetan.

l) Industria ekosistemako eragileen eta gobernantza sistemen indartze instituzionala, eta haien arteko elkarlana.

3. artikulua. Aplikazio-eremua eta definizioak.

1. Foru-lege hau honako hauei aplikatuko zaie:

a) Nafarroako industria ekosistemari, zeina Nafarroako industria ingurunea osatzen edo kudeatzen duten edo harekin elkarreragina duten eragile eta erakunde guztiek osatzen baitute.

Gainera, ekosistema horren barnean, badira bertan txertatuta dauden edo elkarri eragiten dioten beste azpitalde batzuk ere, hala nola hezkuntza sistema –bereziki STEM arloetan (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika) eta lanbide heziketan– eta beste hainbat arlotako ekosistemak: ekintzaitza, nazioartekotzea, I+G+Ba, langileen gaikuntza eta prestakuntza, industria, lurraldea, berrikuntza eta ezagutza, bioekonomia zirkularra eta sindikatuak, besteak beste. Nafarroako industria ekosistemaren barnean sartzen dira, halaber, lurraldeko eragile oro eta erreferentziazko aliantzak –erkidegoen artekoak, estatukoak zein Europakoak–.

b) Manufaktura industriei eta horiei lotutako industria jarduerari edo jardura osagarriari, barnean hartuta industria produktuak lortzeko, konpontzeko, mantentzeko, eraldatzeko edo berrerabiltzeko jarduerak, ontziratzea eta paketatzea, azpi produktuak aprobetxatzea edo hondakinak tratatzea, zein dela ere erabilitako baliabideen eta prozesu teknikoaren izaera.

c) Industrian aplikatzekoak diren izaera intelektualeko zerbitzuei –hala nola ingeniarietako, diseinuko, aholkularitza teknologikoko eta laguntza tekniko zerbitzuei–, bai eta informazioa digitalizatzea, erabiltzea eta maneiatzea eta haren elkarreragingarritasuna eta babesa dakarten jarduerari ere, baldin eta zuzenean industria jarduerekin lotuta badaude.

2. Berariazko araudiak jasotzen ez duen guttitan, foru-lege hau modu osagarrian aplikatuko zaio jardura ekonomiko bat gauzatzen duen aurreko apartatuko a), b) eta c) letretatik kanpoko entitate orori, haren forma juridikoa edozein dela ere, jardura ekonomikotzat ulertuta produktuak edo zerbitzuak prezio jakin batean saltzea edo zuzeneko merkatu edo merkatu jakin batean saltzea.

3. Foru-lege honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

1. Lurraldeko enpresa elkarteak: enpresa eta langile autonomoen erakundea, berezko dituen interes ekonomiko eta sozialak defendatzeko eta sustatzeko sortua, eta lurralde jakin batera mugatua.

2. NNP Zirkulua (Nafarroako Nazioarteko Plana Zirkulua): Nafarroako enpresak, zerbitzuak eta produktuak nazioartekotzen laguntzen duten hainbat eragileren koordinazio taldea.

3. Klusterra: balio-kate bateko enpresen, erakundearen edo ezagutza entitateen elkarteak, bideratua dagoena Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako lehentasun tematikoetako merkatu batera edo merkatuaren segmentu batera, edo bazkideen lehiakortasuna hobetzea bilatzen duen teknologia erraztailea eskaintzera, elkarlanaren bitartez eta berrikuntza sustatuz.

4. Ekonomia soziala: halakotzat definitzen dena Ekonomia Sozialari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 2. artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan.

5. Bitarteko tamainako enpresa: 50 eta 500 milioi euro bitarteko fakturazioa eta 250 eta 3.000 langile bitarte dituen enpresa.

6. Enpresa emergenteak: enpresa emergentearen izaera aitortuta dutenak Enpresa emergenteen ekosistema sustatzeko abenduaren 21eko 28/2022 Legearen babesean, eta pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatuta daudenak –hau da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan araututako erregistroan–.

7. Familia-enpresa da ezaugarri hauek dituen enpresa bat:

a) Boto eskubideen gehiengoaren titularrak, zuzenean edo zeharka, hauek dira:

i) enpresa eratu zuten pertsona fisikoak (bat edo gehiago izan daitezke).

ii) enpresaren kapital soziala eskuratu duten pertsona fisikoak (bat edo gehiago izan daitezke).

iii) aurreko pertsonetako baten ezkontideak, gurasoak, seme-alabak edo seme-alaben zuzeneko jaraunseak, jabetza egituraren barnean titular-tasun esanguratsua izaten jarraitzen badute.

b) Gutxienez familiako kide edo ahaide batek modu formal eta aktiboan parte hartzen du enpresaren gobernuan, halako moduz non familiaren inplikazioa bermatzen den enpresaren kudeaketa gidatzen duten funtsezko erabakietan.

Aurrekoa gorabehera, sozietate kotizatuak familia-enpresatzat hartuko dira, baldin eta enpresa eratu zuen pertsona fisikoa edo enpresaren kapital soziala eskuratu duen pertsona fisikoa, edo horien ahaideak edo ondorengoak enpresaren kapital sozialaren gaineko boto eskubideen % 25en titularrak badira gutxienez, eta, horrela, familiaren kontrol esanguratsua bermatzen bada.

8. Espezializazio adimentsuaren estrategia: garapen ekonomikorako eredu bat, berarekin dakarrena baliabideak kontzentratzea lurralde bakoitzak lehiarako abantaila esanguratsuak dituen eremu ekonomikoetan, aintzat hartuta lurraldearen ahalmen ekonomikoa eta zientifiko-teknologikoa eta eskariaren bilakaera. Espezializazio adimentsuaren estrategiak, estrategia diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko fase guztietan, helize laukoitza delakorearen parte-hartzerako guneak sortu behar ditu –alegia, arlo ekonomiko-produktiboak, ezagutza arloak (hezkuntza eta goi mailako ikerketa), administrazio publikoak eta gizarte zibilak parte hartzeko guneak–.

9. “Invest in Navarra”: Nafarroako Gobernuak bultzatutako zerbitzua, Foru Komunitateko lurraldean inbertsioak erakarri eta sustatzeko xedea duena.

10. Enpresa txiki eta ertainak edo ETEak: halakotzat definitzen direnak Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean edo hura ordeztzen duen arauan.

11. Ekintzailea: halakotzat definitzen dena Nafarroan Ekintzaileei eta Lan Autonomoari Laguntza Emateko martxoaren 12ko 12/2013 Foru Legearen 1.1 artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan. Ekintzailetza berritzailetzat jotzeko, Zientziari eta Teknologiarri buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legean xedatutakoa hartuko da kontuan.

12. “Net Zero” industrialdea: karbono isurien zero balantze garbia lortzeko diseinatutako eta operatutako industria espazioak dira, horretarako teknologia garbiak, energia berriztagarriak, efizientzia neurriak eta jardunbide jasangarriak ezarriak dituztenak; teknologia garbiak edo “Net Zero” deiturikoak fabrikatzeko lehentasunezko kokalekua dira, eta jasangarritasun, berrikuntza, elkarlan, gardentasun eta digitalizazio printzipioei jarraitzen diete.

13. Berrikuntzak testatzeko eskualdea edo BTEa: I+G+B arloko eskumena duen departamentuak aitortutako eremu geografiko espezifikoak, bideratua dagoena teknologia, produktu, zerbitzu edo negozio eredu berritzaileak esperimendatzera eta garatzera, aukera ematen duelako berrikuntzak ingurune kontrolatu eta lagungarri batean ezartzeko eta ebaluatzeko.

14. Kalitatezko enplegua: lan egonkorra, behar bezala ordaindua, baldintza seguru eta osasungarrietan eta prestakuntza egokiarekin egiten dena, konfiantzazko, gardentasunezko eta berdintasunezko ingurune batean. Enplegu horrek lan eta bizitza duinak bermatzen ditu, eta berarekin dakartza lanaren eta sindikatuen arloko eskubideak betetzea eta errespetatzea, diskriminaziorik eza, laneko segurtasuna eta osasuna.

15. Ordezkaritza handiena duen sindikatua: Sindikatu Askatasunaren abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren seigarren eta zazpigarren artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituen sindikatua.

16. Ordezkaritza handiena duen enpresaburuaren elkarteak: Langileen Estatutuaren Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betetzen dituen enpresaburuaren elkarteak.

17. Genero ikuspegia: errealitatearen azterketa, oinarri gisa, kontuan hartzen dituen emakumeek eta gizonek dituzten premiak, abiapuntuko egoerak, jokatzen dituzten rol eta eginkizunak eta gizartearen esleitzen zaizkienak –desberdinak baitira batzuenak eta besteenak–, baita horiei ematen zaien balioa eta haien artean dauden erlazioak ere. Azterketa horri esker, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatu, ezbaian jarri eta baloratzen ahal dira eta, hala denean, desberdintasun horiek emakumeen diskriminazio, desberdinkeria eta bazterkeriatzat jo. Orobat, behar diren ekintzak proposatzen ahal dira generoaren eraginpeko faktoreen gainean jarduteko, eta, beraz, genero ekitatearen eraikuntzan aurrera egitea ahalbidetuko duten aldaketarako eta eraldaketarako baldintzak lortzeko.

18. Genero arrakala: emakumeen eta gizonen tasen arteko aldea, agerian uzten duena testuinguru zehatz batean baliabideak, irismena eta boterea ez daudela berdin banatuta emakumeen eta gizonen artean.

I. TITULUA

Industriaren plangintza estrategikoa eta gobernantza

I. KAPITULUA

Industriaren plangintza estrategikorako tresnak

4. artikulua. Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia.

1. Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia da foru-lege hau ezartzeko eta Nafarroako Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Plana zehazteko eta garatzeko esparrua.

2. Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia zehazten da eragile interesdun guztien artean hausnarketa estrategiko partekatua egin ondoren, Nafarroan garapen industrial eta teknologikorako trantsizioaren eta bultzadaren ibilbide orria diseinatzera bideratuta, lehiakortasunerako eta deskarbonizatorako, bai eta egungo eta etorkizuneko erronka handien aurrean irekitzen diren aukerak aprobetxatzeko ere, ekonomia zirkularreranzko trantsizio ekologiko eta digitala barne. Orobat, identifikatu, sustatu eta lagunduko ditu ekoizpen sistemetan behar diren aldaketak eta bilakaera, produktibitatea hobetuko duten eta efizienteagoak eta jasangarriagoak izanen diren prozesuetarantz jotzeko, estatuko eta Europako industria garapenaren esparruan.

5. artikulua. Nafarroako Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Plana.

1. Nafarroako Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Plana da industria arloko politikak planifikatzeko eta koordinatzeko funtsezko tresna, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren esparruan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan industria arloko eskumena duen departamentuak prestatuko du plana. Administrazio horretako departamentu guztiek eta Foru-sektore Publiko Instituzionaleko entitateek, zeinek bere arloetan, planean sartu beharreko ekintzak proposatuko dituzte.

3. Planak helburu hauek izanen ditu:

a) Industria Nafarroako politika sozioekonomikoren ibilbide orriaren erdigunean kokatzea, eta

enpresen hazkundea eta eraldaketa bikoitza –digitala eta ekologikoa– indartzea.

b) Abiapuntuko egoeraren azterketa egitea, eta egoera estatuko, Europako eta nazioarteko testuinguruan kokatzea.

c) Industria eta enpresa sustapenerako neurri eta programak zehaztea.

d) Industria eta enpresa sustapenerako neurri eta programak gauzatzeko behar diren baliabideak identifikatzea.

e) Planaren helburuen betetze mailaren jarraipena egiteko mekanismoak eta prozedurak definitzea.

f) Nafarroako industria jardueran ingurumen eta gizarte arloko helburuak txertatu eta bete daitezzen bultzatzea.

g) Planaren jarraipena egiteko eta monitorizatzeko tresnak zehaztea, espero den inpaktuaren ebaluazioa egiteko generoaren, gizartearen, lehiakortasunaren, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

h) Nafarroako industria lehiakorra izan dadin ekonomia zirkularreranzko trantsizioaren arloan, jomuga eta helburu espezifikoak ezartzea, aintzat hartuz lehentasuneko sektoreak, baliabide kritikoenak eta teknologia estrategikoen garapena eta erabilera.

i) Industrian genero ikuspegia txerta dadin sustatzea, zeharkako kategoria gisa.

j) Karbono isuririk gabeko industria bateranzko trantsizioaren ondorio soziolaboralak aurreikustea, eta enplegua birmoldatzeko, birkualifikatzeko eta banatzeko mekanismoak zehaztea. Plana Trantsizio Justurako Estrategiarekin koordinatuko da –Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean jasotako tresna horretan trantsizio ekologikoak enpleguaren gainean izan ditzakeen inpaktuak aurreikusteko neurriak jasoko baitira–.

k) Lurralde kohesioa eta enpresen sustraitzea sustatzea.

4. Planaren esparruan garatuko dira berariazko estrategiak eta plan edo programak, foru-lege honen helburuei eta oinarritzko edukiei erantzuten dietenak.

5. Plana eta hari esleitutako baliabide ekonomikoak eta bestelakoak Nafarroako Gobernuak onetsiko ditu, eta onespeneraren erabakian zehaztuko da planaren indarraldia.

6. Behar diren orotan, planaren tarteko berrikuspenak eginen dira, aukerak aprobetxatzeko eta ezusteko arriskuak –sektorialak zein lurralde mailakoak– arintzeko behar diren neurri zuzentzaileak eransteko.

6. artikulua. Nafarroako Enpresen Behatokia.

1. Nafarroako Enpresen Behatokiak, industria arloko eskumena duen departamentuaren barnean, Nafarroako enpresen errealitatea ezagutzeko behar diren jarduerak eginen ditu eta haren bila-kaeraren monitorizazioa eta jarraipena eginen du, baita Nafarroako Gobernuak ezarritako neurrien eraginarena ere, bereziki Espezializazio Adimentsuaren Estrategiatik eta Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planetik eratorritako neurriena.

Era berean, foru-lege hau behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren beste alderdi espezifiko eta tematiko guztien jarraipena eginen du, eta, halaber, jarraipena eginen du Nafarroako industria ekosistemaren gainean eta, bereziki, lehentasunezko balio-kateen, Nafarroako industriaren eraldaketek gizartean eta lanean duten eraginaren, eta familia-enpresen egoeraren eta beharren gainean.

2. Behatokiak Nafarroako beste behatoki sozioekonomiko batzuekin eta Nafarroako Estatistika Institutuarekin koordinatuta eginen ditu bere jarduerak.

3. Behatokiak informazio eskaerak eta azterlan espezifikoak jasotzeko kanal bat jarriko du. Era berean, sortutako emaitzak eta ondorioak zabalduko ditu une bakoitzean egokiak diren bitarteko bidez, eta zaintza teknologikoaren ondoriozko informazioa argitaratuko du. Behatokiak sortutako informazioak politika publikoak zehazten lagunduko du.

4. Behatokiak egiten dituen estatistika eta azterlan guztietan, sistematikoki sartuko da sexuaren aldagaia eta genero adierazleak ezarriko dira, hobe ki ezagutu ahal izateko emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak, balio, rol, egoera, baldintza, aspirazio eta premiei dagokienez.

II. KAPITULUA

Gobernantza helburuak eta organoak

7. artikulua. Gobernantza helburuak.

Gobernantza sistema bat ezartzen da industria eta enpresa arloko politikaren ekintza eraginkorra bermatzeko, honako helburu hauekin:

a) Nafarroako administrazio publikoen erantzukidetasuna sustatzea industria eta enpresa arloko politikak aplikatu dituzten, bakoitzak bere

eskalan eta behar diren bitarteko eta tresnekin, politika horiek Nafarroako Gobernuaren politika sektorialetan txertatuta.

b) Eragile ekonomiko eta sozialen eta herritarren parte-hartzea bultzatzea industria eta enpresa arloko plangintza tresnen diseinuan, jarraipenean eta ezarpenean.

c) Estatuan, Europan eta nazioartean dauden estrategiekin koordinatzea eta Nafarroako industria ekosistemak Europar Batasuneko edo nazioarteko sare eta ekimenetan parte har dezaten sustatzea, bai eta Nafarroako entitateek Europar Batasunaren ekimenetan parte har dezaten sustatzea ere.

d) Egitura eta gobernantza egokiak ziurtatzea Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia garatzeko, Nafarroako industria eta enpresak garatzeko estrategiak zehazteko eta horien ezarpenaren monitorizazioa eta jarraipena egiteko.

8. artikulua. Gobernantza organoak.

Foru Administrazio Publikoko organo hauek osatzen dute industria eta enpresa arloko politikaren gobernantza:

a) Industria arloko eta Nafarroako industria ekosistema indartzearen arloko eskumena du(t)en departamentua(k).

b) Industriaren Departamentuarterko Batzordea.

c) Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahaia.

d) Enpresentzako Leihatila Bakarraren Koordinazio Komitea.

9. artikulua. Industriaren Departamentuarterko Batzordea.

1. Industriaren Departamentuarterko Batzordearen xedea da Nafarroako industria politikaren plangintza ezartzea, eta, horretarako, eginkizun hauek esleitzen zaizkio:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio departamentuen eta haiei lotutako edo mendeko erakundeen jarduketara koordinatzea, foru-lege honen xede diren gaietan.

b) Jarraipena eta ebaluazioa egitea foru-lege honen helburuak lortzeko garrantzitsuak diren Nafarroako helburu, neurri eta plan sektorialen gainean.

c) Industriaren arloko plangintza proposamenak, jarraipen memoriak eta ebaluazio txostenak helaraztea Nafarroako Gobernuari.

d) Foru-lege honen xede diren gaien buruzko informazioaren transferentzia bultzatzea, eta komunikazio kanalak ezartzea informazioa ezagu-

tza sortzen duten guneetatik kudeaketaren ardura-dunengana irits dadin.

e) Industria politikak eta industria eta enpresa arloko plan sektorialak ebaluatzea, foru-lege hone-tan ezarritako helburu eta printzipioetara egokitzen diren aztertuta.

2. Batzordeak lan-batzorde izaera izanen du, eta haren osaera, antolaera, funtzionamendua eta beste erakunde batzuekiko koordinazioa Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez ezarriko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, eta irizpide hauek aintzat hartuz:

a) Batzordeko burua industria arloko eskumena duen departamentuak proposatutako pertsona bat izanen da.

b) Batzordeko kideak izanen dira arlo hauetako eskumena duten departamentuen ordezkariak: industria, berrikuntza, lanbide heziketa, ingurumena, landa garapena, lehen sektorea, unibertsitateak, lana eta lurraldearen antolamendua eta hirigintza. Departamentu bakoitzak proposatuko ditu pertsona horiek, zuzendaritza nagusien titularren artetik.

c) Bermatu beharko da emakumeek eta gizonek presentzia eta ordezkari-tza orekatua dutela Batzordean.

10. artikulua. Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahaia.

1. Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahaia osaera mistoko kide anitzeko organoa da, eta haren xedea da lankidetzara publiko-pribatua antolatzea, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Plana eta horiek gauzatzeko tresnak zehaztu eta gartzeko. Horretarako, eginkizun hauek esleitzen zaizkio:

a) Laguntzea Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren zuzendaritza estrategikoan eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren jarraipena egiteko lanetan, bete daitezzen EGEF 2021-2027 programa operatiboko programak eta, hala badagokio, etorkizuneko programetakoak.

b) Nafarroako industria ekosistema indartzea eta Nafarroako Gobernuaren industria politiken jarraipena egitea, lurralde kohesioaren ikuspegitik.

c) Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planeko jardueren jarraipena egitea eta harekin lotutako beste programa eta tresna batzuekiko koordinazioa bultzatzea, hala nola Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekiko edo Berrikuntza Digitalaren Poloarekiko.

d) Nafarroako Enpresen Behatokiaren zereginak orientatzea eta haren lan plana onestea, industria arloko eskumena duen departamentuak proposatu ondoren.

e) Proposamen eta ekarpen zehatzak egitea Mahaian eta haren batzorde teknikoetan lantzen diren politikei eta gaiei buruz, bai puntualki, bai landu beharreko gomendioen urteko txostenaren bidez.

f) Laguntzea Nafarroako industria deskarbonizatzeko behar diren eraldaketak planifikatzen eta karbono isuririk gabeko industria bateranzko trantsizioak gizarte eta lan arloan izan ditzakeen ondorioak aztertzen, Trantsizio Justurako Estrategiarekin koordinatuta –Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean jasotako tresna horretan trantsizio ekologikoak enpleguaren gainean izan ditzakeen inpaktuak aurreikusteko neurriak jasoko baitira–.

2. Mahaia industria arloko eskumena duen departamentuaren mende izanen da, eta honako hauek osatuko dute: mahaiburua batek, idazkari batek eta Nafarroako Gobernuak izendatutako kideek.

3. Nafarroako Gobernuko lehendakaria izanen da mahaiburua, eta, bera ez badago, haren ordezkari industria arloko eskumena duen departamentuaren titularra arituko da.

4. Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu kideak, departamentuetako eta zuzendaritza nagusietako titularren artetik eta eragile ekonomiko eta sozialen ordezkarien artetik. Halaber, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari bat izendatuko da, federazioak proposaturik. Mahaiaren osar-eran, bermatu beharko da emakumeek eta gizonek presentzia eta ordezkari-tza orekatua dutela.

Eragile ekonomiko eta sozialak izendatzeko, espezializazio adimentsuaren arloko Europako araudian xedatutakoa hartuko da kontuan. Nolanahi ere, Mahaiko kideen artean, foru-lege honen 3. artikuluan definituta dauden sindikatuen eta enpresaburuen elkarten ordezkariak izanen dira. Halaber, entitate bat izendatuko da ekonomia sozialaren ordezkari eta babesle izateko eraturitako elkarteak ordezkatzeko (elkarte horiek Ekonomia Sozialari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legean jasotako daude).

Halaber, Nafarroako Gobernuak idazkari bat izendatuko du, baina ez du kide izaerarik izanen. Foru Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile bat izanen da.

5. Mahaia osatzen duten pertsonen izendapena lau urterako izanen da, eta, nolana ere, kasu hauetan berrituko da:

a) Ordezkatzen duten entitateak beste norbait izendatzen badu, haien orde.

b) Ukoa aurkezten badiote Mahaiaren idazkariari.

c) Entitate parte-hartzaileek ordezkariak baldintzak galtzen badituzte.

d) Hiltzen badira edo ezintasuna deklaritzen bazaie.

e) Karguan aritzeko gaitzen zituen izaera galtzen badute.

6. Mahaia honela antolatuko da:

a) Osoko Bilkura: Mahaiko buruak eta idazkariak eta Nafarroako Gobernuak adierazitako moduan izendatutako kideek osatuko dute.

b) Zuzendaritza Komitea: Osoko Bilkurak bere kideen artean izendatuko dituen pertsonak osatuko dute, Mahaiko buruarekin eta idazkariarekin batera. Komite hori Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren Zuzendaritza Komite gisa ere arituko da.

c) Gainera, Zuzendaritza Komiteak behar beste batzorde tekniko eratzen ahalko ditu.

11. artikulua. Enpresentzako Leihatila Bakarraren Koordinazio Komitea.

1. Enpresentzako Leihatila Bakarraren Koordinazio Komitearen helburua da Enpresentzako Leihatila Bakarra sustatzea eta enpresei eragiten dieten administrazio izapideak sinplifikatzea, eta, horretarako, honako eginkizun hauek ditu esleitura:

a) Administrazio izapideak sinplifikatzeko proposamenak prestatzea.

b) Irizpideak bateratzea Enpresentzako Leihatila Bakarrean zentralizatu beharreko izapideei dagokienez.

c) Enpresentzako Leihatila Bakarraren jarduna ebaluatzea eta hura hobetzeko proposamenak egitea.

d) Prozedurak bateratzeko edo koordinatzeko proposamenak prestatzea.

2. Komiteak lan-batzorde izaera izanen du, eta haren osaera, antolaera, funtzionamendua eta beste erakunde batzuekiko koordinazioa industria arloko eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez ezarriko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019

Foru Legean ezarritakoari jarraituz, eta irizpide hauek aintzat hartuz:

a) Komiteko burua industria arloko eskumena duen departamentuak proposatutako pertsona bat izanen da.

b) Komiteko kideak arlo hauetako eskumena duen departamentuen ordezkariak izanen dira: industria, lurralde antolamendua, ingurumena, toki administrazioa eta Nafarroako Gobernuaren lehendakariak eta/edo idazkariak. Departamentu bakoitzak proposatuko ditu pertsona horiek, zuzendaritza nagusien titularren artean.

c) Halaber, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkari bat izendatuko da, federazioak proposaturik.

d) Bermatu beharko da emakumeek eta gizonek presentzia eta ordezkariak orekatua dutela Komitean.

3. Komiteari laguntza emanen diote arlo hauetako eskumenak dituzten Foru-sektore Publiko Instituzionaleko entitateek: inbertsioak erakartzea, industria lurzorua, trantsizio ekologikorako finantza laguntza eta laguntza teknikoa, digitalizazioa eta ekintzailtza.

II. TITULUA

Nafarroako industriaren balioak

12. artikulua. Nafarroako industriaren balioak.

Nafarroako industria sustatzeko eta bultzatzeko politiken helburua izanen da pertsonak eta guztion ongizatea ardatz dituen ekonomia bat eraikitzea, oinarritzat hartuta NBERen 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuen balioak eta, halaber, titulu honetan eta itun sozialean aipatzen direnak.

13. artikulua. Enpresen gizarte erantzukizuna eta ingurumen, gizarte eta gobernantza irizpideak.

1. Nafarroako Gobernuak honako hauek egin beharko ditu, foru-lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean:

a) Plan integral bat prestatuko du, enpresen gizarte erantzukizunaren (EGE) eta ingurumen, gizarte eta gobernantza irizpideen (IGG irizpideak) ezarpena bultzatzeko enpresetan, Nafarroako industriak gai horietan posizionamendu ona duela ziurtatzeko eta errazago eskuratzeko finantzaketa publikoa eta pribatua. Plan hori Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planarekin koordinatuko da.

b) Etekinaren eta jasangarritasun inpaktuaren ebaluazioaren funtsezko adierazleak zehaztuko ditu, EGEa eta/edo IGG irizpideen ezarpena balo-

ratu nahi den laguntzetarako, dirulaguntzetarako eta bestelako babesetarako.

c) Dirulaguntza programa bat bultzatuko du enpresetan IGG irizpideen diagnostikoa eta ezarpena egiteko aholkularitza gastuetarako.

d) Komunikazio plan bat prestatu eta abian jarriko du aurreko jarduketan zabalkundea egiteko.

2. Nafarroako Gobernuak bultzatuko du “InnovaRSE”, “TamirRSE” eta “DualizaRSE” aitortzak eta egoki irizten diren beste batzuk balora daitezela kontratuen adjudikazioan eta laguntzak, dirulaguntzak eta bestelako babesak ematean.

14. artikulua. Aukera berdintasuna eta genero arrakala.

1. Nafarroako Gobernuak, besteak beste, neurri hauek hartuko ditu, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa eragingarri egiteko eta genero arrakalei aurre egiteko:

a) Enpresentzako berariazko berdintasun planak ezartzeko ekimenak bultzatuko ditu. Orobat, LGTBI+ pertsonen berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko neurriak eta protokoloak ezartzea bultzatuko du.

b) Bultzatuko du emakumeen barne igoera haztea, bidezko ebaluazio eredu bat erabilia, eta soldatak parekatzea, bai eta sektore ahulenen zoko berariazko ekintzak egitea ere.

c) Emakumeen presentzia sustatuko du enpresetako administrazio kontseiluetan, aholku kontseiluetan eta zuzendaritza komite eta batzordeetan.

d) Bultzatuko du administrazio publikoek jarduketak egitea neska gehiagok aukera ditzaten, ikasketetan, zientziarekin, teknologiarekin, ingeniari-tzarekin eta matematikekin (STEM direlakoak) lotutako karrerak. Horretarako, goiz esku hartu behar da, hasierako etapetatik, neskatilek eta neska gazteek beren eraginkortasunari eta zientzietako diziplinei buruz duten ikuskeran eragiteko. Era berean, emakumeak ongi ordaindutako sektore bultzatzaileetan sartzearekin zerikusia duten sentsibilizazio eta erakarpen ekintzak sustatuko ditu.

e) Kontratuen adjudikazioan eta laguntzak, dirulaguntzak eta bestelako babesak ematean berdintasun arloko ekintza baloratzen duten klausulak sartzea bultzatuko du. Arrakalak non detektatzen diren, ekintza arlo horiek dira aipatu klausulek baloratu beharrekoak (parte-hartzea, segregazio horizontala eta bertikala, soldata arrakala, kontziliazio erantzukidea, genero ikuspegia sartzea produktuetan eta zerbitzuetan, edo genero ikuspegia sartzea lan arriskuen prebentzioan, besteak beste).

f) Enpresak bultzatuko ditu zaintza premiak aitortzera eta gizon zaintzailearen figurari prestigioa ematera, eta erraztasunak ematera gizonen zaintza baimenak eska ditzaten.

2. Foru-lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak diagnostiko bat eginen du industria sektoreko langileak kontratatzean generoagatik, arrazagatik eta sexu izaeragatik gertatzen den bereizkeriari buruz.

15. artikulua. Bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazio erantzukidea.

1. Nafarroako Gobernuak bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazio erantzukidea sustatzen duten programak bultzatuko ditu industria arloko enpresa guztietan, bereziki ETEetan, eta lehentasunezko sektoreetako enpresetan edo kontrataziorako ahalmen apala duen jarduera bat egiten dutenetan; “Reconcilia” programa bezalakoan, lanera joateko garraio jasangarriko planen eta beste batzuen bidez izaten ahal da.

2. Nafarroako Gobernuak sustatuko du kontratuak adjudikatzean eta laguntzak, dirulaguntzak eta bestelako babesak ematean balora daitezela enpresek beren borondatez egin edo lortu dituzten kontziliazio arloko programak, planak, zigiluak eta antzekoak.

16. artikulua. Enpresen sustraitzea.

1. Nafarroako Gobernuak ekimenak garatuko ditu, lurraldean sustraitzeari eta enplegua sortzeari loturiko negozio ereduaren duen industria sareari laguntzeko.

Enpleguaren sorkuntzan duten eraginagatik, bereziki aintzat hartuko dira langile autonomoak, enpresa txiki eta ertainak, familia-enpresak, ekonomia sozialeko enpresak eta egoitza edo erabaki organoak Nafarroan dituzten enpresa handiak.

2. Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan, Nafarroako Gobernuak enpresen lankidetzaren sustatzeko programa bat eginen du, elkarlanak, aliantzak, elkarte sareak eta enpresen lankidetzaren sustatzeko. Ekimen horrek beste esparru batzuekiko elkarrekintza eta lankidetzaren bultzatuko ditu, eta enpresak sentsibilizatzeko neurriak sustatuko.

3. Enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriak buruzko abenduaren 16ko 18/2020 Foru Legearen edo, hala bada, hura ordeztzen duen arauaren ezarritako ildoari jarraituz, Nafarroako Gobernuak ekintza hauek eginen ditu:

a) Ekitaldiak antolatu eta sustatuko ditu, enpresek elkar ezagutzeko eta artikulatu honetan aipa-

tzen diren helburuetarako harremanak ezartzeko aukera izan dezaten.

b) Enpresen elkarlana baloratzen duten laguntzak, dirulaguntzak eta bestelako babesak sustatuko ditu: bai enpresen arteko elkarlana, bai enpresa elkarteen eta Nafarroako industria sareko klusterren babesarekin egina.

c) Eremu orokorreko eta Nafarroako lurralde eremuko enpresa elkarteen arteko dinamismoa sustatuko du, baita dauden klusterrak ere, baliabideak, ezagutzak eta esperientziak partekatu ahal izateko.

d) Nafarroako enpresa sarearekin elkarlanean, bidean laguntzeko edo mentoretzako programak ezarriko ditu, enpresa txikiei tamaina edo esperientzia handiagoko enpresetatik ikasten laguntzeko.

e) Jarduera ekonomikoaren gizarte balioak ingurunean duen inpaktua ebaluatuko du, askotariko laguntza mekanismoak sustatzeko.

f) Enpresari eta ekintzaileen figurari balioa ematen dioten eta Nafarroan ekintzailletza bultzatzen duten ekimenak garatuko ditu.

17. artikulua. Familia-enpresa.

1. Nafarroako Gobernuak familia-enpresa bultzatu eta sendotzeko neurriak hartuko ditu eta Nafarroako familia-enpresen jarraipena sustatuko du, familietan sustraituak daudenak zein hasi berriak aintzat hartuta. Horretarako, elkarlanean arituko da familia-enpresak sustatzeko, bultzatzeko eta sendotzeko helburua duten elkarte edo eragileekin.

2. Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan, Nafarroako Gobernuak familia-enpresa bultzatzeko programa bat prestatuko du, foru-lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean. Programa horrek askotariko neurriak jaso beharko ditu familia-enpresen jarraipena, lurraldean sustraitzea eta kohesioa errazteko, besteak beste, belaunaldien arteko erreleborako berariazko laguntza; jasangarritasunean, digitalizazioan eta lurraldean sustraitzeko inbertsioak egiteko pizgarriak; finantzaketa lerro publikoak eskuratzeko lehentasuna; eta, halaber, enpresa horiei zuzendutako beste neurri batzuk, ekintzailletza sustatzeari, finantzaketari eta gobernantzari edo kudeaketari buruzkoak.

18. artikulua. Ekonomia soziala.

1. Nafarroako Gobernuak ekonomia sozialaren printzipioak eta balioak sustatuko ditu Nafarroako industria sarean, Ekonomia Sozialaren Plan Integralaren bidez, zeina Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planarekin koordinatuko baita. Horretarako, ekonomia sozialaren printzipioak eta

balioak zabalduko ditu Nafarroako enpresetan, eta ekonomia sozialak pertsonen bidez eta partaide-tzazko gobernantzaren eta inguruarekiko lankidetzaren bidez gizarteari egiten dion ekarpena indartuko du.

2. Nafarroako Gobernuak Gizarte Ekonomiaren Plan Integraleko neurriak –eredu horrekin eta erreferentziazko elementutzat hartzen dituen balioekin lotuak– dinamizatuko ditu, gauza daitezen lagunduko du eta, bereziki, horiek enpresetan ezartzea bultzatuko du. Hori helburu, deialdien eta programen bidez sustatuko du neurri koordinatuak gara daitezten eta ingurune egokia sor dadin belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko eta lurralde guztian eredu hori txertatzeko, hala nola landa eremuan dauden ekonomia sozialeko enpresen ondorengotza, ekintzailletza eta enpresa horien arteko integrazio eta fusioak.

19. artikulua. Landa eremuak.

Nafarroako Gobernuak lurralde kohesioa sustatuko du eta lurralde oreka handiagoa bermatzeko neurriak hartuko ditu, Nafarroan industria arloko enpleguaren banaketa zaintzeaz bat. Horretarako, industria eta enpresa arloko neurri hauek hartuko ditu, besteak beste:

a) Landa ekonomiaren dibertsifikazioa bultzatzea, beharrezkoa baita lehen sektoreko jardueraren osagarri gisa.

b) Landa ingurunean proiektuak edo ekimenak gauzatzea sustatzea, ingurunearekin bateragarriak izateko irizpideetatik abiatuta, eta eskualde bakoitzaren lehiakortasuna eta berezko potentzialak hobetzera bideratuta.

c) Landa eremuetako exodoa murrizten edo saihesten laguntzen duten programak sustatzea, batez ere emakumeena, eta lehentasuna ematea hurbileko kontratazioari.

d) Landa eremuetan sustraitzearekin eta enplegua sortzearekin lotutako negozio-eredua duen industria-sareari laguntzea.

e) Landa eremuetan nekazaritzakoak ez diren jardueretarako enpresen sorrera bultzatzea.

f) Enpresek landa eremuetan enplegua sor dezaten sustatzea.

g) Landa ingurunean bioekonomiako ekintzak sustatzea, lehen sektoreko eragileekin batera, eta joera berriak erakustea diru-sarrerak lortzeari eta landa ingurunean dagoen industria sektorearekin sinergiak ezartzeari dagokionez.

h) Landa eremuetan lankidetzeta eta I+G+Ba sustatzea, lehen sektorea, bioteknologia, energia

eta abar batuz, dauden baliabideak modu jasangarrian aprobetxatzeko.

i) Pizgarriak ematea beren jarduera landa eremuetan egiten duten enpresei, landa eremuetan ezartzen direnei edo landa eremutik datorren kapitala dutenei.

j) Emakumeak lurraldean finkatzea sustatzeko ekintza positiboak bultzatzea enpleguaren arloan.

III. TITULUA

Pertsonak Nafarroako industrian

20. artikulua. Kalitatezko enplegua.

1. Kalitatezko enplegua helburu estrategikoa da Nafarroarentzat, eta osagai hauek guztiak bilzen ditu: enpleguaren egonkortasuna, itun soziala, negoziazio kolektiboa eta laneko arriskuen prebentzioa.

Nafarroako Enplegu Plana da Nafarroan enplegua hobetzeko politikak eta neurriak zehazten dituen tresna estrategikoa. Alabaina, tresna estrategikoa ez ezik, plangintza tresna ere bada, harekin ezarriko baitira Nafarroako Gobernuaren gainerako plan eta programekin koordinatzeko mekanismoak eta, bereziki, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planarekin koordinatzeak.

2. Nafarroako Gobernuak azterlanak bultzatuko ditu lanbide heziketako sare sendoa eta Nafarroako industriaren beharretara egokituko diren titulazio teknikoak sustatzeko, horrek lagunduko baitu industriaren lehiakortasunerako funtsezkoak diren arloetan kualifikatutako talentua izaten eta lanbide kompetentzia berrien eskarira aurreratzen. Horretarako, besteak beste ekintza hauek aurreikusten dira:

a) Une bakoitzean dauden behatoki bidez zentralizatutako eta bultzatutako jarduketak eta txostenak sistematizatzea, Nafarroako lanbide heziketaren sistemari laguntzeari eta Nafarroako industriari titulazio teknikoen aldetik dituen beharrei begira.

b) Lanbide profilak Nafarroako industriaren beharretara egokitzea eta aurrea hartzea lanbide kompetentzia berriei.

c) Langileei enpresek une bakoitzean behar dituzten gaitasun profesionalak emanen dizkieten prestakuntza ibilbideak eranstea (etengabeko prestakuntza, *upskillinga* eta *reskillinga*).

d) Kompetentziak egiaztatzeako prozedura hobeak bultzatzea, ahalik eta alderik txikiena egon dadin langileei aitortzen zaizkien lanbide kompetentzien eta benetan dituzten kompetentzien artean.

3. Era berean, Nafarroako Gobernuak neurri hauek sustatuko ditu, besteak beste:

a) Mikrokredentzialak edo espezializazioak sartzeko aztertzea, bai eta lanbide heziketaren sistemako C, D eta E graduetak eskaintzak ere, Nafarroako industria ehunaren beharrei erantzun diezaieten.

b) Laguntza mekanismoak ezartzea elkarlana areagotzeko industriaren eta unibertsitatearen artean eta industriaren eta lanbide heziketaren sistemaren artean, hala nola unibertsitateko prestakuntza duala, Nafarroako industriari lanbide heziketaren barneko prestakuntza dualean parte hartzea, unibertsitateko mikrokredentzialak eta espezializazio programak, bai eta lanbide heziketaren sistemako A, B, C, D eta E graduetak eskaintzarako lankidetzak ere.

c) Langileen kualifikazioa eta birkualifikazioa sustatzea, eta horretarako, besteak beste, lanbide kompetentziak egiaztatzeako prozedurak bultzatzea eta prestakuntzako plan eta ibilbide osagarriak ezartzea, lanbide heziketako etengabeko prestakuntzarako sistemaren barnean diseinaturatuta.

d) Prestakuntza planak ezartzea, lanbide heziketaren sistemaren barnean, laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, haien enplegagarritasuna hobetzeko eta lan merkatura hurbilduko dituzten ibilbideak sortzeko.

e) Nafarroako industria ekosistemako eragileen parte-hartzea sustatzea Nafarroako industria enpresen kualifikazio eta kontratazio beharrik identifikatzeko.

f) Elkarlanerako inguruneak sortzea eta sustatzea, enpresek ezagutzak partekatzea errazteko.

4. Nafarroako Gobernuak, laguntzak eta beste pizgarri batzuk emateko, baldintza gisa jartzen ahalko du enpresek ziurtatzea enpleguaren kalitate irizpideak betetzen dituztela eta enplegu egonkorra eskaintzen dutela.

21. artikulua. Talentua sortzea, atxikitzea eta erakartzea.

1. Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan, talentua sortu, atxiki eta erakartzeko programa bat prestatuko da, alderdi hauek kontuan izanik:

a) Nafarroako talentua aberriatzea.

b) Kanpoko talentua Nafarroara erakartzea eta atxikitzea.

c) Genero ikuspegia.

d) Erronka demografikoa.

- e) Lurraldetasuna eta gizarte kohesioa.
- f) Nazioarteko ikuspegia.
- g) Eraldaketa ekologikoa eta digitala.
- h) Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahai-eragileen parte-hartzea.
- i) Industria arloko doktore tesiak sustatzea eta, halaber, berrikuntza eta ikerketa aplikatuko proiektuak sustatzea Nafarroako lanbide heziketaren sistemaren esparruan.
- j) Industriaren eskariarekin bat datozen hezkuntza azpiegituren eta teknologien premiak identifikatzea.
- k) Belaunaldien arteko erreleboa, prestakuntzako eredu dualetan aktiboki parte hartuz.
- l) Lanbide heziketako eta unibertsitateko prestakuntza bultzatzea, Nafarroako industriaren erronkekin lerrokatuta.

2. Kualifikazio handiko talentua atxikitzea eta erakartzea sustatzeko, Nafarroako Gobernuak, "Invest in Navarra"rekin eta Nafarroako industria ekosistemako beste eragile batzuekin lankidetzan, bereziki, talentua atxikitze eta erakartzeko ekintzak egiten dituztenekin – besteak beste, unibertsitateekin, ikerketa zentroekin eta lanbide heziketaren sistemako ikastetxeekin –, egokiak diren mekanismoak eta arau aldaketak koordinatu eta bultzatuko ditu. Zehazki, honako neurri hauek hartuko dira:

- a) Aberriratzeko edo Nafarroako lan merkaturian hasteko pizgarriak. Horretarako ekintzak jarriko dira abian, adibidez: nazioarteko eremuan kualifikazio handiko talentua erakartzeko antena, nazioarteko eragileekin elkarlanean; Nafarroa eta Nafarroako enpresa sarea sustatzea; eta talentua landa eremuetara erakartzeko eta atxikitze berriazko estrategia eta ekintza planak zehaztea eta abian jartzea, enpresekin, lurraldeko enpresa elkarteekin eta erakunde publikoekin lankidetzan.
- b) Iritsiera etapan (landing) laguntzea: bisak izapidetzeko laguntza, "Talent Houses" izenekoak ezartzeko aukera –iritzi berriei eta haien familiei aldi baterako ostaturik emateko–, seme-alabak sare publikoan edo itunduan eskolatzeko erraztasunak eta, orobat, etxebizitza iraunkorra bilatzen laguntzeko programak eta komunitatean integrazten laguntzeko orientazio eta aholkularitza zerbitzuak.
- c) Doktoreak, master tituludunak eta lanbide heziketako espezialistak edo balio erantsi handiko profesionalak, nazionalak zein atzerriarrak, indus-

trian sar daitezten sustatzea, pertsona horiek kontratatzen dituzten enpresei laguntzeko programa espezifikoekin bidez.

d) Atzerrian lan egin duten profesional gazteen itzulera sustatzea, eta Nafarroako lan merkatura itzul daitezten erraztea.

IV. TITULUA

Administrazioaren sinplifikatzea eta arintzea

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

22. artikulua. Administrazioaren sinplifikatzea sustatzeko betebeharrak orokorra.

1. Nafarroako administrazio publikoek modu eraginkorrean sustatu beharko dute administrazioaren sinplifikatzea, bakoitzak bere eskumen eremuan, halako moldez non jarduera ekonomiko eta profesionalak egitea eragozten edo zailtzen duten oztopo guztiak kenduko baitira.

2. Nafarroako Gobernuak barne prozesuen optimizatzea sustatuko du, tresna teknologikoak sartuz eta prozesuak automatizatuz.

3. Beren eskumenak baliatzean, Nafarroako administrazio publikoek administrazioaren sinplifikatze handiagoa dakarten erregulazio eta kudeaketa alternatibak aukeratu beharko dituzte, eta, beraz, herritarrentzako eta eragile ekonomikoentzako karga txikiagoak sartu.

23. artikulua. Proiektuak prozedura bakarrian bidez izapidetzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenak baliatzean, egoki diren prozedurak ezartzea sustatuko du, bermatzeko enpresa ekimenen ezarpenari eragiten dioten interbentzio eta kontroleko egintza guztiak prozedura bakar batean eta instantzia bakar baten aurrean bateratuko direla. Horretarako, prozedura arautuko da eta zehaztuko da zein izan den izapideetarako foru organo eskuduna (haren aurrean egiten baitira izapideak) eta, kasua bada, prozedura ebatziko duena. Prozedura horiek enpresa ekimenak ezartzeko behar diren administrazio izapide guztiak koordinatuko dituzte.

2. Prozedura horiek printzipio hauetan oinarrituko dira: ezartzeko askatasuna, interesdunarentzako borondatezotasuna, leihatila bakarra, esku hartzen duten administrazioen eskumenak errespetatzea, administrazioen arteko lankidetzak, jarduketan proportzionaltasuna eta administrazio kargen sinplifikatzea.

24. artikulua. Prozeduren kudeaketa koordinatua.

1. Prozeduren kudeaketa koordinatua da lan esparru bat ezartzea, instrumentala, antolakuntzako eta, hala badagokio, epeen gainekoa, eskumen bat edo eskumenen multzo koordinatu bat –administrazio publiko, erakunde publiko edo administrazioko organo bati baino gehiagori dagozkion eskumenak biltzen dituena– egikaritzeko, beharrezkoa baita jarduera edo proiektu jakin batzuk baimentzeko, edo sektore ekonomiko espezifikoetako baimenentarako.

2. Gaiaren arabera eskumena duen departamentuaren titularraren foru aginduz erabakiko da kudeaketa koordinatua edo, bat baino gehiago badira eskudunak, Enpresentzako Leihatila Bakarren eskumena duen departamentuko titularraren aginduz, edo hitzarmen baten bidez, administrazio publiko desberdinak badira.

3. Prozeduren kudeaketa koordinaturako tresnek eduki hauek izanen dituzte:

a) Kudeaketa koordinatuaren esparrua –instrumentala, antolakuntzako eta epeen gainekoa–, zehatz-mehatz sartuta aplikatu beharreko lankidetzak eta elkarlan neurri guztiak. Kudeaketa koordinatuaren denbora horizontea ezarri beharko da, zehaztuz zer unetan aurreikusten den ematea nahitaezko txostenak eta, hala badagokio, ebazpen substantiboak edo ingurumenekoak, beharrezko direnak jarduera edo proiektua egiteko.

b) Zer agiri egin eta aurkeztu beharko diren kudeaketa koordinatua ahalbidetzeko, haren xede diren prozeduren erregulazioaren arabera.

c) Nor izanen den koordinazioaren arduraduna, zeina kasuan kasuko arloko ezagutza espezializatuak dituzten Foru-sektore Publikoko langileen, agintarien edo kargudunen artean izendatu beharko baita, eta zer langile publikok koordinatuko dituzten inplikaturako zuzendaritza zentro eta entitate guztiak.

4. Kudeaketa koordinatuko tresnek espezialitate hauek ezartzen ahalko dituzte, besteak beste:

a) Organo batek prozedura koordinatu bati baino gehiagori buruzko txostenak egin behar dituztenean, guztiak aldi berean emanen ditu, txosten bakar batean, non organo eskudunari dagozkion erabaki guztiak jasoko baitira.

b) Prozedurak aldi berean ebaztea legez posible denean, edo prozeduren ebazpena programatzea ondoz ondo eta denboran koordinatuta egin dadin, horrela lortuko baita administrazioaren jar-

duketa aurreikusgarritasuna eta haren gaineko ziurtasuna areagotzea.

c) Aplikatzekoa den araudiaren arabera ahal den orotan, inplikaturako departamentuen artean txostenak eskatzea eta bikoiztea saihestuko da.

25. artikulua. Txostenak arin ematea.

1. Prozedura beraren barnean txosten sektorial bat baino gehiago eskatu behar bada, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eman beharrekoak edo haren erregulazio eskumenen barnekoak, organo eskudunak eskatuko du behar diren txosten guztiak aldi berean eman daitezzen, salbu eta berariaz ezinezkoa bada araudi espezifikoaren arabera edo administrazioa arintzeko printzipioen aurkakoa bada, prozedura izapidetzean alferriko atzerapenak sortzen direlako.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan, egin beharreko txostenak ez dira ondoz ondokoak izanen, eta, beraz, organo sektorial batek alde aurretik txostena emateak ez du baldintzatuko beste txosten bat ematea, salbu eta izapide bat aurrekoaren ondorio edo hurrengoaren kausa bada edo hala ezartzen badu aplikatzekoa den araudiak.

3. Organo berak ondorio baterako baino gehiagotarako eman behar badu txostena, betiere efizientzia eta eraginkortasun administratiboa bermatuz gero, txosten bakar batean emanen ditu alderdi horiei guztiei buruzko erabakiak, salbu eta alderdi bakoitzerako aurkeztutako dokumentazioan funtsezko aldaketak dauden kasuetan.

4. Proiektuak izapidetzean, 23. artikuluan zehaztutako prozedura bakarra aplikatzen ez den kasuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako txosten sektorialek jasotzen dituzten erabakiek indarra izaten jarraituko dute. Txosten horiek foru eskumeneko ondoz ondoko izapideetan sartuko dira, non eta ez diren aldatu erabaki horiek emateko arrazoiak izan ziren ingurubarrak; beraz, ez da beharrezkoa izanen berriz ere ematea, baldin eta organo sektorialak ingurubar hori egiaztatzen badu eta hala adierazten badio organo eskatzaileari.

5. Enpresa ekimen bat ezartzeko udal eskumeneko lizentzia edo baimenak behar direnean, lizentzia edo baimen horiek lotuak badaude alde aurretik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erabaki sektorial bat lortzera, Foru Administrazioaren alde aurreko baimen prozedura horretan jasotako txosten sektorialek indarra izaten jarraituko dute. Ondorioz, txosten horiek udalak izapidetzen duen prozeduran sartuko dira, eta ez da beharrezkoa izanen berriz ere ematea,

baldin eta organo sektorialak inguruabar hori egiaztatzen badu eta hala adierazten badio tokiko organo eskatzaileari.

26. artikulua. Baldintzapeko lizentziak.

1. Enpresa edo lanbide jarduera bati eragiten dioten lizentziak emateko egintzetan, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek zilegi izanen dute, arintasunagatik eta eraginkortasun administratiboagatik, aplikatzekoa den legediak ezartzen dituen baldintzak sartzea, lizentzia horiek ukatu behar ez izateko.

2. Baldintza horiek eska dezakete lizentzia behar duen proiektu baten alderdiak, aplikatzekoa den araudiarekin bat ez datozenak, egokitu, osatu edo kentzea, betiere legez ezarritakora egokitzea erraza denean, ez zaielako eragiten funtsezko baldintzei eta ez delako funtsean aldatzen egin nahi den jarduketa. Baldintza horiek lizentzia emateko egintzan ezarritako epean bete beharko dira.

II. KAPITULUA

Foru intereseko inbertsio-proiektuak

27. artikulua. Foru intereseko inbertsio-proiektuak.

1. Foru intereseko inbertsio-proiektuak dira Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin lerrotatuak direnak eta Nafarroako ekonomia, gizarte eta lurralde garapena sustatzen duten inbertsioak dakartzatenak, bereziki eragina izanen dutenak aberastasunaren eta kalitatezko enpleguaren sorreran.

2. Foru intereseko inbertsio-proiektuetzat jotzen ahalko dira baldintza hauetako hiru, gutxienez, betetzen dituzten ekimenak:

a) Gutxienez 10 milioi euroko inbertsio bolumena izatea.

b) Gutxienez zuzeneko 20 lanpostu sortzea, lanaldi osoko kontratu mugagabearen modalitatean. Lanpostuak gutxienez bost urtez mantendu beharko dira, lanpostu horiek lotuta dituen inbertsioaren lanak bukatzen direnetik zenbatzen hasita.

c) Ekoizpen sisteman balio erantsiko kateak eta enplegua sortzea edo handitzea, eta lehiakortasuna hobetzea.

d) Produktibitatearen hobekuntza ekartzea sektore estrategikoetan.

e) Inbertsioak ekartzea berrikuntzarako eta garapen teknologikorako potentzial handia duten ekoizpen sektoreetan eta Nafarroako industriaren garapenerako aurrerapen kualitatiboa dakartenetan.

f) Ezagutzaren gizartea hobetzen eta ezartzen laguntzea.

g) Ekonomia zirkularreko edo ekoberrikuntzako ekimenak sustatzea.

h) Garapen energetiko jasangarria sustatzea, baita neutraltasun klimatikoa ere.

i) Estrategikotzat jotzen diren eta Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren eta Europar Batasunaren helburuekin lerrotatuta dauden sektoreetakoak izatea.

j) Berrindustrializazio proiektuak edo gainbeheran edo arriskuan dauden sektoreak birmoldatzeko proiektuak izatea.

k) Despopulatzeko arriskuan diren udalerrietan egitea (Nafarroan despopulatzeko arriskuan diren udalerrien zerrenda onesten duen foru aginduaren arabera).

l) Berrikuntza sozialeko proiektuak izatea, gizar-tearen arazoetarako konponbideak sortzen dituztenak ikuspegi berritzaileak eta elkarlanean oinarrituak erabiliz.

3. Industria arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduz, atalaseak eguneratzen ahalko dira eta baldintza gehiago eranstean ahalko zaizkie aurreko apartatuan agertzen direnei.

4. Salbuespenez, beste ekimen batzuk ere deklaratzeko ahalko dira foru intereseko inbertsio-proiektu, baldin eta eragin positibo nabarmena izanen badute azpiegitura estrategikoen garapenean, lurralde kohesioan, despopulatzearen aurkako borrokan edo ekonomia zirkularrean, edota beste ezaugarri berezi batzuk badituzte, Nafarroaren garapenerako garrantzitsuak direla pentsarazten dutenak. Salbuespen hori arrazoitu egin beharko du industria arloko eskumena duen departamentuak, eta bere proposamenean sartu beharko du deklarazio hori egitea komeni dela ondorioztatzerako daramaten ezaugarrien eta zergatien justifikazioa.

5. Foru intereseko inbertsio-proiektuen deklarazioa lortzen ahalko dute, aipatu baldintzak betetz gero, administrazio publikoak, edozein erakunde publikok, pertsona fisiko batek nahiz pertsona juridiko pribatu batek sustatutako proiektuek.

28. artikulua. Foru intereseko inbertsio-proiektu bat deklaratzeko prozedura.

1. Ekimen bat foru intereseko inbertsio-proiektu deklaratzeko prozedura hasteko, proiektuaren sustatzaileak eskaera aurkeztu behar du, industria arloko eskumena duen departamentuari zuzenduta. Eskaerarekin batera, proiektuaren memoria aurkeztuko da, honako eduki hauek jasoko dituenak:

a) Proiektua sustatzen duten entitate edo pertsonak, haiek identifikatzeko datuak, enpresa arloko ibilbidea eta sektorean duten esperientzia adierazita.

b) Proiektuaren ezaugarri orokorrak, foru-lege honen 27. artikuluan ezarritako baldintzak identifikatuta eta justifikatuta.

c) Azterketa bat, sortuko den enpleguari eta haren ezaugarri eta berrikuntza teknologikoaren mailari buruz.

d) Inbertsioak ekonomian, gizartean eta ingurumenean izanen duen inpaktuaren eta, orobat, lurralde egituraketan izanen dituen eraginaren deskribapena.

e) Proiektuak ingurumen arloko izapidetzea behar duen zehazteko analisia, aintzat hartuz kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko legedia eta ingurumen ebaluazioaren arlokoa.

f) Memoria bat, ekonomia, gizarte eta ingurumen jasagarritasuneko alderdiei buruz.

g) Lurren kokapena, titulartasuna edo erabilgarritasuna, eremuaren mugaketa eta lurren eta jabetzaren xehetasunak.

h) Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren plana, erabilgarri dauden baliabideak adierazita.

i) Proiektuaren koherentziaren justifikazioa, Nafarroako Gobernuaren plangintzetan ezarrita dauden ekonomia, gizarte eta ingurumen jasagarritasuneko helburuei dagokienez.

2. Eskaerak ez baditu betetzen eskatzen diren baldintzak, sustatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akats hori zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Administrazio izapidetzearen edozein unetan eskatzen ahalko da deklarazioa, eta lortzen den egunetik izanen ditu ondorioak.

4. Foru intereseko inbertsio-proiektuak proiektu berriak zein lehendik dauden aldaketak izaten ahal dira, eta Nafarroako Gobernuak deklaratuak ditu halakotzat, industria arloko eskumena duen departamentuak proposaturik. Erabakian zehaztasunak, baldintzak eta epeak finkatuko dira, eta erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da eta sustatzaileari jakinaraziko zaio.

5. Foru intereseko inbertsio-proiektuak deklaratu dituzten Nafarroako Gobernuaren erabakiak, erabakia hartu eta bi hilabeteko epean gehienez ere, Nafarroako Parlamentura igorri eta Parlamen-

tuko kasuan kasuko batzordean aurkeztu beharko dira, kalifikazio hori emateko aintzat hartu diren ezaugarri buruz informatzeko.

6. Foru intereseko inbertsio-proiektu bat deklaratzeko prozeduraren gehieneko epea bi hilabete da, eskaera aurkezten denetik zenbatuta. Epe hori iragaten bada prozeduraren berriazko ebazpena jakinarazi gabe, ulertuko da eskaera administrazio isilatasunez ezetsi dela.

29. artikulua. Foru intereseko inbertsio-proiektu deklaratuak dituen ondorioak.

1. Nafarroako administrazio publiko guztiek lehentasunez eta presaz bideratuko dituzte foru intereseko inbertsio-proiektuen izapideak.

2. Jarduera ezartzera zuzenduta dauden administrazio prozeduretako izapideen epe arruntak, foru-legeetan, foru dekretuetan edo foru aginduetan zehaztuta daudenak, erdira murriztuko dira foru intereseko inbertsio-proiektuei eragiten dietenean, salbu eta eskaerak eta errekursoak aurkezteari buruzko epeak.

3. Era berean, erdira murriztuko dira hirigintza planeamendua izapidetzeko, onesteko eta exekutatzeko ezarriak dauden epeak, haien xedea foru intereseko inbertsio-proiektuei dagozkien obrak eta instalazioak direnean.

4. Halaber, erdira murriztuko dira obra eta instalazio horiek exekutatzeko, irekitzeko edo abian jartzeko beharrezkoak diren lizentziak emateko epeak.

5. Aurreko apartatuetan jasotako xedapenek foru-lege, foru dekretu eta foru aginduetan ezarritako epeetan izanen duten eragina, non eta epe horiek ez diren estatuko edo Europako legediaren ondoriozkoak, baina ez dute eraginik izanen interesdunek bete beharreko izapideetan.

6. Nafarroako Aldizkari Ofizialean lehentasunez eta presaz argitaratu beharrekotzat joko dira foru intereseko inbertsio-proiektuei buruzko agiriak. Ondorioz, iragarkia argitaratzeko edo, hala behar denean, zuzentzeko eskaera jaso ondoko sei egun balioduneko epean argitaratu beharko dira.

7. Foru intereseko inbertsio-proiektuetako inbertsioei puntuazio gehigarria ematen ahalko zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren laguntzen deialdietan ezartzen diren balorazio irizpideetan.

8. Foru intereseko inbertsio-proiektuetako inbertsioei zuzenean ematen ahalko zaizkie laguntzak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.b) artikuluan xedatutakoaren babe-

sean. Laguntzak hitzarmen baten edo ebazpen baten bidez emanen dira, eskaera dagokion jarduketa planarekin batera aurkeztu ondoren. Dirulaguntzak emateko egintzan, aplikatu beharreko baldintzak eta konpromisoak ezarriko dira, bat etorrira foru-lege honetan, aipatu 11/2005 Foru Legean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoarekin.

9. Foru intereseko inbertsio-proiektuei zuzenean adjudikatzen ahalko zaizkie Nafarroako Gobernuak eta Foru-sektore Publiko Instituzionaleko gainerako entitateek sustatutako enpresa lurzorua edo Nafarroako Gobernuaren edo aipatu entitateen jabetzako higiezinak, araudi sektorialean ezarritako baldintzetan.

III. KAPITULUA

Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuak

30. artikulua. Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuak.

1. Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuak dira Nafarroako Gobernuak halakotzat deklaratzeko dituen ekonomian eta gizartean inpaktu handia dutela iritzita, jarduera ekonomikoa suspertzen, enplegua sortzen eta sektore estrategikoak garatzen edo sendotzen laguntzen dutelako. Gisa horretako deklarazioak apartekoak dira, kapitulu honetan aurreikusitakoaren arabera.

Gainera, proiektuek Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako lehentasun tematikoekin lerrotatuta egon behar dute, izatez, Nafarroa Europa barnean erreferentziatzeko lurralde gisa indartuko duten proiektuak baitira, lurraldearekin, pertsonekin eta berrikuntzarekin konprometitutako ekonomia jasangarri eta digitalerantzko trantsizioan aurrera egiteko. Gainera, 27. artikuluan foru intereseko inbertsio-proiektuetarako ezartzen diren baldintzetatik gutxienez bat bete behar dute.

Era honetako proiektuen ezaugarriak eta tresnaren izaera aintzat harturik, bi baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

a) Gutxienez 50 milioi euroko inbertsio bolumena izatea.

b) Gutxienez zuzeneko 100 lanpostu sortzea, lanaldi osoko kontratu mugagabearen modalitatean. Lanpostuak gutxienez bost urtez mantendu beharko dira, lanpostu horiek lotuta dituen inbertsioaren lanak bukatzen direnetik zenbatzen hasita.

2. Ezin izanen dira Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuetan jo enpleguaren murrizketa garbia dakarten ekimenak, ezta proiektuaren sustatzailearen plantillaren lan baldintzak okertzen dituztenak ere.

3. Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuak izaten ahal dira ezarpen berrien proiektuak nahiz lehendik dauden proiektuak aldatu edo handitzekoak.

4. Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuen deklarazioa lortzen ahalko dute, aipatu baldintzak betez gero, administrazio publikoak, edozein erakunde publikok, pertsona fisiko batek nahiz pertsona juridiko pribatu batek sustatutako proiektuek.

5. Ezin dira Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektu deklaratu bizitegi-erakundeentzat jarduketak sustatzen dituzten enpresa-proiektuak, ezta administrazio legeria sektorialaren ondoriozko berriraketa babes araubide baten mende direnak ere, baldin eta araubide horrek ezartzen dituen debeku edo mugengatik bidegabea bada proiektuak interes estrategikoa duten inbertsioetatik deklaratzeko.

31. artikulua. Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektu bat deklaratzeko prozedura.

1. Ekimen bat Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektu deklaratzeko prozedura hasteko, proiektuaren sustatzaileak eskaera aurkeztu behar du, industria arloko eskumena duten departamentuari zuzenduta, honako agiri hauekin batera:

a) Memoria bat, foru-legen honen 28. artikuluan foru intereseko inbertsio-proiektuetarako eskatzen den edukiarekin.

b) Memoria bat, non justifikatu beharko baita proiektuak inpaktu berezia izaneko duela ekonomian, gizartean eta lurraldean, eta zergatik den beharrezkoa interes estrategikotzat deklaratzeko haren xedeak erdiesteko, betiere, halako deklarazioak apartekoak direla aintzat harturik.

Jadanik aitortua badu foru intereseko inbertsio-proiektuaren izaera, aski izanen da b) letrako memoria aurkeztea.

2. Eskaerak ez baditu betetzen eskatzen diren baldintzak, sustatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akats hori zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitazeko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Era berean, eskaera borondatez aldatzea edo hobetzea eskatzen ahalko zaio, eskaera behar bezala baloratzeko eta, zehazki, beste kokaleku bat proposatzeko, hasieran proposatutakoa bidegarria ez denean.

3. Industria arloko eskumena duen departamentuak proiektua kokatua dagoen udalei igorriko die eskaera, gehienez hiru hilabeteko epean har dezaten haren aldeko erabakia, osoko bilkuraren gehiengo osoz, ados baldin badaude proiektua Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratzearekin. Ukitutako udalen batek erabakitzen badu ez dagoela ados proiektua halakotzat deklaratzearekin, industria arloko eskumena duen departamentuko titularrak prozedura bukatutzat emanen du eta jarduketak artxibatuko ditu. Ondorio juridiko bera sortuko da, orobat, baldin eta ukitutako udalen batean osoko bilkurak ez badu deklarazioaren aldeko erabakia hartzen epe horren barnean.

Era berean, udalek epe hori bera izanen dute txostena egiteko beren eskumeneko alderdien gainean. Epea igaro eta ukitutako udalen txostenik jaso ez bada, prozedurak aurrera jarraituko du, eta ez dira kontuan hartuko ondoren jasotzen diren txostenak; hori guztia, deusetan galarazi aurreko paragrafoan ezarritakoa.

4. Ukitutako udalen adostasuna jaso ondoren, industria arloko eskumena duen departamentuak txostena eskatuko dio lurralde antolamenduaren arloko eskumena duen departamentuari, proiektuak lurraldean izanen duen inpaktua azter dezan. Baita ingurumen arloko eskumena duen departamentuari ere, baieztatu dezan zer izapide mota dagokion proiektuari kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren arloan eta ingurumen ebaluazioaren arloan, kasua bada.

Era berean, proiektuaren izaera estrategikoari buruzko proposamena arrazoitzeko egoki edo beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu beharko dizkie gainerako departamentu eskudunei.

Txosten horiek emateak lehentasuna izanen du tramitazioan, eta, gehienez, hamabi egun balioduneko epean eman beharko dira. Epe hori igarota txostenak jaso ez badira, deklarazio prozedurarekin jarraitzen ahalko dela ulertuko da.

5. Eskaera eta aurreko apartatuetan aipatzen diren txostenak aztertu ondoren, industria arloan eskumena duen departamentuko titularrak, egoki baderitzo, proposamen bat igortzen ahalko dio Nafarroako Gobernuari, Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratu dezan.

Uste badu proiektua ez dela estrategikoa, eskaera ezesten duen foru agindua emanen du, Nafarroako Gobernuari proposamena igorri beharrik gabe.

6. Interes estrategikoa duen enpresa-proiektuak, onetsi baino lehen, Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira, industria arloko eskumena duen departamentuaren titularraren agerraldiaren bidez, eta agerraldi horretan adieraziko da zein diren Gobernuak kalifikazio horretarako aintzat hartu dituen ezaugarri erabakigarriak. Bilkuren aldia gorabehera, argibideak emateko agerraldia eskatuta, hura egiteko deialdia ez bada hamabost egun balioduneko gehieneko epean egiten, prozedurak jarraitzen ahalko du Nafarroako Gobernu Kontseiluak, bidezkoa bada, deklarazioa onetsi dezan.

7. Aurreko apartatuan adierazi bezala Nafarroako Parlamentuaren aurrean agerraldia egin eta gero, edo epea iragan bada deialdia egin gabe, Nafarroako Gobernuak, egoki baderitzo, Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratu du ekimena, foru-lege honetan ezarritako ondorioetarako. Nafarroako Gobernuaren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da eta sustatzaileari jakinaraziko zaio.

8. Nafarroako Aldizkari Ofizialean lehentasunez eta presaz argitaratu beharrezkotzat joko dira Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektuei buruzko agiriak. Ondorioz, iragarkia argitaratzeko edo, hala behar denean, zuzentzeko eskaera jaso ondoko sei egun balioduneko epean argitaratu beharko dira.

9. Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu bat deklaratzeko prozeduraren gehieneko epea lau hilabete da, eskaera aurkeztu denetik zenbatuta. Epe hori iragaten bada prozeduraren berriazko ebazpena jakinarazi gabe, ulertuko da eskaera administrazio isiltasunez ezezi dela.

32. artikulua. Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratzeko dituen ondorioak.

Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratzeko ondorio hauek izanen ditu:

a) Foru-lege honen 29. artikuluan foru intereseko inbertsio-proiektuetarako ezarritakoak.

b) Proiektuak udalez gaindiko eragina eta interes publikoa duela aitortzea, Nafarroako Foru Komunitateko araudian ezarritako ondorio guztietarako.

c) Lehentasunez bideratzea Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektua onesteko prozedura, are foru intereseko inbertsio-proiektuen aurretik.

d) Proiektuaren onespina prozeduren kudeaketa koordinatuaren bidez izapidetzea, foru-lege honen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Proiektua ingurumen baimen bateratuaren mende jartzea, baldin eta jarduera sailkaturako lizentzia behar badu Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legean edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoaren arabera.

33. artikulua. Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu bat onesteko prozedura.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu bat deklaratu ondoren, sustatzaileak Enpresentzako Leihatila Bakarraren bidez aurkeztu beharko ditu aplikatzekoa den legeria sektorialaren arabera beharrezkoak diren dokumentu, proiektu eta azterlanak, artikuluko honetan ezartzen diren berezitasunekin, proiektua onets dadin eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumeneko baimenak eman daitezen, proiektua exekutatzeko eta dagozkion ondasunak erabili, okupatu edo aprobetxatzeko behar direnak.

2. Inplikaturako departamentuek prozeduren kudeaketa koordinatuaren bidez izapidetuko dute proiektuaren onespina, horri buruz foru-lege honen 24. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Ezin izanen da aldaketa garrantzitsurik sartu proiektua Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratzeko aintzat hartu ziren inguruabarretan.

4. Lurralde antolamenduaren eta hirigintzaren aldetik, ez da beharrezkoa izanen lurzoru urbanizaezinean jarduera baimengarriak egiteko baimena lortzea.

Proiektuak determinazio hauek jaso beharko ditu:

a) Proiektuaren xede den azpiegitura edo instalazioa ezartzen deneko espazioaren eta haren eraginpeko lurralde eremuaren deskribapena, horren barne direla jarduketatik kanpoko sistema orokorrekin lotzeko azpiegiturak.

b) Proiektuaren xedeko azpiegituraren edo instalazioaren ezaugarrien deskribapena, behar bezain zehatza.

c) Lurralde fisikoaren gaineko eragina.

d) Proiektuaren xede den azpiegitura edo instalazioa ezartzen deneko udal mugarteetan indarrean den hirigintza planeamenduaren aipamena.

e) Proiektuaren eremuan lurra erabiltzeari eta babesteari dagokionez zuzenean aplikatuko diren determinazioak eta horien justifikazioa.

5. Proiektuak ingurumen ebaluazioa behar badu, kasuan-kasuan behar den ingurumen agiria aurkeztu beharko da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean edo hura ordeztzen duen arauan eskatzen dena, eta ondorio horietarako organo substantiboa lurralde antolamenduaren arloko eskumena duen departamentua izanen da.

Proiektuak, bere ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumen ebaluazio estrategikoa eta proiektuen ingurumen inpaktuaren ebaluazioa behar baditu, ingurumen prozedura bakarra izapidetuko da, halako moduz non proiektuaren bi izaerak aintzat hartuta eta osotara eginen baita ingurumenarekiko ebaluazioa, bai plana edo programa bai proiektua den aldetik.

6. Proiektuak ingurumen baimena behar badu Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen edo hura ordeztzen duen arauaren arabera, hura emateko organo eskudunak prozedura izapidetzen jarraituko du, baita udalak hirigintzarekiko bateragarritasunari buruz aurkako txostena eman badu ere. Hala ere, kasu horietan, proiektua Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu gisa onetsi ondoren soilik ematen ahalko da ingurumen baimena.

Era berean, ingurumen baimena behar duten proiektuen kasuan, proiektua Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu gisa onetsi ondoren, eta, zehazki, obrak baimentzeko izapidetaren barnean (foru-lege honen 34.1.b) artikuluan zehaztua) eginen dira Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduaren 14.1 j) artikuluan eskatutako justifikazioa eta, halaber, haren ondorioz babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuak edo erakunde publikoak eman beharreko txostena, suteen aurka babesteko eta, ezbeharren bat izanez gero, ebaquaziorako neurriei buruzkoa, aipatu erregelamenduan 17.3 artikuluan jaso dagoena (erregelamendu hori martxoaren 30eko 26/2022 Foru Dekretuak onetsi zuen). Babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuak edo erakunde publikoak emandako txostena loteslea izanen da, eta hartan ezartzen diren baldintzak ingurumen baimeneko baldintzen parte izanen dira.

7. Proiekturako eta haren beharrezko azpiegiturarako beharrezkoa baldin bada ondasunen desjabetzea edo okupazioa, ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda xehea ere aurkeztu beharko da, horiek deskribatuta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17. artikulua ezartzen duen moduan.

8. Inplikaturako departamentuek proiektuaren dokumentazio osoa jaso ondoren, lurralde antolamenduaren arloko eskumena duen departamentuak jendaurrean jarriko du proiektua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Gobernu Irekieren Atarian, aplikatzekoak diren lege sektorialen arabera. Jendaurreko informazioak bateratua eta bakarra izan beharko du, deusetan galarazi gabe lege sektorialen arabera departamentu bakoitzak egin behar dituen gainerako izapide eta kontsultak.

9. Behar diren prozedura sektorial guztiak, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak, izapidetu eta horien ondoriozko baimen eta txostenak lortu ondoren, lurralde antolamenduaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak, Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin ondoren, Nafarroako Gobernuari igorriko dio espedientea, Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektua onestea bidezkoa den erabaki dezan.

Onespenaren erabakia proiektuaren sustatzaileari jakinaraziko zaio, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik izanen ditu ondorioak.

10. Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu bat onesteko prozeduraren gehieneko epea urtebete da, sustatzaileak artikulua honekin zehaztutako dokumentazio guztia gaiaren arabera eskumena duten departamentuetan aurkezten duenetik zenbatuta. Epe hori iragaten bada prozeduraren berriazko ebazpena jakinarazi gabe, ulertuko da eskaera administrazio isiltasunez ezetsi dela.

11. Nafarroarentzat interes estrategikoa duten industria-proiektuak onesteko prozedura bera aplikatzen ahalko da, kasua bada, horien aldaketak onesteko.

34. artikulua. Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu bat onestearen ondorioak.

1. Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu bat onesteak ondorio hauek izanen ditu, deusetan galarazi gabe aplikatu beharrezko legedi sektorialean ezarritakoak:

a) Desjabetzearen ondorioetarako, proiektu osoaren –hari lotutako azpiegiturak barne– onura

publikoa edo gizarte interesa zehazki deklaratzeko, eta lehentasuna izatea Nafarroaren eskumeneko beste onura publiko batzuen gainetik. Orobat, ukitutako ondasun eta eskubideak okupatzeko beharra eta presa, eta proiektuaren sustatzaileari desjabetzearen onuradunaren izaera aitortzea.

b) Lizentziaren edo tokiko beste edozein prebentzio kontrolen mende ez egotea, deusetan galarazi gabe toki entitateen aurrean dagozkion zerga betebeharrak. Lurralde antolamenduaren arloko eskumena duen departamentuak baimenduko ditu obrak.

c) Lurralde antolamendurako tresnetarako ezarritako daudenak, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko 29.1.a) artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoarekin bat.

2. Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektuak lurralde antolamendurako tresnaren izaera izanen du, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko 28.2 artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan ezarritakoarekin bat.

Nafarroarentzat interes estrategikoa duten enpresa-proiektuen barneko determinazioak lotesleak izanen dira administrazio publikoentzat eta pertsonentzat, eta lehentasuna izanen dute indarrean den hirigintza planeamenduko determinazioen gainetik.

3. Proiektua Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu gisa ez onesteak ez du eragotziko lortutako baimen sektorialen arabera exekutatzeko, baina ezin izanen ditu lortu aurreko apartatuetan zehaztutako ondorioen onurak.

IV. KAPITULUA

Ziurtapeneko entitate laguntzaileak

35. artikulua. Ziurtapeneko entitate laguntzaileak.

1. Egiaztapen, kontrol eta ikuskapen jarduerak egiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialera eta lanbide elkargotara jotzen ahalko du, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, eta deusetan galarazi gabe administrazioak nolnahi ere dituen interbentzio ahalak. Horretarako, aipatu lanbide elkargoek ziurtapeneko entitate laguntzaile gisa inskribatuta egon behar dute Enpresentzako Leihatila Bakarra-

ren eskumena duen departamentuak xede horrekin gaituko duen erregistroan.

2. Erakunde laguntzaile horiek eginen dituzten jarduerak lagungarriak edo sostengukoak izanen dira, eta ez dute inondik inora ekarriko administrazio ahalak baliatzea.

V. KAPITULUA

Administrazioen arteko lankidetzatoki entitateekin

36. artikulua. Administrazioen arteko lankidetzatoki entitateekin.

Enpresa-proiektuak ezartzeko behar diren prozedurak izapidetzeko baliabide materialik edo giza baliabiderik ez dutela adierazten duten udalek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esku uzten ahalko dute espediente bultzatu eta izapidetzeko ardura. Hala bada, Foru Komunitateko Administrazioa ahaldunduko dute izapidetzeak jarraitzeko behar diren erabaki guztiak hartzeko, obra edo jarduera lizentziak emateko erabakia izan ezik.

VI. KAPITULUA

Enpresentzako Leihatila Bakarra

37. artikulua. Enpresentzako Leihatila Bakarra.

1. Enpresentzako Leihatila Bakarrak administrazioen arteko sare gisa jarduten du, administrazio publikoen eskumenekoak diren administrazio prozedurei buruzko informazioarako sarbidea errazteko, eta prozedura horien kudeaketa bultzatzeko, administrazioak dagoeneko badituen eta jarduera ekonomikoaren titularrak behin bakarrik ematen dituen datuetatik abiatuta.

2. Enpresentzako Leihatila Bakarraren misioa da enpresei, ekintzaileei eta profesionalei zerbitzu integratu, irisgarri, digital eta proaktiboak eskaintzea, jarduera ekonomikoan hastearekin eta aritzearekin loturik.

3. Bere misioa betetzeko, Enpresentzako Leihatila Bakarrak enpresek eta profesionalek emandako datuak atzitzen eta prozesatzen ditu, eta honako hauek bermatzen ditu: datuen kalitatea; datuen batasuna, izapidetze bateratuaren bidez jatorrian egindako bilketa bakarretik abiatuta; erakunde arduradun guztiekiko elkarreragingarritasuna; eta jarduera ekonomikoaren titularrekiko gardentasuna, eskuragarri dauden datuei dagokienez, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren datuen gobernantza ereduaren esparruan ezartzen diren beste mekanismo batzuei dagokienez ere.

38. artikulua. Enpresentzako Leihatila Bakarrak emanen dituen zerbitzuak.

1. Enpresentzako Leihatila Bakarrak ematen dituen zerbitzuetan sartzen da edozein jarduera ekonomiko egiteko behar diren administrazio prozedurei buruzko aholkularitza eta informazioa eta prozedura horiek modu bateratuan kudeatzea, titularrak azkar jaso dezan kudeaketaren emaitza eta administrazio publiko guztiekin duen harremanaren ikuspegi osoa lor dezan, datuak behin bakarrik emanez.

2. Enpresentzako Leihatila Bakarrak egoki diren elkarlanerako mekanismoak ezarriko ditu enpresa ekimenetarako aholkularitza jarduerak egiten dituzten beste entitate batzuekin aritzeko, hala nola enpresa elkarteekin, partzuergoekin eta tokiko ekintza taldeekin, zerbitzuak hobeki emateko.

39. artikulua. Enpresentzako Leihatila Bakarraren tresnak.

Enpresentzako Leihatila Bakarrak, deusetan galarazi gabe sortzen diren premien arabera tresna gehiago garatu ahal izatea, honako tresna hauek ditu zerbitzuak emateko:

a) Jarduera ekonomikoetarako atari bakarra.

b) Eremu pribatua.

c) Enpresa, establezimendu eta erregistroen direktorioa.

40. artikulua. Jarduera ekonomikoetarako atari bakarra.

1. Atari elektronikoa bakarrean bateratuko da jarduera ekonomikoaren titularrak administrazio publikoen zerbitzu eta izapideei buruz behar duten informazio guztia; atari hori sarbide elektronikoko webgune bat izanen da.

2. Atari bakarra antolatuko da halako moduz non enpresen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako organo eta entitate guztien arteko harremanak erraztuko baititu, eta aukera emanen baitu jarduera ekonomiko bat edo establezimendu bat legezatzeko dauden nahitazeko eta aukerako izapideei buruzko informazioa ezagutzeko, bai eta haien artean egon daitezkeen mendekotasun harremanak ezagutzeko ere.

3. Nafarroako Administrazio publikoek honako hauek sartu beharko dituzte atari bakarrean, Enpresentzako Leihatila Bakarrak kudeatzen dituen izapideei dagokienez: testu arauemaileen gaineko informazioa, administrazioaren interbentzioarako araubideak, jarduera ekonomikoari loturiko tasak eta jarduera horiek egiteko bete beharreko baldintzak, baita behar diren agiriak ere.

4. Atari bakarrak administrazio erregistroen datuak argitaratuko ditu, datu formatu ireki eta irisgarrietan.

5. Lehenbiziko fasean laguntzei eta dirulaguntzei buruzko informazioa eskainiko du, eta ondoko faseetan zerbitzuak zabalduz joanen da, enpresa jardueraren beste alderdi batzuekin loturik. Lehenbiziko faseak ezarrita egon beharko du foru-lege honek indarra hartzen duenetik urtebetera.

41. artikulua. Ere mu pribatua.

1. Atari bakarrak eremu pribatu bat izanen du Nafarroan egiten den jarduera ekonomiko ororen titular bakoitzarentzat. Bertan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin dituen harreman guztiak bilduko dira, deusetan galarazi gabe beste administrazio publiko batzuetara hedatu ahal izatea.

2. Ere mu pribatuko informazioak partekatua, bateragarria, irisgarria eta elkarrengarria izan beharko du, alderdi bakoitzaren eskubide eta betebeharren arabera, jarduera ekonomikoaren titularrek zein Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo beste administrazio publiko batzuek kontsultatu eta eguneratu ahal izan dezaten, deusetan galarazi gabe administrazioak datu jakin batzuk baliozkotu behar izatea dagokion administrazio prozeduratik abiatuta.

3. Ere mu pribatuan sartzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak identifikazio elektronikorako onartzen dituen mekanismoetako edozein erabiltzen ahalko da.

4. Atari bakarreko eremu pribatutik, jarduera ekonomiko baten titularrak honako hauek egiten ahalko ditu:

a) Jarduera ekonomikoarekin loturiko izapideak hasi eta digitalki kudeatzea, edozein dela ere administrazio arduraduna, eta izapide horien jarraipena egitea, bukatu arte.

b) Ikuspegi osoa izatea bere jarduera ekonomikoekin, establezimenduekin eta erregistroekin loturiko datuen eta dokumentazioaren gainean, horiek eguneratu ahal izateko eta, aldi berean, une oro jakin ahal izateko zertan den bere establezimenduen legeztatzea, gardentasunaren printzipioa aplikatuta.

c) Ahalordeen erregistro orokorrerako sarbidea ematea bere ordezkariari edo baimendutako pertsonari, bere datuak kontsultatzeko edo eguneratzeko.

d) Informazioa, abisuak eta beste zerbitzu proaktibo batzuk jasotzea.

42. artikulua. Enpresa, establezimendu eta erregistroen direktorioa.

1. Enpresa, establezimendu eta erregistroen direktorioa da Nafarroako administrazio publikoek duten informazioaren ikuspegi osoa izateko aukera ematen duen tresna bat.

2. Direktorioak jarduera ekonomikoari eta establezimenduari buruzko oinarriko datuak jaso beharko ditu, establezimenduaren identifikatzaile bakarretik abiatuta, bai eta inskribatuta dagoen erregistroetan jasotako datu espezifikoak ere, sistemaren segurtasuna eta errendimendua bermatuta. Era berean, datu hauek jaso eta finkatu beharko ditu, interesdunek behin baino ez ditzaten eman: jarduera ekonomikoarekin lotutako laguntzen erregistroetan jasotako datuak eta, kasu bada, aurretiazko inskripzio izapidean lortutako datuak, aplikatu beharreko araudian ezarritakoak.

3. Direktorioak artikuluko honek zehazten dituen funtzioak baino ez ditu izanen, eta, beraz, inola ere ez da izanen sarbide publikoko direktorio bat.

43. artikulua. Enpresa kudeaketa.

Industria arloko eskumena duen departamentuak, enpresa jarduera errazteko, honako jarduketak hauek egingen ditu:

1. Onetsiko dira enpresa ekimenak ezartzen laguntzeko eta ekimen horiei bidean laguntzeko eta izapideetarako tresnak, foru-lege honetan aurreikusitak. Era berean, enpresariari aholku emanen zaie ekimen horiek abian jar ditzaten eta bidean laguntzeko.

2. Nafarroako Gobernuaren harremanetarako gune zentralizatu eta berezia sortuko da enpresa eta pertsona ekintzaileei aholku emateko eta, orobat, enpresa ekimenak abian jartzea errazteko. Besteak beste, gainerako departamentuekiko koordinazioaz arduratuko da, enpresa arloko eskumenak dituzten departamentuak eta, espezialitateagatik, parte hartzeko eskatzen zaienak koordinatzeko.

3. Enpresentzako Leihatila Bakarra bultzatu eta hura benetan garatu dadin behar diren ekintzak gauzatu dira, administrazio unitate eskudunekin elkarlanean.

4. Hainbat zerbitzu emanen ditu: Enpresentzako Leihatila Bakarrarenak, bere zerbitzu kartan ezarrita daudenak eta Nafarroako Gobernuak esleitzen dizkion gainerakoak.

5. Soluzio teknologikoez arduratzen diren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio unitateekin lankidetzan, behar diren soluzio teknologikoak bultzatu, definitu, ezarri eta eguneratu ditu, jar-

duera ekonomiko bat bizkor, erraz eta berehala hasi edo aldatu ahal izateko, dagokion kanaletik.

6. Bere gain hartuko du Enpresentzako Leihatila Bakarraren zerbitzua ematearekin loturiko datu pertsonalen tratamenduaren ardura.

44. artikulua. Inbertsiorako laguntza administratiboa.

1. Industria arloko eskumena duen departamentuak berriazko laguntza administratiboa emanen die foru intereseko inbertsio-proiektu edo Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratzeko nahi duten ekimenei, eta, halaber, halakotzat deklaratu direnak koordinatzeko, bultzatzeko eta jarraipena egiteko unitate gisa jardunen du.

2. Inbertsiorako laguntza administratiboa prozedurak izapidetzeko eskumena duten administrazioko unitate edo organo guztiekin koordinaturik eginen da, diziplina anitzekoa izanen da eta jarduketan hauek hartuko ditu barnean:

a) Proiektuen sustatzaileei orientazioa eta laguntza ematea, proiektu horiek foru intereseko inbertsio-proiektu edo Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratzeko nahi dutenean, horretarako bete behar diren edozein motatako baldintzei eta, bereziki, baldintza administratiboetarako buruz, bidezko den administrazio publiko guztietan bete beharrekoak betetzeko. Laguntza hori proiektuen planteamenduaren hasiera-hasierako faseetik eta garatzeko prozesu osoan emanen da.

b) Aipatu proiektuak izapidetzen parte hartzen duten organo eta entitate publiko guztien jarduketan bultzatzea, izapideak azkar egin daitezela sustatuz, administrazio publiko bakoitzaren eskumena deusetan galarazi gabe.

c) Sustatzaileari laguntzea eta aholku ematea dokumentazioan dauden gabeziak zuzendu edo hobekuntzak egiteko, bai eta proiektua abian jartzea atzera dezaketenez izapidetze akatsei buruz ere.

d) Proiektuak foru intereseko inbertsio-proiektu edo Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektu deklaratzeko prozedurak izapidetzea, eta izapidetze egoeraren jarraipena egitea proiektua izapidetzeko eskumena duten organo guztiak aintzat hartuz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetakoak eta haren sektore publikoak eta, hala badagokio, toki entitateetakoak eta Estatuko Administrazio Orokorrekoak eta haren mendeko erakundeetakoak.

3. Inbertsiorako laguntza administratiboa emanen jarraituko da proiektua benetan exekutatu den eta abian jartzen den bitartean.

4. Inbertsiorako laguntza administratiboa "Invest in Navarra"k osatuko du, honako alderdi hauei dagokienez: jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzabideak; kokapenaren egoekitasuna, bai lurraldearen eta hirigintzaren ikuspegitik, bai ingurumenaren eta beste alderdi batzuen ikuspegitik; hura ezartzeko eta garatzeko eskura dauden baliabideak eta laguntzak; eta horiek lortzeko beste prozedura batzuk.

V. TITULUA Enpresa sustapena

I. KAPITULUA Lehiakortasunerako xedapen orokorrak

45. artikulua. Lehiakortasuna babesteko neurriak.

1. Industria arloko eskumena duen departamentuak neurri hauek garatuko ditu Nafarroako enpresen lehiakortasuna bultzatzeko:

a) Berrikuntza, digitalizazioa eta teknologia bultzatzea, enpresen lehiakortasunaren funtsezko faktoreak baitira.

b) Industria-proiektuetan inbertitzeko laguntza eta produktibitatearen eta enpleguaren hazkunderarekin eta hobetzearekin loturiko beste neurri batzuk, bai eta kanpoko mendekotasunak murriztearekin eta horniduren segurtasuna areagotzearekin lotutako beste neurri batzuk ere.

c) Enpresen lankidetzaren, klusterren gaineko Nafarroako politika, eskualdeak aktibatzearen planak eta lurraldeko enpresa elkarteak sustatzea, horiek guztiak Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin eta Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planarekin lerrokatuta.

d) Nafarroako industriarentzat garrantzitsua den informazioa jardura ekonomikoetarako atari bakarrean koordinatu eta zentralizatzea, besteak beste, berrikuntzara, digitalizaziora, inbertsiora eta lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako programa eta laguntzetarako sarbidea errazteko eta arintzeko, informazio hori enpresen eskura jarri.

e) Neurri propioak ezartzea eta gainerako departamentu eta eragile eskudunekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, kasuaren arabera, Nafarroako industriarako talentua erakartzeko, sortzeko, fidelizatze eta harrera egiteko politikak garatzeko.

f) Enpresetan kalitatezko giza kapitalaren eskuragarritasuna hobetzea, industriako langileak trebatzera bideratutako programak eta prestakuntza ekintzak bultzatuz, plan propioen bidez eta beste departamentu edo administrazio publiko batzuekin koordinatuta.

g) Nafarroako Enpresen Behatokia bultzatzea, industria jarduerari eta materialen erabilerari buruzko informazio garrantzitsua izateko, enpresa sarearen eta industria jarduera osoaren emaitzak baloratzeko lehiakortasun faktoreetan eragiten duten alderdi garrantzitsuei dagokienez eta, horrekin batera, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Plana eta haren barneko programak merkatuko ezusteko erronketara egokitzeko mekanismoak sustatzea.

2. Printzipio orokor gisa, lehiakortasun faktoreak hobetzeko enpresei eskaintzen zaizkien laguntza zerbitzu guztiak ezarriko dira Nafarroako lurralde guztietan ekitatea eta kapilaritatea bilatuz.

46. artikulua. Bitarteko tamainako enpresak.

Nafarroako Gobernuak bitarteko tamainako enpresei zuzeneko laguntza emateko neurriak eta ekimenak bultzatuko ditu, arreta berezia jarritz produktuen dibertsifikazioaren edo dibertsifikazio geografikoaren bitartez hazteko eta eskala handitzeko potentziala erakusten dutenetan, Nafarroan sendoago sustraitu daitezten.

II. KAPITULUA

Industria ezarpen berriak erakartzea

47. artikulua. Industria eta enpresa arloko inbertsioak erakartzea.

1. Industria arloko eskumena duen departamentuak, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan, bere eskumenerako arloan inbertsioak erakartzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu. Era berean, proposamenak eginen dizkie erabakiak hartzen dituzten beste departamentu eta instantzia batzuei funtsezko alderdi batzuei buruz, hala nola garraio, energia eta komunikazio azpiegiturak hobetzea, merkataritza eta logistika errazte aldera, finantza pizgarriak, hezkuntza eta lanerako prestakuntza, eta industria eta berrikuntza sustatuko duen arau esparrua ezartzea, argia, bidezkoa eta eraginkorra.

2. Zehazki, jarduketa hauek eginen ditu industria arloko eskumena duen departamentuak:

a) Industria lurzorua eta energia azpiegituren kudeaketa gidatuko du.

b) Nafarroan negozioak ezarri eta garatzeko nitxoak identifikatzeko azterlan teknikoak egin dai-

tezen sustatuko du, klusterrekin eta balio-kate bakoitzeko eragileekin elkarlanean.

c) Balio-kateetan identifikatu diren hutsune teknologikoetara edo pertsona eta entitate hornitzaileen hutsuneetara inbertsioak erakartzeko berriazko planak egin daitezten bultzatuko du, erakarpen lerrotatu eta estrategikoa bultzatzeko.

d) Identifikatuko du zer sektore espezifikotan dauden aktibo estrategikoak edo lehiarako abantaila berriak ekar ditzaketen potentzialak, aitzindaria eta nazioartean lehiakorra den sektore bat garatze aldera.

e) Ezagutza, aukera berriak eta neurriak sortzen lagunduko du, bioteknologiaren, teknologia digitalen eta berrikuntza teknologikoaren inguruan, batez ere deskarbonizaziorako estrategikoak, garbiak eta baliabideen erabileraren aldetik efizienterak direla uste direnentzat.

48. artikulua. "Invest in Navarra".

1. "Invest in Navarra" zerbitzua industria arloko eskumena duen departamentuak bultzatuko du, eta enpresa inbertsioa erakartzeko estrategia proaktiboa gidatzeko misioa izanen du, proiektuak erakartzeko eta Nafarroan ezar daitezten errazteko xedearekin.

2. "Invest in Navarra"k jarduketa hauek garatuko ditu, besteak beste:

a) Lidergoa, bultzada estrategikoa eta koordinazioa, enpresak Nafarroara erakartzeko eta Nafarroako industria ekosistemaren hobekuntzan eragiteko ekintzak zentralizatzeko, enpresa horien ezarpena errazteko, lurraldeko ETEetan trakzio efektu positiboa izan dezaten zainduz.

b) Nafarroan ezarritako enpresa handien jarraipena egiteko, bidean laguntzeko eta etengabeko laguntzarako *aftercare* zerbitzuaren hedapena zuzentzea.

c) Nafarroa sustatzea kanpoko inbertsiorako helmuga erakargarri gisa, Nafarroan industria inbertsioak ezartzeko erabakia hartzea errazteko, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planarekin eta haren mendeko gainerako plan eta programekin lerrotatuta.

d) Interesa duten inbertitzaileei aholkularitza pertsonalizatua ematea legeekin eta erregulazioekin lotutako gaietan eta gai administratiboetan, eta prozesu osoan bidean laguntzea, banan-banan.

e) Beste lurralde batzuetako industria arloko araudia aztertzea inbertsioa erakartzeko lehiakortasun faktoreak identifikatzeko, Nafarroako Enpresen Behatokiarekin koordinaturik.

f) Nafarroako Nazioarteko Plana ezartzeko eta haren jarraipena egiteko lantaldean parte hartzea.

g) Zerbitzuaren xede diren enpresei laguntzea administrazio baimenekin eta izapideekin loturiko guztian.

h) Dauden lurzorua eta nabeak bilatzea, lehenestea eta haien benetako eskuragarritasuna gehitzea lurzoruen bisorean, foru-lege honen 52. artikuluan araututakoan.

3. "Invest in Navarra"ren esparruan lantaldeak sortzen ahalko dira, arlo edo egoera zehatzetarako berariazko euskarria eman dezaten, industria edo enpresa arloko inbertsioen ezarpenarekin loturik betiere. Inbertsioak erakartzeko jarduketak, Foru Komunitateko Administrazioak, Foru-sektore Publiko Instituzionaleko gainerako entitateek eta lurraldeko enpresa erakundeek egiten dituztenak, "Invest in Navarra"rekin koordinatu beharko dira.

4. Industria arloko eskumena duen departamentuak, "Invest in Navarra"ren bidez, lantaldeak eratzen ahalko ditu bidezkoa den eskualde edo sektore jakin baterako, hartan dauden arazoak edo kasuistikak, ezustekoak zein potentzialak, ad hoc ebaluatzeko berariazko tresna gisa, eta talde horietan eragile publikoak eta pribatuak sartuko dira, gaia behar bezala aztertzeke behar direnak.

III. KAPITULUA

Nafarroako enpresen eta industriaren nazioartekotzea

49. artikulua. Nafarroako Nazioarteko Plana.

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du Nafarroako Nazioarteko Plan bat egin dadin, urte anitzekoa, helburu hauekin:

a) Lurraldearen nazioartekotzea sustatzea, enpresen, erakundeen eta pertsonen nazioartekotzea barne, erresilientzia eta esportazioen dibertsifikazioa areagotzeko eta, orobat, merkatu berriak irekitzeko.

b) Nafarroako enpresen ondasun eta zerbitzuen esportazioak eta atzerrian ezar daitezen bultzatzea, arreta berezia jarritz Nafarroarentzat lehentasunezkoak diren sektoreetan.

c) Nafarroako ETEei laguntzea, nazioartekotzearen fase guztietan, arreta berezia jarritz esportazioa finkatu beharra dutenetan edo nazioartean toki gehiagotan ezarri nahi dutenetan. Horretarako, Nafarroak kanpoan merkataritza bulegoak irekitzeko aukera aztertzen ahalko da.

d) Lehentasunezko arloetara atzerriko inbertsioak erakartzea sustatzea, "Invest in Navarra"rekin koordinatuta.

2. Nafarroako Nazioarteko Plana Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren funtsezko atala izanen da, eta baliabideak esleitu beharko dira hura garatzeko, enpresak eta erakundeak nazioartekotzeko berariazko laguntzen deialdia barne.

50. artikulua. "NNP Zirkulua".

1. Nafarroako Gobernuak "NNP Zirkulua" izenekoaren funtzionamendua sustatuko du. Nafarroako enpresak nazioartekotzen laguntzeko eta Nafarroarentzat nazioarteko interesa duten beste eremu batzuetan rol erabakigarria jokatzen duten entitate publiko eta pribatuen ordezkariak osatuko dute.

2. NNP Zirkuluko kideek bat eginda eta koordinaturik egiten dute lan, bikoiztasunak saihesteko, sinergiak sortzeko, enpresei informazio osoa emateko eta elkarlaneko ekintzak antolatuzko.

IV. KAPITULUA

Industria lurzorua eta azpiegituren kudeaketa

51. artikulua. Industria lurzorua eta azpiegituren garapena.

1. Industria arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako industria lurzorua gobernantza organo gisa jardunen du, eta ziurtatuko du industria lurzorua eta haren azpiegituren plangintza prozesuan (artikulu honen 3. apartatua jasotakoan) esku hartuko dutela bai toki entitateek, bai eta industria lurzoruak sustatzeari buruzko erabakiak hartzeko garrantzitsuak diren entitate edo erakunde guztiek ere. Gainera, industria lurzorua bisorearen ezarpenaz eta lurralde eta eskualdeekiko koordinazioaz arduratuko da.

2. Foru-lege honen ondorioetarako, industria lurzorutzat hartzen dira jarduera ekonomikoak eta industria jarduerak ezartzera bideratuta dauden edo horiek okupatzen dituzten lurrak, bai eta jarduera ekonomikoko eta zerbitzuetako eremuak ere.

3. Industria arloko eskumena duen departamentuak, industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan, industria lurzorua eta azpiegituren helburu estrategiko eta operatiboak zehaztuko ditu, bai eta aldian-aldian egin beharreko ekintzen antolamendua ere, lurralde kohesioa sustatuko duten industria espazio eraginkor, jasangarri eta lehiakorrek suspertzea eta sortzea barne. Industria azpiegituren aurreikuspenen

honako hauek sartuko dira: garraio sare efiziente-
etarako sarbidea, energia berriztagarrien hornidura,
hondakin urak tratatzeko eta ura leheneratzeko
instalazioak eta hondakinak kudeatzeko sistemak.
Horrekin batera, digitalizazioa eta konektibitatea
sustatu eta berrikuntzarako, ekintzailatzarako eta
enpresa hazkunderako aproposak diren espazioak
izatea bilatuko da.

4. Plangintzan, inbertsio handietarako erabilgarri
izanen den lurzoruaen aurreikuspena sartuko
da, "Invest in Navarra"rekin eta lurraldeko enpresa
erakundeekin elkarlan estuan.

5. Ekimen publikoko industria lurzorua eta
azpiegiturak sustatzea, barnean sartuta planea-
mendua idaztea, lurralde antolamenduko tresnak
eta urbanizatzeko jarduera, industria arloko eskume-
na duen departamentuaren eginkizuna izanen da,
eta, horretarako, enpresa publikoek laguntzen
ahalko diote, departamentuaren zuzendaritzapean
betiere.

52. artikulua. Lurzoruen bisorea.

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du plata-
forma bakar batean biltzea Nafarroan erabilgarri
dagoen industria lurzoru guztia eta, orobat, indus-
tria lurzoru eta nabe horien bisorea sortzea.

2. Era berean, tokiko eragileen eta jabe publiko
eta pribatu guztien parte-hartzea dinamizatuko du,
higiezinak lurzoruen bisorean sartzeko eta bisorea
eguneratua mantentzea errazteko, izan dadin zerbitzu
eraginkorra, azkarra eta aukerak eskuratzeko
ekitatea ziurtatuko duena, batez ere inbertsioak
erakartzeko.

53. artikulua. Nafarroan industria garatzeko
estrategikoak diren azpiegiturak.

1. Nafarroako Gobernuak, gainerako administra-
zio publikoekin eta zerbitzuak emateko ardura duten
enprekin lankidetzan, bakoitzak bere eskumenean
eta finantza erantzukizunen esparruan, Nafarroan
industria garatzeko estrategikotzat jotzen diren
azpiegiturak bultzatuko ditu, produktibitatea, lehia-
kortasuna, lurralde kohesioa, ingurumen eta gizarte
jasangarritasuna, talentua atxikitzea eta erakartzea
eta nazioartekotzea hobetzeko politikentzako lagun-
garria den aldetik.

Azpiegitura estrategiko horiek honako eremu
hauei dagozkie:

a) Errepideko komunikazioak: gaitasun handiko
barneko sarea, logistikako zerbitzu eta zuzkidurak
eta, orobat, kanpoko loturak eta intermodalitatea.

b) Trenbide komunikazioak.

c) Aireko komunikazioak: nazionalak eta
nazioartekoak.

d) Elektrizitate sareak: garraioko eta banaketa-
ko sareak.

e) Telekomunikazio sareak: banda zabala.

f) Gas berriztagarriak.

g) Ura: eskuragarritasuna, behar diren kantita-
tea eta kalitatea izanik, eta jasangarritasun irizpi-
deekin.

h) Energia elektriko berriztagarria: nahikoa sor-
tzea, hurbiltasuneko eta jasangarritasun irizpidee-
kin; biltegitratzea.

i) Karbonoa atzitzea.

j) Industria lurzorua.

2. Nafarroako Gobernuaren eta beste adminis-
trazio publiko batzuen arteko solaskidetza bat-
zordeak sortzea sustatuko da, industria garatzeko
estrategikoak diren azpiegituren hobekuntza bul-
tatzeko, iraunkortasun irizpideekin betiere.

V. KAPITULUA

Industria eremuen kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak

1. atala

Xedapen orokorrak

54. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Industria eremuen kudeaketarako eta moder-
nizaziorako entitateak irabazi-asmorik gabeko
talde pribatuak dira, xede publikoa, jarduteko gaita-
sun osoa eta berezko nortasun juridikoa dutenak,
haien kide diren pertsona fisiko edo juridikoenaz
bestelakoa.

2. Entitate horiek modu autonomoan kudea-
tzen dira eta berezko finantza erantzukizunarekin
jarduten dute.

3. Entitate horien araubide juridikoa honako
hauetan jasotako xedapenak aplikatzen etorriko
da: foru-lege hau, erregelamendu arauak edo
horiek garatzeko edo erregulatzeko onesten diren
beste edozein mailatako arauak, aipatu entitateen
estatutuak eta foru-lege honen 61. artikuluan aipa-
tzen den hitzarmena.

4. Kapitulu honen ondorioetarako, industria
eremutat hartuko da udalerrri bateko hiri lurzoruan
etenik ez duen lurralde eremu bakoitza, zeinetan,
hirigintza antolamenduak ezarritakoaren arabera,
erabilera nagusia industriarako, logistikarako edo
ekonomia jarduerarako erabilera baita. Salbues-
penez, eta interesdun udalek eskatuta, industria

eremutat jotzen ahalko da udalerrri bateko baino gehiagotako hiri lurzoruko lurrez osatutako multzo jarraitua, zeinetan erabilera nagusia lehen aipatutakoa baita.

5. Administrazio publikoek, komenigarritasunaren eta egokitasunaren printzipioei jarraituz, entitate horien sustapenerako eta zabalkunderako neurriak onesten ahalko dituzte.

6. Industria sustapenaren xederako, industria arloko eskumena duen departamentuaren titularrak, foru agindu bidez, industria eremuen sailkapen edo kategorizazio bat ezartzen ahalko du, bakoitzak dituen zerbitzuen eta zuzkidura eta azpiegituren arabera eta, halaber, kontuan izanda kudeaketarako eta modernizaziorako entitate batek kudeatzen dituen ala ez. Era berean, industria arloko eskumena duen departamentuaren titularrak arautuko du industria eremuak ezarritako kategorietako batean sailkatzeko prozedura.

55. artikulua. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateen helburuak.

Foru-lege honen babesean eratzen diren kudeaketarako eta modernizaziorako entitateek helburu hauek izaten ahalko dituzte besteak beste, eta betiere kudeatzen duten industria eremuaren edo jarduera ekonomikoaren esparrura mugatuta:

a) Industria eremuak azpiegitura, zuzkidura eta zerbitzu egokiak izan ditzan bultzatzea, jarduera ekonomikoek garapen efizientea eta jasangarria –ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alde– izateko behar direnak, eta industria lurzoruaren kudeaketa eta kalitatea eta enpresen lehiakortasuna hobetzea.

b) Udalaren inplikazioa eta lankidetzeta publiko-pribatua sustatzea industria eremuan dauden azpiegitura eta zerbitzuak kudeatzeari eta hobetzeari dagokionez, bai eta eremuari balio erantsi handiagoa emanen dioten zuzkidura eta zerbitzu berriak ezartzeko ere.

c) Enpresekin alde aurretik hitzartuta, udal eskudunarekin elkarlanean aritzea mugikortasun planak egiteko. Plan horietan sartuko dira langileen, bisitarien eta erabiltzaileen joan-etorriak eta, halaber, salgaien mugimenduak eta merkataritzak sortutakoak.

d) Askotariko tresnak ezartzea entitateko kideek eta, halaber, administrazio publikoek modu eraginkorragoan lagun dezaten, bakoitzari dagozkion industria eremuetan, azpiegitura, zuzkidura eta zerbitzuak zaintzen, modernizatzen, handitzen eta hobetzen, alde batera utzi gabe horiek modernizatzeko eta zaintzeko zerbitzuak finantzatzeari

dagokionez toki entitateek dituzten erantzukizun eta eskumenak.

e) Udal eskudunarekin elkarlanean aritzea, egoki bete ditzan arlo hauetan dituen betebeharrak: zaintza, modernizazioa, garbiketa, jagoletza, garbitasuna eta oinarrizko zerbitzuak ematea.

f) Bere gain hartzea udal zerbitzuen kudeaketa, entitateko kideek hala adosten badute eta udal eskudunak esleitzen badio, betiere aplikatu beharreko legediaren arabera.

g) Zaintzea behar bezala erabiltzen direla urbanizazio elementuak eta betetzen direla ondatsun higiezinaren titularrek eta okupatzaileek arlo horretan dituzten eskubide eta betebeharrak.

h) Entitateko kideen interes komunak ordezkatzea eta defendatzea artikulua honetan adierazitako eginkizunei dagokienez, edozein erakunde edo agintaritzaren publikoren aurrean, bai eta edozein jurisdikzioaren epaitegi eta auzitegien aurrean ere, estatutuen arabera baliozkoak diren akordioaren arabera.

i) Udal eskudunari helaraztea entitateko kideen proposamen edo kexak, industria eremuko zerbitzu eta azpiegiturek hobeki funtziona dezaten, kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen eskumenen barnean.

j) Industria eremuarekin loturik toki administrazioak eta foru administrazioak eskatzen dioten informazioa biltzea eta haiei ematea, eta udal eskudunari aldian-aldian jakinaraztea udal zerbitzuetan ikusten diren balizko gabeziak, halakorik bada.

k) Udalari eta industria arloko eskumena duen departamentuari aldian-aldian informazio osoa ematea erabilgarri dagoen lurzoruari eta haren erabilera edo jabetza eskuratzeko formulei buruz, baita kudeatzen duten eremuko zerbitzu eta zuzkiduren egoerari buruz ere.

l) Industria eremuak hobetzeko pizgarri ekonomiko eta administratiboak sustatzea, enpresei eta udal eskudunari zuzenduta.

m) Zerbitzu mankomunatuak sustatzea, industria eremuko zerbitzuen eta azpiegituren kudeaketa modu eraginkorrean hobetzen lagun badezakete.

n) Administrazio publiko guztiekin elkarlanean aritzea, industria eremuari eragiten dioten haien eginkizun publikoei dagokienez, bereziki kanpo sustapeneko jarduketetan eta inbertsio nazionalak edo atzerrikoak erakartzen.

o) Industria eremua biziberritzen eta garatzen laguntzen duen beste edozein helburu.

56. artikulua. Kudeaketarako eta modernizatorako entitateen kideak.

1. Eratzen diren kudeaketarako eta modernizatorako entitateen kide izanen dira kudeaketarako eta modernizatorako entitateak mugatutako eremuaren barnean jabetza, gozamen edo azalera eskubidea duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak –bat etorrita artikuluko honen 4. apartatuan horretaz ezarritakoarekin– eta, halaber, aipatu eremuaren barnean ondare ondasun higiezinak atxikita edo titular gisa dituzten administrazioak, erakunde publikoak eta horien mendeko zuzenbide publiko zein pribatuko entitateak. Gainera, forulege honen 3. artikuluan zehaztutako sindikatuek ere parte hartuko dute, hitza izanen baitute, baina botorik ez.

2. Kudeaketarako eta modernizatorako entitateetako kide izateko unibertsala, nahitaezkoa eta automatikoa izanen da, udal eskudunek baimentzen dituztenetik, eta, baimenaren erabakitik aurrera, kide guztiek ordaindu beharko dute kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen gastuetarako ekarpena, bakoitzaren partaidetza kuoten arabera.

3. Administrazio publikoak, erakunde publikoak eta horien mendeko zuzenbide publiko zein pribatuko entitateak, baldin eta ez badute ondare ondasunik industria eremu baten barnean eta, aitzitik, zuzkidurako edo herri jabari edo jabari publikoko higiezinak baino ez badituzte atxikita edo titular gisa, ez dira entitatearen nahitaezko kide izateko hartuko, eta, beraz, ez dute izanen haren gastuetarako ekarpena ordaintzeko betebeharririk, non eta ez den kontrakoa adosten udalarekin egindako lankidetzaren hitzarmenean industria eremuaren inguruabar partikularrik aintzat hartuta. Aurrekoa gorabehera, gutxienez ordezkari bat izateko eskubidea izanen dute, hitzarekin baina botorik gabe, bai entitatearen batzar nagusian, bai zuzendaritza batzordean.

4. Higiezinaren jabe den pertsona fisiko edo juridikoari dagokio kudeaketarako eta modernizatorako entitateko kide izatea. Hori hala bada ere:

a) Gozamen eskubiderik bada, gozamendunari edo gozamendunei dagokie kide izatea.

b) Azalera eskubiderik bada, azalera eskubidedunari edo eskubidedunei dagokie kide izatea.

c) Jabetza eskubidearen titularren ordezkari, edo gozamen edo azalera eskubidearen titularren ordezkari a) eta b) letretan deskribatutako kasuetan, bidezko edozein titularen bidez haien ondasun higiezinaren errentari edo okupatzaile direnek parte har-

tzen ahalko dute, baldin eta kideek ordezkari hori modu frogagarrian jakinarazten badiote zuzendaritza batzordeko idazkariari, eta ordezkari formalki onartzen badute idazkariaren aurrean edo notario agiri baten bidez. Hala bada, ordezkari izanen dira entitateko kide, eta, ondorioz, nahitaezko ekarpenak ordaindu beharko dituzte, eta haienak izanen dira kudeaketarako eta modernizatorako entitateko partaideen boto eskubideak eta gainerako eskubideak. Subrogazio hori gorabehera, titularrak subsidiarioki erantzunen du, baldin eta ordezkariak ez baditu epean betetzen dagozkion betebeharrak ekonomikoak.

2. atala

Kudeaketarako eta modernizatorako entitateen eratzeko prozedura

57. artikulua. Kudeaketarako eta modernizatorako entitateen eratzeko ekimena.

1. Forulege honen 56. artikuluko 1. apartatuan zehazten diren pertsona eta entitateei dagokie entitatearen sorrera eta eraketa sustatzea udal eskudunen aurrean.

Ondorio horietarako, formalki eratua –dokumentu publiko edo pribatu batean– dagoen sustapen batzorde batek soilik aurkezten ahalko dio udalari kudeaketarako eta modernizatorako entitateen eratzeko eskaera, eta sustapen batzorde horrek egiaztatuko du kideen % 25 gutxienez ordezkari izateko beharko du kideen % 25 gutxienez dagokiela, forulege honen 72. artikuluko arabera kalkulatu. Sindikatuen bi ordezkari, gutxienez, parte hartuko dute sustapen batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, entitate horiek eratzeko beste aukera bat izanen da lehendik dagoen entitate bat kudeaketarako eta modernizatorako entitate bihurtzea, dela kontserbaziorako hirigintza entitate bat, industriadun edo logistikarako eremuen jabeentzako erki-dego bat edo entitate beste pertsona juridiko edo entitate bat.

Kasu horretan, eskatzailearen legezko ordezkariak aurkeztu beharko du kudeaketarako eta modernizatorako entitateen eratzeko eskaera, bidezko barne erabakiak hartu ondoren.

3. Eratzeko eskaeran, gutxienez, honako hauek sartuko dira:

a) Sustapen batzordea osatzen duten kideen identifikazioa (edo kidearena, bakarra bada), bai eta jakinarazpenetarako helbide bat ere.

b) Kudeatu nahi den industria eremuaren identifikazio zehatza.

c) Jarduketa planaren hasierako proposamena, zeinetan agertu beharko baitira indarraldirako aurreikusitako jardueren, zerbitzuen, hobekuntzen edo kudeaketa eta modernizazio neurrien deskribapena eta aurrekontuaren proiektu xehatu bat, bien bideragarritasuna justifikatzen duen memoriarekin batera. Era berean, egungo kontserbazio egoerari buruzko azterketa sartu beharko da, urbanizazio obren eta zona publikoetako zerbitzu komuneren zuzkiduren eta instalazioen egoerari dagokionez.

d) Entitatearen estatutuen hasierako proposamena.

e) Udalarekiko hitzarmenaren hasierako proposamena.

f) Higiezinaren eta eskubide erreal, pribatu, ondarezko eta jabari publikoko guztien jabariaren eta kargen erregistroko ohar soila, entitateak kudeatu nahi duen industria eremuan inskribatuta eta sartuta dauden ustiapen ekonomiko pribatura bideratutako higiezin eta eskubide guztiak, artikulua honen lehen apartatuan sustapen batzordeari eskatzen zaion ordezkariaren ehunekoia egiaztatzeko. Higiezin bat edo eskubide erreal bat inskribatuta ez badago, haren titulartasuna edo atxiki-pena frogatzen duen agiriaren kopia aurkeztu beharko da.

g) Erregelamenduz, lehen aipatutako agirien edukia zehazten ahalko da, eta, behar izanez gero, beste agiri batzuk gehitu ere bai. Toki entitateak tasa bat ezartzen ahalko du, zeina sustapen batzordeari exijituko baitzaio, kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea eratzeko eskaera izapidetzeagatik.

4. Eratzeko eskaerak ez baditu betetzen artikulua honen aurreko apartatuan eskatzen diren baldintzak, udalak sustapen batzordeari eskatuko dio zuzen dezala akatsa edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala hamar egun balioduneko epean, eta adieraziko dio hala egin ezean ulertuko dela atzera egin duela eskaeran eta prozedura amaitutzat emanen dela, aurretik dagokion ebazpena emanda, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat.

5. Aurkeztutako agiriak egiaztatu ondoren, eskaera aurkezten denetik hilabeteko epean, erabaki hauetako bat hartuko du udalak:

a) Izapidetzeko ez onartzea. Horrek espediente artxibatzea ekarriko du, ekimenak kaudimen ekonomiko, finantzario edo tekniko nahikoa ez izateagatik edo behar bezala arrazoiutako egokitasun eta komenigarritasun arrazoiengatik.

b) Izapidetzeko onartzea. Horrek entitatea eratzeko prozedurak jarraitzea ekarriko du.

6. Eskaera aurkezten denetik hilabeteko gehieneko epea iragaten bada izapidetzeko onartzeari buruz berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, ulertuko da eskaera administrazio isiltasunez baztertu dela.

7. Eratzeko baimena ebazteko eta jakinarazteko, urtebeteko gehieneko epea izanen da, sustapen batzordeak eskaera aurkezten duenetik. Epe hori iragaten bada berariazko ebazpenik jakinarazi gabe, sustapen batzordeak ulertzen ahalko du eskaera administrazio isiltasunez ezetsi dela.

8. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak eratzeko prozedura izapidetzeko baliabide materialik edo giza baliabiderik ez dutela adierazten duten udalek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esku uzten ahalko dute prozedura bultzatu eta izapidetzeko ardura, salbu eta erabaki hauek hartzeko ardura: eskaera onartzearen gainekoa, behin-behineko onespina eman edo ukatzekoa eta eraketa baimentzekoa.

58. artikulua. Hitzarmenaren negoziazioa eta behin-behineko baimena.

1. Eskaera izapidetzeko onartzen denetik hamar egun balioduneko epean, udalak lantalde bat sortuko du, udal ordezkariak eta sustapen batzordeak horretarako izendatutako ordezkariak osatua, bai eta beste administrazio publiko batzuetako ordezkariak ere, haien eskumenak ukituta baldin badaude.

2. Lantaldeak lankidetzat hitzarmenaren behin betiko proposamena egiten du, udalak eta kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak izenpetu dezaten. Bertan jaso beharko dira alde bakoitzak hartuko dituen konpromisoak eta foru-legen honen 61. artikuluan zehazten diren baldintza guztiak, bai eta lantaldeak beharrezkotzat edo egokitatzat jotzen duen beste edozein ere.

Lantaldeak, orobat, jarduketa planaren, estatutuen eta aurrekontuaren behin betiko proposamenak egiten ditu.

3. Lantaldeak presatutako dokumentuak sustapen batzordeak onetsi beharko ditu. Onespen hori ez bada gertatzen lantaldearen jarduketak bukatzen direnetik hiru hilabeteko epean, udalak ezetsi egiten du eratzeko eskaera.

4. Sustapen batzordeak lantaldearen proposamena onetsi ondoren, udalak udal zerbitzu eskudunei eskatuko die nahitaezko txostena eman dezatela hilabeteko epean, gai hauei buruzko iritzia jasota:

a) Jarduketa planean jasotako ekintzak interes orokorrekin bat datozen, begiratuta aurreikusitako jarduketa pribatuek ez ditzatela eskumen publikoak inbaditu, bai eta haren bideragarritasuna eta industria eremuarena ere. Txostenean, sartzen ahal dira kudeaketarako eta modernizaziorako entitate baimentzea ez dela komeni pentsatzera daramaten duten egokitasun arrazoiak.

b) Noraino diren zentzuzkoak eta bideragarriak jarduketa plana betetzeko aurreikusten den aurrekontua eta berarekin ekarriko dituen nahitaezko ekarpenak.

c) Proposatutako hitzarmena legeen araberakoa den.

5. Udalak, txostenak bildu ondoren eta udal autonomiaren printzipioaren arabera, askatasunez eta arrazoituta erabakiko du kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea eratzeko baimena behin-behinean ematea ala ukatzea.

6. Udalak entzunaldia emateko izapidea eginen du baimena emateko behin-behineko erabakiarekin. Horretarako, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du eta banan-banan jakinaraziko die eratzekoa den kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen kide izaten ahal diren pertsona edo entitateei, alegazioak egin eta egokiak iruditzen zaizkien agiriak eta justifikazioak aurkeztu ahal ditzaten gutxienez hamar eta gehienez hamabost eguneko epean.

59. artikulua. Berresteko prozesua.

1. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen eraketa behin-behinean baimentzea erabaki ondoren eta, alegaziorik izan bada, udalak horiek ebatzi ondoren, bi hilabeteko epean, berrespen batzarrera deituko zaie eratzekoa den kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen kide izaten ahal diren pertsona eta entitate guztiei (alegia, 56. artikuluko 1. eta 4. apartatuen arabera kide izaten ahal direnei).

2. Berrespen batzar horretarako zitazioa udalak eginen du, modu frogagarrian egin ere, gutxienez 15 egun natural lehenago, gai zerrenda adierazita, bai eta non, noiz eta zer ordutan eginen den batzarra, lehenengo eta bigarren deialdian; orobat, berariaz adieraziko da kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea sortzeko proposamena bozkatuko dela.

Zitazioan, halaber, udalaren atari elektronikorako esteka bat izanen da, zeinetan batzarrera deitutako pertsonen eskura izanen baitira lantaldeko prestatutako agiriak. Aipatu agiriak udal bulegoetan ere jarriko dira interesdunen eskura.

3. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea sortzeko proposamena berretsiz jo dadin, aldeko babesa eman beharko diote, gutxienez, foru-lege honen 56. artikularen 1. eta 4. apartatuen arabera kide izaera duten pertsonen % 51k, zeinek, gainera, partaidetza kuota edo ekarpenen % 51 gutxienez izan beharko baitute, 72. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

4. Berrespen batzarrean onetsi beharko dira, lehen esandako gehiengo bikoitz berarekin, entitatea eratzeko borondatea, lankidetzaren hitzarmena, estatutuak, jarduketa plana eta aurrekontua. Bestetik, onetsi beharko da, bertaratuen eta ordezkariaren gehiengo soilez, zuzendaritza batzordeko karguetan –66. artikuluan zehaztuta daudenetan– arituko direnen izendapena, entitateko kide guztien artean hautatuta.

60. artikulua. Eratzeko baimena.

1. Berrespen batzarra egin eta bi hilabeteko epean, udalak, egiaztatu ondoren behar bezala berretsi direla entitatea eratzeko borondatea, lankidetzaren hitzarmena, estatutuak, jarduketa plana eta aurrekontua, eta izendatu dela zuzendaritza batzordea, behin betiko baimentzen ahalko du entitatearen eraketa, udaleko osoko bilkuraren aldeko erabakiaren bidez, erabaki hori aplikatzekoa den toki araubideko araudian ezarritako prozedurarekin bat hartuta. Horrela, erabaki horretatik aitzina, kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak nortasun juridiko osoa eskuratuko du.

2. Lankidetzaren hitzarmena agiri loteslea izanen da, eta toki administrazioaren eta kudeaketarako entitatearen arteko harremana arautuko du, lege honetan garatzen denaren arabera eta aplikatu beharreko legediarekin bat. Lankidetzaren hitzarmena hilabeteko gehieneko epean sinatu beharko da, baimena ematen duen udal erabakitik.

61. artikulua. Lankidetzaren hitzarmena.

1. Udalak eta kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak izenpetutako hitzarmenak lankidetzaren hitzarmenaren izaera izanen du.

2. Hitzarmenean alderdi hauek sartuko dira, gutxienez ere:

a) Hitzarmena izenpetzen duten aldean eta haien ordezkari gisa jarduten duten pertsona fisikoaren identifikazioa.

b) Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak, hartzen duen konpromisoaren arabera, egin beharreko jarduketak, bai eta udalarekiko lankidetzarako modalitateak ere, haien denbora banaketan, urtekoaren arabera, eta aurrekontuko egozpena zehaztuta.

c) Udalak bere gain hartzen dituen betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, kasua bada. Udalak bere gain hartzen dituen konpromiso ekonomikoak urteko kopuru finko bat izaten ahal dira, edo urteko kopuru aldakor bat, udalak ekitaldi bakoitzean foru-lege honen 56. artikulua araberak kide izaera duten pertsonengandik lortzen dituen diru-sarreraren arabera zehaztua, edo hitzarmenaren aldeek horretarako adosten duten beste edozein.

d) Udalak nola parte hartuko duen kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen organoetan.

e) Zer zerbitzu publiko utziko diren kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen esku, kasua bada.

f) Udalak kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen erabakien, urteko kontuen eta egindako jarduketan gainean kontrola izateko formulak, deusetan galarazi gabe aplikatzekoa den toki araubideko legediak udalari esleitzen dizkion eskumenak.

g) Bi aldeek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak eta, hala badagokio, ez-betetze horrek izan lezakeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

h) Hitzarmena betetzearen eta bi aldeek bere gain hartutako konpromisoen jarraipen, zaintza eta kontrolerako tresnak. Horien barnean ebatziko dira hitzarmenaren interpretazioaren eta hura betetzearen inguruan sor daitezkeen gorabeherak, nahiz eta horrek ez duen deusetan galaraziko administrazioarekiko auzien ordenako organo juridikionalek auziez arduratzeko duten eskumena.

i) Hitzarmena aldatzeko araubidea.

j) Hitzarmena azkentzeko arrazoiak eta zer ondorio izanen duen entitatearen likidazioari eta abian diren jarduketan bukaerari dagokienez.

k) Hitzarmenaren indarraldia, zeina ezin izanen baita hogeitun urtetik gorakoa izan.

3. Hitzarmenak eranskin hauek izanen ditu:

a) Udalaren erabakia, behin betiko baimentzen duena kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen eratzeara.

b) Hitzarmenaren xede den industria eremuaren plana.

c) Entitatearen jarduketaren plana.

d) Kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen estatutuak.

e) Entitatearen aurrekontua haren indarraldiko lehen urterako.

62. artikulua. Publizitatea.

1. Baimena emateko udal erabakia eta sinatutako lankidetzaren hitzarmena jakinarazi egiten zaizkie entitatearen xede den industria eremuko kide guztiei. Agiriok, gainera, argitaratu egiten dira, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 11.2.c) artikulua ezarritako baldintzetan. Halaber, interesdun guztien eskura egonera dira beti, eraturako entitatearen egoitzan eta udal bulegoetan.

2. Gardentasuna bermatzearen, kudeaketarako eta modernizatorako entitateak bere atari elektronikoan argitaratuko ditu entitatearen urteko aurrekontuak, jardueren urteko memoria eta kudeaketa organoen osaera; horrek ez du galarazten erregelamenduz beste betebeharrak batzuk ere gehitzea.

3. Erregelamenduz, kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen erregistro bat sortzen ahalko da, baita haren antolaketari, prozedurari, funtzionamenduari eta publizitateari buruzko alderdiak arautu ere.

4. Agiri, jakinarazpen, erregistro eta antzeko guztietan hizkera inklusiboa erabiliko da, eta generoan oinarritutako estereotipo eta rola erakusten dituzten irudiak saihestuko dira.

63. artikulua. Udalez gaindiko kudeaketarako eta modernizatorako entitate bat eratzeara.

Kudeatu beharreko industria eremuak udal bakoitza gehiago hartzen badu barnean, ukitutako udal guztietan egin behar dira kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen eratzeko baimenen izapide guztiak. Horregatik, foru-lege honetan udala aipatzen den orotan, udal eskudun guztiei buruz ari dela ulertu behar da.

3. atala

Kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen antolamendu eta funtzionamendu araubidea

64. artikulua. Kudeaketarako eta modernizatorako entitatearen organoak.

1. Honako organo hauek kudeatuko dituzte kudeaketarako eta modernizatorako entitateak:

a) Batzar nagusia.

b) Zuzendaritza batzordea.

c) Lehendakaritza.

d) Kudeatzaileak.

2. Gobernu organo gehiago ezartzen ahalko dira estatutuetan, hitzarmenean edo batzar nagusiak gehiengoz erabakita.

3. Erabakiak hartzeko, kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen organoek demokraziaren printzipioa errespetatuko dute. Nolanahi ere, batzar nagusian, hura osatzen duten kideen boto eskubidea proportzionala izanen da, partaidetza kuota edo ekarpenen arabera, foru-lege honen 72. artikulua arabera kalkulaturik.

65. artikulua. Batzar nagusia.

1. Batzar nagusia da kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen gobernu organo goren eta honako hauek osatuko dute:

a) Entitateko kideak (titularrak edo ordezkariak), foru-lege honen 56. artikuluan xedatutako arabera.

b) Ukitutako administrazio publikoen ordezkariak, hitzarmenean ezartzen den kopuruan eta ahalmenekin.

c) Batzar nagusian sindikatuen ordezkariak batek parte hartuko du, hitzarekin baina botorik gabe.

2. Batzar nagusiaren bilkurak eginen dira zuzendaritza batzordeak erabakitzen duenean, lehendakariak idatziz eskatzen duenean edo batzar nagusiko botoen % 10 gutxienez ordezkariak duten pertsonak idatziz eskatzen dutenean. Edo nola ere, ekitaldi bakoitza itxi eta hurrengo sei hilabeteen barnean batzar nagusiaren bilkura bat egin beharko da honako hauek onesteko:

a) Entitatearen urteko kontuak, aurreko ekitaldiari dagozkionak.

b) Abian den ekitaldiko aurrekontuak, aurreko ekitaldian onetsi ez baziren.

3. Entitatearen estatutuetan zehaztuko dira batzar nagusiaren bilkurak egiteko arauak, deialdia egiteko epeak eta publizitatea, erabakiak hartzeko behar diren gehiengoak eta haren funtzionamendu normalerako argibide guztiak.

4. Batzar nagusiak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Zuzendaritza batzordeko kideak hautatzea edo kargutik kentzea.

b) Zuzendaritza batzordearen kudeaketa onestea.

c) Aurrekontuak eta urteko kontuak aztertu eta onestea.

d) Estatutuak aldatzea.

e) Entitatearen ondasunak erabiltzea edo besterentzea.

f) Entitatea berritzeko proposamena onestea.

g) Hitzarmenaren edozein aldaketa, osagarri edo gehigarri onestea, bai eta hitzarmen horren edukari eragiten dion beste edozein erabaki ere.

h) Entitatea desegitea.

i) Estatutuek edo foru-lege hau garatzeko arauak esleitzen dioten beste edozein eskumen.

66. artikulua. Zuzendaritza batzordea.

1. Zuzendaritza batzordea da kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea kudeatzeaz arduratzen den kide anitzeko organoa. Estatutuetan ezarriko da haren osaera, baina beti izanen ditu kide hauek:

a) Lehendakari bat eta idazkari bat.

b) Estatutuetan ezartzen den batzordeko kide kopurua, nahitaezko ekarpenak ordaintzeko beharra dutenak ordezkatzeko.

c) Ukitutako administrazio publikoen ordezkari bat gutxienez, hitzarmenean ezartzen denaren arabera, interes publikoak zainduko dituena.

d) Langileen bi ordezkari gutxienez, hitzarekin baina botorik gabe.

2. Zuzendaritza batzordeko kargu guztiak ordain gabekoak izanen dira, baina horrek ez du deusetan galarazten beren eginkizunak betetzeak ekarzen dizkien gastuak konpentsatzea.

3. Zuzendaritza batzordeko kideak batzar nagusiak izendatu eta kargugabetuko ditu. Hala ere, estatutuetan ezartzen ahalko da zuzendaritza batzordeak beste kide batzuk behin-behinean izendatzeko aukera, kideren baten baja edo dimisioa gertatzen den kasuetarako, hurrengo batzar nagusia egin arte.

4. Estatutuetan ezarriko da zenbat denborarako izanen den zuzendaritza batzordeko kide bakoitzaren agintaldia.

5. Zuzendaritza batzordea lehendakariak erabakitzen duen guztietan bilduko da, bai eta gutxienez kideen herenek eskatzen dutenean ere. Era-tua geldituko da kideen erdiak gehi bat eta, nahitaez, lehendakaria eta idazkaria bertaratzen direnean. Erabakiak baliozkoak izan daitezen, botoen gehiengoz hartu beharko dira, salbu eta estatutuetan edo hitzarmenean gehiengo osoak ezartzen badira erabaki jakin batzuk hartzeko.

6. Zuzendaritza batzordearen eginkizunak, oro har, kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen berezko ekintza guztietara hedatuko dira, baldin eta, estatutuen arabera, ez badute behar batzar nagusiaren berariazko baimenik edo ez badira haren eskumenekoak.

Zuzendaritza batzordearen berezko eginkizunak izanen dira:

a) Entitatearen jarduera sozialak gidatu eta kudeaketa ekonomiko eta administratiboaz arduratzea, eta zer kontratu eta egintza behar diren erabakitzea.

b) Batzar nagusiaren erabakiak betearaztea.

c) Entitateko kudeatzailea izendatzea.

d) Aurrekontuak eta urteko kontuak egin eta batzar nagusiari aurkeztea, onets ditzan.

e) Beste edozein ahalmen, batzar nagusiaren eskumen eskusiboa ez dena.

67. artikulua. Entitateko lehendakaritza.

1. Zuzendaritza batzordeak aukeratuko du nork beteko duen lehendakaritza, bere kideen artetik.

2. Lehendakariak eskudantzia hauek izanen ditu:

a) Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen legezko ordezkaria izatea era guztietako erakunde publiko edo pribatuen aurrean.

b) Batzar nagusiak eta zuzendaritza batzordeak egiten dituzten bilkura guztietarako deialdia egitea, eta haiek zuzendu eta bukatutzat ematea, bai eta bietan eztabaidak bideratzea ere.

68. artikulua. Kudeatzailletza.

1. Kudeatzailletza da batzar nagusiaren eta zuzendaritza batzordearen erabakiak betearazteaz arduratzen den eta entitatearen administrazio arruntaren eginkizunak betetzen dituen organoa.

2. Kudeatzailletza kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea dagoen lurraldeko enpresa elkartearen esku uzten ahal da, halakorik bada, edo edozein pertsona fisiko edo juridikoren esku.

3. Kudeatzailea batzar nagusiaren eta zuzendaritza batzordearen bilkuretan egonen da, hitzarekin baina botorik gabe.

4. Kudeatzaileak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Entitatearen urteko aurrekontua eta kontuak egitea.

b) Entitatearen kudeaketari buruzko urteko memoria prestatzea.

c) Jarduketa plana ezartzea eta entitatearen intereseko jarduketa plan eta programak proposatzea.

d) Batzar nagusiak edo zuzendaritza batzordeak bere gain uzten dituen edo eskuordetzen dizkion gainerako lan eta eginkizunak.

69. artikulua. Parte-hartzerako kontsulta foroa.

Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak kontsulta foro bat eratu beharko du eremuko jarduketek eta kudeaketak ukitzen dituzten pertsona guztien parte-hartzea sustatzeko. Haren funtzionamendua eta osaera hitzarmenean garrantuko dira, eta bertan ordezkatura egonen dira kudeatutako eremuko langileak, enpresak, ondusun higiezinen jabeak eta bizilagunak.

70. artikulua. Estatutuak.

1. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen estatutuek eduki hauek izan beharko dituzte gutxienez, eta, betiere, foru-lege honetan ezarritako gainerako baldintzak errespetatuko dituzte:

a) Entitatearen izena. Ezin izanen da errepikatu lehendik dagoen beste batena, eta ez du okerrerarako edo harekin nahasteko biderik eman beharko. Izenean nahitaez agertu beharko dira "kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea" hitzak edo "KME" siglak, gisa honetako entitateerarako soilik erabiliko baitira.

b) Egoitza soziala.

c) Entitatearen xede soziala. Hartan, gutxienez ere, mugatutako industria eremuaren barneko zerbitzuak eta zuzkidurak kudeatzea eta modernizatzea sartuko da, bai eta zerbitzu publikoak kontratu edo hitzarmen bidez bere gain hartzea ahalbidetzen dion beste edozein ere.

d) Entitateko kideen (titularrak edo ordezkoak) eskubide eta betebeharrak.

e) Gobernu organoak arautuko dituen araubidea, honako hauek zehazten dituenak: osaera, eginkizunak, iraupena, jarduteko prozedurak, erabakietarako gehiengoak, boto eskubidea eta kideen bermeak.

f) Estatutuak aldatzeko prozedura.

g) Industria eremua edo entitateko kide kopurua handitzeko edo murrizteko mekanismoak.

h) Entitateko kideen (titularrak edo ordezkioak) baldintzak, helburuak eta haiek onartzeko, baja emateko eta kanporatzeko prozedura.

i) Desegiteko eta likidatzeko arrazoiak eta prozedura, eta, erakundea deseginez gero, zer xede izanen duen soberako ondareak.

j) Hitzarmenak, foru-lege honek edo foru-lege hau garatzen duen araudiak ezarritako beste edozein beharkizun.

2. Lehenbiziko estatutuak nahitaez onetsi beharko dira eraketa batzarrean, foru-lege honen 59. artikuluan aipatzen den horretan.

3. Estatutuak barne araubideko erregelamenduen bidez garatzen ahalko dira.

4. atala

Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen finantzaketa

71. artikulua. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen baliabide ekonomikoak.

1. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak baliabide hauek izanen ditu, nagusiki:

a) Nahitaezko ekarpenak, foru-lege honen 72. artikuluan arautuak.

b) Udalaren ekarpenak, foru-lege honen 61.2.c) artikuluan arautuak.

c) Administrazio publikoen laguntza eta dirulaguntzak.

d) Borondatezko ekarpenak eta dohaintzak.

e) Ematen dituen zerbitzuen ondoriozko etekinak, entitatea finantzatzeko ekarpenak ordaintzeko obligazioa dutenei edo kudeaketarako eta modernizaziorako entitatean borondatez sartu eta hura finantzatzeko ekarpena borondatez egiten dutenei soilik ematen ahal dizkien zerbitzuetatik datozenak.

f) Bere ondarea ustiatzearen ondoriozko etekinak.

2. Entitateak, betiere, berez dagozkion jarduerak egiteak eragiten dizkion gastuak estaltzeko erabili beharko ditu aurreko apartatuan jasoak dauden baliabideetatik datozen diru-sarrerak, eta debekatuta izanen du diru hori kideen artean banatzea.

3. 1. paragrafoko a) eta b) letretan aipatutako ekarpenetatik datozen diru-sarrerak entitatearen aurrekontuan aurreikusitako gastu guztien % 70 estali beharko dute, gutxienez.

Ekarpenetatik datozen diru-sarrerak gainerako diru-sarreretatik bereizita kontabilizatu eta kudeatu

beharko ditu kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak. Zenbateko horiek nahitaez erabili beharko dira, entitatearen gainerako diru-sarrerak bezalaxe, entitate bakoitzaren jarduketa planean ezarritako xedeetarako eta funtzionamendu gastuetarako, udalarekin izenpetutako hitzarmenean jasotako aurrekontuaren arabera.

4. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateek ondare propioa izaten ahalko dute.

72. artikulua. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea finantzatzeko nahitaezko ekarpenak.

1. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitate bat eratzeko baimena ematen duten udalek, haren aurrekontua finantzatzeko, ekarpenak ordaintzeko obligazioa ezarriko diete entitateko kide guztiei.

Nahitaezko ekarpenaren ordainarazpena ordenantza bidez onetsi beharko da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko I. kapituluko 3. atalean ezarritako baldintzetan.

Ordenantza onesteko prozedura izapidetzeko baliabide materialik edo giza baliabiderik ez dutela adierazten duten udalek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esku uzten ahalko dute prozedura bultzatu eta izapidetzeko ardura, salbu eta behin-behineko eta behin betiko onespeneraren erabakiak hartzeko ardura.

2. Ekarpen horrek zergaz kanpoko ondare-presztazio publikoaren izaera du, bat etorritz Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikuluekin eta Nafarroako Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita hamargarren xedapen gehigarriarekin.

3. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateko kide bakoitzaren partaidetza kuota edo ekarpena honela kalkulatu da: ustiapen ekonomikora bideratutako higiezin edo eskubide erreal pribatu edo ondarezko bakoitzaren katastroko balioa zati industria eremuan dauden ustiapen ekonomikora bideratutako higiezin eta eskubide erreal pribatu eta ondarezko guztien batura.

73. artikulua. Ekarpenerarako hobariak.

Udalek, kudeaketarako eta modernizaziorako entitateari egin behar zaizkion ekarpenerarako, hobari hauek ezartzen ahal dituzte:

a) % 100era bitartekoa, ongintzako edo interes orokorreko xedeak dituzten jardueren kasuan.

b) % 50era bitartekoa, jarduera baten lehen urtean, eta % 25era bitartekoa, bigarren urtean, ekintzailtza babesteko.

c) % 100era bitartekoa, kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen xedetik eta haren jarduketa planetik onurarik lortzen ez duten jarduera ekonomikoetarako edo gisa horretako jarduera ekonomikoak har ditzaketen higiezinatarako.

74. artikulua. Ekarpunen ordainketa.

Ekarpenen zenbateko osoa urteko kuotatan hainbanatuko da; kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen indarraldiko urte naturalak zenbat, kuotak hainbat. Udalak ordenantza bidez zehazten duen aldizkakotasunarekin eskatzen ahalko da kuota bakoitzaren ordainketa.

75. artikulua. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateari egin beharreko ekarpunen kudeaketa, bilketa eta aurkaratzea.

1. Udalak kudeatu eta bilduko ditu nahitaezko ekarpenak, kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen kontura, ekarpenak ezartzen dituen udal ordenantzaren ezarritako baldintzetan.

2. Udalak entitateari emanen dio bildutako ekarpunen zenbatekoa, baina kopuru bat gordezen ahalko du beretzat, kudeaketak eta bilketak eragiten dizkioten gastuen konpentsazio gisa. Kopuru hori ez da izanen bildutako guztiaren % 5 baino gehiago.

3. Bere indarraldia bukatzean entitateak ez badu gastatu kontzeptu horregatik jasotako diru guztia, soberakina itzuli beharko dio udalari, zeinak itzuli beharko baitizkie zenbateko horiek ekarpena egiteko betebeharra dutenei, ordaindu zituzten ekarpunen proportzioan itzuli ere.

4. Ekarpen horiek ezartzea justifikatzen duten interes publikoak aintzat hartuta, haien kobrantza premiamendu-prozedura administratiboaren bidez exijitzen ahalko da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako baldintzetan.

Jasotzen diren berandutze interesen zenbatekoa, kasua bada, entitateari emanen zaio.

5. Ekarpen horren kudeaketa eta bilketa egintzak aurkaratzen ahalko dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko II. kapituluaren ezarritako moduan.

76. artikulua. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen aurrekontua.

1. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak bere jarduera egokitu beharko du bat etor dadin entitatea eratu zenean haren indarraldiaren lehen urterako onetsi zen aurrekontuarekin.

2. Aurrekontuko gastuen egoera-orrian zehaztu beharko dira entitateak egin asmo dituen gastu guzti-guztiak, behar bezala xehakatuak. Bereziki, entitateko kideen ekarpunen bidez ordainduko diren gastuak jaso behar dira.

3. Aurrekontuko sarreraren egoera-orrian zehaztu beharko dira entitatearen gastuei aurre egiteko aurreikusten diren sarrera guzti-guztiak, behar bezala xehakatuak. Entitatearen jarduketa planak argi azaldu beharko du nola finantzatu diren nahitaezko ekarpunen bidez estaliko ez diren gastuak, bai eta bestelako aukerak ere, aurreikusten diren laguntza publikoak edo dirulaguntzak azkenean lortzen ez badira.

4. Erreserba funts bat eratuko da, kasu hauei erantzuteko: ohiz kanpoko kontingentziak, jarduketa planean jasotako neurrien kostuen igoerak eta nahitaezko kuotetatik aurreikusten diren diru-sarreraren jaitsiera, kuotak ordaintzeko atzerapenak, zati batean bakarrik ordaintzeak edo ez ordaintzeak sortutakoak, bai eta eremuaren barneko jarduera ekonomikoen edo ondasun higiezi- nen egoera aldatzearen ondorioz ere.

Jarduera ekonomikoen edo ondasun higiezi- nen egoera aldatzearen ondorioz diru-sarrerak handitzen badira, zenbateko horiek erreserba funtsari gehituko zaizkio. Erreserba funtsaren zenbatekoak estali behar dituen kontingentziei aurre egiteko adinakoa izan beharko du.

5. Entitatearen batzar nagusiak urtero onetsi beharko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako aurrekontua, zuzendaritza taldeak proposatutakoa. Entitateak ekitaldi bakoitzerako onetsitako aurrekontura egokitu beharko du bere jarduera.

6. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen urteko kontuei kanpo auditoretza eginen zaie, inplikaturako toki entitateetako batek eskatzen duenean edo idatziz eskatzen dutenean batzar nagusiko botoen % 10 gutxienez ordezkatzan duten pertsonak.

7. Era berean, entitate horiek bete beharko dituzte fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuen gaineko araudian ezarritako dauden kontabilitatearen eta aurrekontuen arloko betebeharrak.

5. atala

Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatearen indarraldia eta azkentzea

77. artikulua. Indarraldia.

Kudeaketarako eta modernizaziorako entitateak hogeituroko indarraldia izanen du, hitzarmenean indarraldi txikiago bat ezartzen denean izan ezik.

Epe hori iraganik, indarraldia luzatzen ahalko da, baldin eta, batzar nagusiari galdetu ondoren, eraketarako eskatzen den prozedura bera erabiliz berresten bada. Kasu horretan, zuzendaritza batzordeak izanen ditu foru-lege honen 57. artikuluan sustapen batzordearentzat xedatzen diren ahalmenak.

78. artikulua. Desegitea eta likidazioa.

1. Kudeaketarako eta modernizaziorako entitatea bere borondatez deseginen da, batzar nagusiak hala erabakitzen duenean xede horretarako egindako bilkura berezian, bertaratuen edo ordezkatuaren % 50eko gehiengo kualifikatuarekin.

2. Desegitea besterik gabe gertatuko da likidazio fasea irekitzen denean, entitatea konkurtsoan deklaratu ondoren.

3. Udalak, osoko bilkuraren erabakiz eta entitateari entzun ondoren, entitatearekiko lankidetzaren hitzarmena azkenduko du arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Onetsitako jarduketaren plana gauzatu dagoenean edo hura burutzea ezinezkoa dela agerikoa denean.

b) Entitatearen indarraldia bukatzea berritzeko prozesua hasi gabe, edo hasi zenetik sei hilabete baino gehiago igarotzea burutu gabe.

c) Lankidetzaren hitzarmenean jasotako konpromisoen edo helburuen ez-betetze astun eta erreplikatuak, behar bezala justifikatuta.

d) Hitzarmenean, estatutuaren edo ordenamendu juridikoan ezarritako beste edozein arrazoi.

Lankidetzaren hitzarmena azkentzen bada, entitateak sei hilabeteko gehieneko epea izanen du udalarekin beste lankidetzaren hitzarmen bat adosteko. Epe hori igarota, udalak eta entitateak ez badute sinatu lankidetzaren hitzarmena, entitatea automatikoki deseginen da.

4. Entitatea desegin ondoren, batzar nagusiak berak hautatuko duen likidazio batzordeak entitatearen likidazioa egin beharko du, legedian ezarritako prozedurari jarraituz. Zorrak ordaindu ondoren, soberakin likidoa, nahitaezko ekarpenetatik

datozen kopuruak kenduta, entitatearen irabazi-asmorik gabeko izaeraren kontrakoak ez diren helburuetarako erabiliko da.

5. Entitatea desegiteak eta likidatzeak berekin dakar foru-lege honetako 72. artikuluan jasotako ekarpen ekonomikoa egiteko betebeharra azkentzea.

VI. KAPITULUA

Industria suspertzeko prozesuak

79. artikulua. Industria suspertzeko prozesuak.

1. Industria suspertzeko prozesuen helburua da industria ahalmenaren galera nabarmenaren ondorioak arintzeko neurriak antolatzea.

Industria ahalmenaren galera nabarmena dagoela ulertuko da Nafarroan kokatutako lantoki batean ekoizpen ahalmena % 20 baino gehiago jaisten denean eta 75 lanpostuko murrizketa dagoenean lanaldi osoko zuzeneko lanpostuen kopuruan.

2. Aurreko apartatuan jasotako baldintzetan lantoki bat edo gehiago ixtea edo jarduera murriztea aurreikusten duen enpresak egoera horren berri eman beharko dio industria arloko eskumena duen departamentuari, gutxienez aurreikusitako hori gauzatu baino bederatzi hilabete lehenago, eta langileen legezko ordezkariak jakinarazpen horren berri emanen die. Jakinarazpen hori enpresak bere erabakiarekin eta enpresa egoerarekin eta, bereziki, lan arloko legeriarekin loturik legean aginduz egin behar duen beste edozein jakinarazpenetik apartekoa da.

3. Enpresaren jakinarazpena jaso ondoren, industria arloko eskumena duen departamentuak txosten bat egin beharko du 15 eguneko epean, aurreko apartatuan deskribatutako inguruabarrak betetzen diren baloratzeko. Txostenak, halaber, lurraldean duen eraginari buruzko azterketa jaso beharko du, hala nola enpleguaren zer ehuneko suntsitu den, plantilla adinaren, generoaren eta migratzaileen arabera banakatuta, BPGaren gaineko eragina, esportazioen gaineko eragina, balio-katearen gaineko ondorioak eta despopulazteari lotutako ondorioak.

4. Industria arloko eskumena duen departamentuaren titularrak aipatu txostena Nafarroako Gobernuari igortzen ahalko dio, eta Nafarroako Gobernuak erabakiko du industria suspertzeko prozesua hastea bidezkoa den.

5. Jakinarazpena aurkezteak berekin ekarriko du enpresak bere jardueraren ohiko funtzionamendua bermatu beharko duela industria suspertzeko aukerak aztertzekeo aldiari, gutxienez bederatzi hilabeteko epean, deusetan galarazi gabe konkurtsoei buruzko legerian xedatutakoa, hala badagokio.

6. Nafarroako Gobernuak industria suspertzeko prozesua hastea erabakitzen badu, erabakia hamar eguneko epean jakinaraziko zaie enpresari, langileen legezko ordezkariari edo, halakorik ezean, foru-legen honen 3. artikuluan definituta dauden enpresaburuen elkarteei eta sindikatuei, ukitutako lantokiak dauden toki entitateei eta Estatuko Administrazio Orokorrari. Jakinarazpena jaso eta gero, entitate horiek 15 eguneko gehieneko epean jakinarazi beharko diote industria arloko eskumena duen departamentuari industria suspertzeko prozesuan parte hartu nahi duten. Enpresak nahitaez parte hartu beharko du.

Epe hori igarotakoan, Nafarroako Gobernuak prozesuak jarraitzeko ebazpena emanen du eta Industria Suspertzeko Mahaiaren osaera zehaztuko da; bertan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak gain, aurreko paragrafoan aipatutako entitateek proposatutako pertsonen parte hartuko baitute.

7. Nafarroako Gobernuak suspertze prozesuak jarraitzeko erabakia hartu ondoren, 15 eguneko epean eratu da Industria Suspertzeko Mahaiak. Osaera mistoko kide anitzeko organoa izanen da, bat etorritik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritakoarekin.

8. Industria Suspertzeko Mahaiaren funtzionamendua haren erregelamenduak arautuko du, zeina hura eratzekeo bilkuraren ondoren onetsiko baita, eta, osagarri gisa, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko zaio.

9. Industria Suspertzeko Mahaiak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Eskura dauden agiriak eta informazioa aztertzea.

b) Ekintzen egutegia zehaztea. Ekintza horien helburua izanen da erabakian atzera egin dezatela edo, hala badagokio, beste proposamen bat bilatzen hastea industria ahalmenari, ekoizpen sareari eta enpleguari eusteko eta, orobat, erabakiaren ondoriozko inpaktu kaltegarriak minimizatzekeo.

c) Jarduera suspertzeari buruzko erabaki bat hartzea.

Industria Suspertzeko Mahaiak eginen duen alternatibaren azterketan, langileek enpresa eskuratzeko aukera planteatzen ahalko da, kooperatibetan edo lan sozietateetan antolatuturik, bat etorritik Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen VIII. kapituluari eta Lan Sozietateen eta Partaidetzako Sozietateen urriaren 14ko 44/2015 Legearen 1. artikuluan ezarritako dagoenarekin.

Suspertze prozesua aztertzekeo, enpresak laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatu beharko du. Zerbitzu horrek enpresaren, egon daitezkeen aukeren eta inbertsio edo proiektu berriak bilatzeari buruzko azterketa eta diagnostikoa eginen du, bai eta finantzaketa tresna publiko zein pribatuena ere, industria ahalmenari, ekoizpen sareari eta enpleguari eusteko.

10. Oro har, Industria Suspertzeko Mahaiak artikuluan honen 2. artikuluan ezarritako 9 hilabeteko gehieneko epean hartu beharko du erabakia, enpresak jakinarazpen formala egiten duenetik zenbatuta. Epe hori luzatzen ahalko da, Mahaiak erabakiz gero, baina horrek ez du galaraziko jarduera uztea.

Aipatu epea iraganik, aztertutako aukeretako bat ere ezin bada gauzatu, bukatutzat emanen da suspertze prozesua. Aukerak gauzatzeko ezintasunaren zergatiak jasota utzi beharko dira prozesua bukatzea erabakitzen den bilkuraren aktan.

Egindako proposamenetako bat onartzen bada, Industria Suspertzeko Mahaiak hura onestea erabakiko du. Mahaiaren erabaki horretan, suspertzerako aurreikusitako jarduketak sartuko dira, zeinak erabakia hartzen den saioaren aktan jasoko baitira.

Hartutako konpromisoak gauzatzeko, suspertze prozesuak ukitzen dituen aldeek akordio bat sinatuko dute eta haren ezarpenaren gaineko hiru hilean behingo jarraipena egitekeo betebeharra izanen dute. Mahaiari aurkeztutako proposamenean hala aurreikusitako bada, aldeek sinatzen duten akordioan ezartzen ahalko da enpresak alde aurretik berme bat eratu beharra, zehazten diren kontzeptu eta kopuruekin, suspertze akordioa ezartze aldera enpresak gauzatu behar dituen neurriak estaltzekeo.

Ukitutako aldeek akordioa sinatzen dutenean, bukatutzat joko da industria suspertzeko prozesua.

11. Industria suspertzeko prozesuaren arloan eskumenak dituzten administrazioko organoak erraztaile gisa arituko dira industria suspertzeko sinatutako akordioa bete dadin. Kontsulta egiten ahalko zaie, eta, halaber, informazioa eman beharko zaie akordioaren ezarpenari eragiten dioten alderdiei buruz. Orobat, industria suspertzeko prozesua errazteko tresna espezifikoak gaitu eta konprometitzen ahalko dituzte, baita, hala badagokio, Nafarroarentzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektua deklaratzeko proposamena ere, foru-lege honen 30. artikulutik 34.era ezarritakoaren arabera.

VI. TITULUA

Trantsizio digital eta ekologikorako eta ekonomia zirkularrerako laguntza

I. KAPITULUA

Trantsizio digitalerako neurriak

80. artikulua. Industria digitalizatzeko programa.

Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planak Nafarroako enpresen trantsizio digitala bultzatuko du, industria digitalizatzeko estrategia bat txertatuz, bereziki enpresa txiki eta ertainei eta langile autonomoei begira.

Horretarako, aipatutako planaren esparruan, industria digitalizatzeko programa prestatuko da, zeinetan, besteak beste, ekintza hauek jasoko baitira:

a) Eraldaketa digitaleko planen (EDP) gaineko sentsibilizazioa eta trebakuntza, plan horiek sustatzea eta EDPetan atzemandako soluzio teknologikoak ezartzea. Gainera, eragin soziolaboralaren azterketa xehatua sartzen ahalko da.

b) Digitalizazioaren funtsezko arloetan bereizten diren zerbitzu teknologikoen hornitzaileak –personak zein entitateak– homologatzea, egiaztatutako zerbitzuek estandar optimoa bete dezaten oinarritzko trebetasunetan eta trebetasun aurreratuetan.

c) Frogantza proiektuak sustatzea eta horien emaitzen zabalkundea egitea.

d) Zaintza teknologikoko sistema bat sustatzea eta horren ondoriozko informazioa enpresen eta ikerketa zentroen eskura jartzea.

e) Sinergia bultzatzaileak bilatzea enpresa handiekin, haien hornitzaile edo bezero diren ETEetan digitalizazioa sustatzeko.

f) Industriak digitalizatzen laguntzea, industria prozesuen kontrol eta gobernu adimenduna gaitzeko.

g) Langileak birkualifikatzeko eta prestatzeko neurriak.

Industria digitalizatzeko programa prestatu aurretik, ekoizpen sarearen heldutasun digitalaren diagnostikoa egingen da, sektorez sektore.

II. KAPITULUA

Trantsizio ekologikorako neurriak

81. artikulua. Industriaren energia efizientzia-rako eta deskarbonizaziorako estrategia.

Industriaren energia efizientzia eta deskarbonizazioa bultzatzeko, Nafarroako Gobernuak hainbat neurri garatuko ditu Nafarroako Energia Planaren eta Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan, besteak beste:

a) Enpresetan energia efizientzia sustatzea eta hobetzea.

b) Industria mota orotako prozesuen eta produktuen deskarbonizazioa lortzeko behar diren teknologien garapena sustatzea, eta berrikuntza eta garapen teknologikoa babestea.

c) Gidaliburuak, prestakuntzarako laguntzak, jardunbide egokiak, gaikuntza enpresen zerrendak, sentsibilizazio ekintzak eta bestelakoak prestatzea industriaren energia efizientziaren eta deskarbonizazioaren inguruko ezagutza hobetzeko.

d) Industria prozesuen eta produktuen deskarbonizaziorako laguntza.

e) Deskarbonizaziorako liderrak diren teknologietan (hala nola CO₂-a atzitzea, garraiatzea, biltegitatzea eta erabiltzea) beharrezko diren inbertsioak egiten lagunduko duen esparrua sortzea, energia gehien kontsumitzen duten sektoreak deskarbonizatzeko.

f) Emisioak beharrezko zaila duten sektoreentzako laguntza, zero emisio garbiko industria lortzen laguntzeko.

g) Elkarlan publiko-pribaturako ereduak sustatzea, deskarbonizazioa bultzatuko duten proiektuak garatzeko.

h) Enpresek, batez ere ETEek, deskarbonizazioaren arloko adituak eta profil teknikoa duten langileak kontrata ditzaten sustatzea.

i) Energia aurrezpenaren ziurtagirien (EAZ) sistema industrian zabaltzen laguntzea, energia efizientzian egindako inbertsioei etekina ateratzeko neurria den aldetik.

j) Indartzea zero emisio garbiko teknologien fabrikazioko Nafarroako ekosistema eta, orobat, arlo horretako sinplifikatze proiektuak.

82. artikulua. Deskarbonizaziorako planak.

Nafarroako industria sektoreak deskarbonizaziorako eta energia efizientziarako planak prestatuko ditu, jarraian adierazten diren mugarrien arabera:

a) 2028ko abenduaren 31n, Nafarroan kokatuta dauden foru-lege honen 3.1 artikulua b) letrako enpresek, baldin eta 500 langile baino gehiago badituzte, deskarbonizaziorako plan bat izan beharko dute, zeinek energia efizientziarako plan bat izanen baitu abiapuntutzat.

b) 2030eko abenduaren 31n, Nafarroan kokatuta dauden foru-lege honen 3.1 artikulua b) letrako enpresek, baldin eta 500 langile baino gutxiago badituzte, deskarbonizaziorako eta energia efizientziarako plan bat izan beharko dute, zeinek energia efizientziarako plan bat izanen baitu abiapuntutzat.

83. artikulua. “Net Zero” industrialdeak.

1. Nafarroako Gobernuak, industria arloko eskumena duen departamentuaren bitartez, “Net Zero” industrialdeak sortzea sustatuko du.

Foru-lege honen indarraldiko lehen bost urteetan, Nafarroako Gobernuak lehenbiziko “Net Zero” industrialdea –publikoa edo pribatua– sortzea sustatuko du, espazio eredugarritzat baliatuko baita, energia elektrikoko sistemen ereduak, iturri berriztagarriak, energia biltegitratzea, karbonoa atzitzea eta biltegitratzea eta sareen teknologia bultzatzeko. Horri esker, industrialde horretan instalatutako enpresek zero emisio garbiko ingurunean jarduten ahalko dute, eta, beraz, han jarduteak deskarbonizazioan eta saihestu gabeko emisioak konpentsatzen lagunduko die.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak laguntza mekanismoak ezarriko ditu industrialdeak birmoldatu eta “Net Zero” bihurtzeko. Horretarako, beste neurri batzuen artean, industrialde horiek deskarbonizaziorako plan bat eta ekintza plan bat izan beharko dituzte, eta haien barnean mugarririk, inbertsioak eta bideragarritasun plan bat sartu beharko dira, bai eta birnaturalizatzeko eta biodibertsitatea sustatzeko irizpideak ere.

III. KAPITULUA

Ekonomia zirkularrerako trantsiziorako neurriak

84. artikulua. Ekonomia zirkularra.

1. Nafarroako Gobernuak, ekonomia zirkularra helburu, berariazko neurrien multzo bat ezarriko du Nafarroako enpresa sarearen trantsizioa bul-

tzatu eta laguntzeko, aurrera egin dezan baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiliko dituen ekonomia jasangarri, hipokarboniko eta digital baterantz. Neurri horiek Espezializazio Adimentsuaren Estrategian txertatuko dira, eta Nafarroako Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren bidez ezarriko.

2. Neurri horiek enpresen lehiakortasun handiagoa bermatu beharko dute. Horretarako, produktu eta zerbitzuen barneko materialen eta baliabideen balioa optimizatuko da haien diseinatzean, ekoiztean eta merkaturatzean, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta berriztagarriak ez diren baliabide teknikoak luzeago iraunarazteko ekonomian, eta, baliabide biologikoak kudeatzean, bilatuko da kapital naturala berreskuratuko dela ziurtatzea.

3. Neurri horien artean berariazko ekintzak sartuko dira; besteak beste, jarduera ekonomikoak dibertsifikatzea edo berriak sortzea sustatzeko eta negozio eredu zirkularretan oinarritutako produktu edo zerbitzuak eskaintzen dituztenen hazkundea bultzatzeko, bai eta enpresa konbentzionalei prozesu zirkularrago eta erresilienteagoetara trantsizioa egiten laguntzeko ekintzak ere.

4. Berariaz, honako hauei zuzendutako ekintzak antolatuko dira: banakako enpresak, horien elkarte eta batasunak, industrialdeak eta industria jarduerarekin loturiko lurralde kudeaketako eskumenak dituzten eragileak.

5. Nafarroako Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren barnean, ekonomia zirkularrerako trantsizioa bultzatzeko programen artean, honako hauek sartu beharko dira: sinbiosi industrialekoak, bioekonomia zirkularra bultzatzekoak eta balio-kateen zirkulartasunerako baliabide teknikoak kudeaketa estrategikoaren arlokoak.

6. Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren esparruan, Nafarroako enpresetan ekonomia zirkularrerako trantsizioa bultzatzeko, elkarlan publiko-pribatuko “Navarra Zirkular” ekimena lagundu eta koordinatuko da. Izan ere, enpresek dituzten interesak eta premiak bideratzeko tresna izanen da eta, haren barnean, aldizkako ekintza planak egiten dira, jarduerak zehazteko eta ezartzeko. Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahaiaren barnean eratu den batzorde tekniko bat arduratuko da ekimena bultzatzeaz eta jarraipena egiteaz eta, orobat, haren gobernantzan parte-hartze publiko-pribatua egituratzeaz. Ziurtatuko da “Navarra Zirkular” ekimenak nazioarteko sareetan parte hartu eta elkarlana egiten duela.

VII. TITULUA

Berrikuntza eta ekintzailatza bultzatzea

I. KAPITULUA

Enpresa berrikuntza bultzatzea

85. artikulua. Enpresen I+G+Ba Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planean sartzea.

Enpresen I+G+B arloko eskumena duen departamentuak enpresen I+G+Ba sustatzeko programa prestatuko du, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan eta Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin koordinatuta, honako xede hauekin:

a) Lurraldeko erresilientzia, hazkunde ekonomikoa eta garapen jasagarria sustatzea.

b) Trantsizio bikoitzaren eta ekonomia zirkularraren erronkei erantzuten dieten proiektuak lehenestea.

c) Berrikuntzarako, ekintzailatzarako eta lankidetzarako guneak sustatzea.

d) Enpresa sarearen eta SINAko eragileen arteko elkarlana bultzatzea, programaren helburuak lortzeko funtsezko faktorea baita.

e) Hezkuntza sistemarekin bateratzea eta koordinatzea, bereziki STEM arloetan (zientzia, teknologia, ingeniariatza eta matematika) eta lanbide heziketan, SINArekin elkarlanean.

86. artikulua. Berrikuntzak testatzeko eskualdeak.

1. Nafarroako Gobernuak berrikuntzak testatzeko eskualde izeneko eremu geografikoak eratztea bultzatuko du. Espazio horietan, enpresa berritzaileen ezarpena erraztuko da eta kontzeptu probak, proba pilotuak eta ebaluazioak egiten ahalko dira ingurune kontrolatu eta lagungarri batean, probetarako ingurune edo *sandbox* arautzaileak barne.

2. Era berean, Nafarroako Gobernuak beste eskualde eta herrialde batzuekiko elkarlana sustatuko du, jardunbide hobeak partekatzeko, ezagutzen trukea sustatzeko eta berrikuntzak testatzeko Nafarroako eskualdeetan garatutako berrikuntzak nazioartean hedatzen laguntzeko.

87. artikulua. *Sandbox* arautzailea.

1. Nafarroako Gobernuak *sandbox* arautzaileen proiektuak sor daitezzen bultzatuko du, arauak emateko Nafarroak dituen eskumenen barnean. Araudia testatzeko tresnak dira, betiere ingurune kontrolatu batean eta agintaritza arauemaile eskudunak gainbegiratuta. Enpresei, bereziki enpresa emergente eta berritzaileei, eta teknologia berrien garatzaileei

aukera ematen diete produktu, zerbitzu, negozio eredu eta entregatze mekanismo berritzaileak baldintza errealetan saiatzeko, araudiaren baldintza jakin batzuetan aldi baterako salbuespenak izanik.

2. *Sandbox* arautzaileen proiektuek zehaztuta izanen dituzte iraupena eta probak egiteko esparrua, eta haien gaineko araudian ezartzen dena bete beharko dute.

II. KAPITULUA

Ekintzailatza ekosistema bultzatzea

88. artikulua. Eragileak, tresnak eta jarduketa eremuak.

1. Nafarroako Gobernuak, Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren esparruan, Nafarroako Ekintzailatza Plana eguneratu eta jarraipena emanen dio, funtsezko tresna baita ekintzailatzaren arloko politikak planifikatu eta koordinatzeko.

2. Nafarroako ekintzailatzaren eremuan, koordinazio egonkorra antolatuko da ekintzailatza ekosistemaren helburuak eta hura bultzatzeko programak zehazteko eskumena duten eragileen artean, bereziki Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin, ekintzailatza orokorraren arloan, eta Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa sozietate publikoarekin, ekintzailatza berritzailearen eta inpaktu handiko ekintzailatzaren arloan.

3. Nafarroako Gobernuak elkarlan publiko-pribatua bultzatuko du Nafarroako ekintzailatza ekosistemaren arloan, eta helburu horretarako behar diren tresnak ezarriko ditu, besteak beste:

a) Ekintzailatzari Laguntzeko Nafarroako Sarea sendotzea, ekintzailatzari laguntzen dioten entitate guztien elkarlanerako ingurunea baita, helburu duena, haren barneko eragile guztien jarduketa koordinatuen bitartez, ekintzaileei argibide, aholku eta orientazio egokiak, eraginkorrak eta homogeneoak ematea eta, orobat, enpresa berrien sorkuntza eta enplegu sorkuntza bultzatzea.

Aipatu sarearen ondorioetarako, ekintzailatzari laguntzeko entitatetzat hartuko da egoitza Nafarroan duen erakunde oro, zeinetan berariazko zerbitzuak eskaintzen baitzaizkie ekintzaileei eta enpresa emergenteei haien sorrera, finkatze eta garapen prozesuetarako.

Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa sozietate publikoa arduratuko da sarearen koordinazioaz.

b) Elkarlanerako inguruneak sortzea eta finkatzea, gune digitalen edo entitate eta eragile laguntzaileen bidez, helburu hauetarako: argibideak

ematea, ekintzailtzari laguntzea, Ekintzailtzari Laguntzeko Nafarroako Sarea ezagutzera ematea eta, halaber, ekintzaileen komunitateari zuzendutako prestakuntzako eta laguntza integraleko zerbitzuak bermatzea haien proiektuek arrakasta izan dezaten behar diren tresna eta ezagutza guztiekin lagunduta.

4. Era berean, Nafarroako Gobernuak askotariko neurriak bultzatuko ditu sektore eta kolektibo estrategikoetan enpresa ekimenerako baldintza lagungarriak errazteko eta, horrekin batera, aukera berdintasuna eta hazkunde ekitatiboa bultzatzeko ekintzailtzaren arlo guztietan. Eta bereziki bultzatuko ditu gazteen, emakumeen eta landa eremuko ekintzailtza sustatzeko neurriak, ekintzailtza jasangarria, zirkularra eta soziala sustatzekoak, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin lerrotatutako ekintzailtza sustatzekoak eta beste batzuk.

89. artikulua. Teknologiaren transferentzian oinarritutako ekintzailtza sustatzea.

Teknologiaren transferentzian oinarritutako ekintzailtza sustatzeko helburuarekin, Nafarroako Gobernuak koordinaziorako eta baliabideak esleitzeko mekanismoak ezarriko ditu, foru-lege honen eta Zientziari eta Teknologiari buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legearen esparruan, enpresa emergenteen sorrera indartuko duten sinergiak sustatzeko, SINAlko eragileen ekoizpen zientifiko-teknologikotik abiatuta.

Era hauetako mekanismoak izanen dira, besteak beste:

a) SINAlren esparruan I+Gko jarduerak egiten dituzten erakunde publiko eta pribatuekiko elkarlanerako ereduak, enpresa emergente berriak sortuz edo bestelako ekintzen bidez teknologiaren transferentzia errazteko.

b) Programa espezifikoak enpresa eratorriak sortzeko, hots, zentro teknologikoetan, ikerketa zentroetan eta unibertsitateetan egindako ikerketa proiektuetatik datozen enpresak.

c) Pizgarriak eta dirulaguntzak sustatzea teknologiaren transferentzian oinarritutako proiektuak garatzen dituen ekintzailtzarako, ikerketa zientifiko eta teknologikoaren emaitzen aplikazio praktikoak bultzatze aldera.

d) Enpresa emergenteak zientzia eta teknologia ekoizteko Nafarroako zentroetara hurbiltzeko neurriak, ezagutza aurreratuan oinarritutako ekintzaile-

tza ekosistema garatzen lagunduko duten elkarlanak sor daitezen.

e) Prestakuntza eta aholkularitza espezializatua eskaintzeko neurriak, hala nola mentore sareak edo beste tresna batzuk, ekintzailtza teknologikoa indartzeko eta I+Gko emaitzak merkaturatzea errazteko.

f) Ikasleen enpresak sortzen laguntzeko neurriak.

90. artikulua. Ikasleen enpresak.

Nafarroako Gobernuak, arauak emateko Nafarroak dituen eskumenen barnean, ikasleen enpresak sortzea bultzatuko du, aukera emanen baitute ekintzailtzako konpetentziak ikasteko, ideiak, negozio ereduak eta jarduerak testatzeko eta ekintzailtza proiektu berriak abian jartzeko, hiri guztia prestakuntza edo hezkuntza programa, ibilbide eta antzekoetan era horretako entitateak sor daitezkeen bultzatzeko.

91. artikulua. Ekintzailtza merkatura hurbiltzeko azpiegitura eta baliabide zientifiko-teknikoak.

1. Ekintzailtza jarduerak garatzeko ingurune egoki eta irisgarria sortzeko, Nafarroako Gobernuak elkarlanerako espazioak sortzea eta eskuragarri dauden baliabideak eraginkortasunez erabiltzea sustatuko du, batez ere enpresa dentsitate txikiko eremuetan:

a) Ekipamendu eta azpiegitura zientifiko-teknologikoari dagokionez, unibertsitate, ikerketa zentro eta zentro teknologikoekiko elkarlana sustatuko da goi teknologiko laborategi eta ekipoak eskura izateko, azpiegitura teknologikoen eta komunikazio azpiegituren eskuragarritasuna erraztuko da, batez ere landa eremuetan, eta lehendik dauden zein etorkizunean egon daitezkeen beste laborategi eta prototipogintza-zentro batzuetarako sarbidea emanen da. Jarduketa horiek guztiak SINAlko eragileak kontuan izanik eginen dira, eta haiekin koordinaturik.

b) Ekintzailtzarako eta enpresa emergenteak garatzeko lan espazioei dagokienez, enpresa haztegien zuzkiduraz gain, erabiltzen ez diren espazioak ekintzailtzarako lan eremu bihurtzea sustatuko da, lehendik dauden azpiegituren erabilera optimizatzeko eta hiri eta landa eremuen berronertzeari laguntzeko, berrikuntzarako eta ekintzailtzarako ingurune egokiak sortuz, eta ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik jasangarriak diren proiektuak bultzatuz.

2. Industria lurzoruaren eta azpiegituren estratēgian berriazko atal bat sartuko da erantzuna emateko, ekimen pribatuen osagarri gisa, enpresa emergenteen hazkunderako premiei, bereziki, ekar dezaketenei enpresa polo aurreratu berriak sortzea eta hiri eta landa eremuetan *coworkingak* eta lan espazioak sortzea.

92. artikulua. Posizionamendurako eta nazioarteko merkatuetan sartzeko laguntza eta elkarlana.

1. Nafarroako Nazioarteko Planak nazioarteko merkatuetan sartzeko lagunduko die Nafarroako enpresa emergenteei, horrela, hazteko eta epe luze-
ra jasangarriak izateko haien ahalmena ere handituko baita, besteak beste, enpresak nazioartekotzeko prestakuntza eta aholkularitza programak, hasierako faseetan, eta merkataritza misioetan parte hartzeko laguntzak, nazioarteko foro, azoka eta topaketa garrantzitsuetara joateko.

2. Nafarroako Gobernuak Nafarroako ekintzailetza ekosistemak testuinguru globalean duen posizioa indartuko du, besteak beste, honako ekintza hauen bidez:

a) Nazioarteko lankidetzaren arloko ezagutza eta baliabideen trukea bultzatzea.

b) Nazioarteko eragileekiko aliantza estrategikoak sustatzea.

c) Beste herrialde batzuetako ekintzailetza ekosistemekin elkarlanean aritzeko programei laguntzea.

d) Trukeetan, enpresen egonaldi programetan eta baterako berrikuntza proiektuetan parte hartzea.

93. artikulua. Nafarroako ekintzailetzan parte hartzea.

Nafarroako Industria Ekosistemaren Mahaiak batzorde tekniko bat sortuko du ekintzailetzarekin loturiko gaietan parte-hartzea eta kontsultak bideratzeko, helburu hauekin:

a) Gomendioak egitea Nafarroako Ekintzailetza Plana egiteko edo berrikusteko prozesuan.

b) Proposamenak egitea ekintzailetza kontuan har dadin Nafarroako Gobernuaren plan eta programetan.

c) Gomendioak egitea ekintzailetza ekosistemako eragileei, haien helburuak hobeki lortzeko.

d) Nafarroako ekintzailetzarako jarduketa eta dinamizazio proposamenak idaztea.

e) Proposamenak egitea hobeki gauza daitezkeen foru-lege honetan jasotzen diren ekintzailetzaren aldeko neurriak eta, halaber, xede bererako gomendioak egitea administrazioari eta ekintzailetza ekosistemako eragileei.

94. artikulua. Elkarlan publiko-pribatua eta industria arloko ekintzailetzarako lankide sareak bultzatzea.

1. Nafarroako Gobernuak sektore publikoaren eta pribatuaren baterako ekimenak sustatuko ditu, besteak beste, xede hauekin:

a) Bi sektoreak inplikatzeko dituzten ekintzailetza proiektuen baterako finantzaketa lortzea erraztea, funts mistoen edo baterako finantzaketarako beste mekanismo batzuen bidez.

b) Baliabideen, instalazioen eta ezagutzen erabilera partekatua sustatzea, ekimen ekintzaileen inpaktua ahalik eta handiena izan dadin.

c) Berrikuntza irekiko ereduak garatzea enpresa sarerako, ekintzailetza ekosistemarekin elkarlanean, enpresa finkatuak eta enpresa emergenteak batuz.

d) Ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia bultzatzea, ekintzailetzaren eta enpresa sektoreen arteko lankidetzaren sustatuz.

2. Era berean, Nafarroako Gobernuak ekintzailetza ekosistemaren eta enpresa finkatuen arteko elkarlanerako sareak sortzen laguntzeko ekintzak sustatuko ditu, hala nola:

a) Ekintzaileak enpresa finkatuetako mentore eta aholkulariekin lotzeko programak ezartzea, esperientziak eta ezagutzak trukatzeko errazte aldera.

b) Enpresen erronka teknologikoen konponbidea sustatzea.

c) Enpresa finkatuek enpresa emergenteentzako laguntza eta mentoretza sareetan parte hartzearen sustatzea, orientazio estrategiko eta tekniko eskain dezaten.

d) Ekintzaileen eta enpresa finkatuen arteko interakzioa eta elkarlana errazteko duten plataforma eta ekitaldiak sortzea, hala nola azokak, enpresa topaketak edo bestelako ekintza batzuk.

e) Enpresa emergenteek enpresa elkarteetan eta klusterretan parte har dezaten sustatzea, integrazioa eta *networking*a sustatuta.

3. Nafarroako Gobernuak erraztuko du sektore pribatuak prestakuntza eta aholkularitza programetan parte hartzea, adituen parte-hartzearen bidez, enpresa kudeaketaren duten arloan duten ezagutza praktikoa eta esperientzia erakutsi baitezakete. Halaber, erraztuko du enpresa pribatuek ekintzaitzarako prestakuntza programak diseinatzeko eta gauzatzen laguntzea, programak merkatuaren beharretara egokitu daitezeko.

4. Nafarroako Gobernuak enpresa emergenteak erakartzeko neurriak bultzatuko ditu.

5. Era berean, Nafarroako Gobernuak enpresa emergenteen eta jarduera berritzaileen eskala handitze eta industrializazio prozesuak sustatuko ditu.

95. artikulua. Hedatzen ari diren enpresa emergenteak.

1. Hedatzen ari den enpresa emergentetzat joko da, enpresa emergente izan ondoren eta etapa hori gaindituta, Nafarroan haren jardura ekonomikoa hedatzeko edo finkatzeko prozesua garatzen jarraitzen duen pertsona juridiko bat, baldin eta haren potentziala frogatzen duten adierazleak baditu, enplegu hazkundeari, fakturazioari, merkatuei edo berrikuntzari dagokienez.

2. Hedatzen ari den enpresa emergentearen kalifikazioa industria arloko eskumena duen departamentuak emanen du, interesdunak eskatu ondoren. Kalifikazio hori izateko, enpresak baldintza hauetatik hiru, gutxienez, bete beharko ditu:

a) Fakturazioaren urtetik urterako hazkundera % 20 edo handiagoa izatea aurreko bi ekitaldietako batean.

b) Lanaldi osoko lanpostu finkoen kopurua % 15 edo gehiago handitu izana aurreko bi ekitaldietan.

c) Nazioarteko merkatu batean, gutxienez, benetan sartu izana.

d) Fakturazioaren % 5, gutxienez, I+G+B proiektuetan edo digitalizazioan erabili izana azken ekitaldian.

VIII. TITULUA

Nafarroako industriaren finantzaketa

I. KAPITULUA

Nafarroako Aurrekontu Orokorren konturako finantzaketa

96. artikulua. Industrializazio funtsaren sorrera.

1. Industriaren eta Enpresa Sustapenaren Planaren neurriak finantzatzeko, industrializazio funts bat sortzen ahalko da; erregelamenduz ezarriko da nola.

2. Baliabide hauez hornitzen ahalko da funtsa:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorretan xede horretarako esleitzen dena.

b) Beste erakunde batzuek emandako laguntzak eta dirulaguntzak.

c) Partikularrek, enpresek edo erakundeek funtsari berariaz egiten dizkioten dohaintzak, jaraunspenak, ekarpenak eta laguntzak.

II. KAPITULUA

Foru-sektore Publiko Instituzionaleko finantza jardueretarako irizpideak

97. artikulua. Foru-sektore Publiko Instituzionaleko entitateen parte-hartzea enpresen finantzaketan.

Foru-sektore Publiko Instituzionaleko entitateek lagunduko dute Nafarroako industria ekosistema eta foru-lege honetan jasota dauden jarduketa eta programak finantzatzeko, bide hauen bitartez, besteak beste:

a) Finantza laguntzak, era hauetan: mailegu arruntak edo partaidetzakoak, kredituak edo egoiak diren beste finantzaketa tresna batzuk.

b) Finantza laguntzak, kapitaleko inbertsio gisa.

c) Arrisku kapitaleko entitateetako partaidetza.

d) Abalak.

98. artikulua. Foru-sektore Publiko Instituzionaleko eskaintako finantzaketa eskuratzeko lehenetsun irizpideak.

1. Foru-sektore Publiko Instituzionaleko entitateek, finantza laguntza emateko, honako proiektu hauek lehenetsiko dituzte: ingurumen, gizarte eta gobernantza irizpideak (IGG irizpideak) betetzen

dituztenak haien balio-kateetan kudeaketa jasangarri eta arduratsua sustatzeko eta, halaber, foru intereseko inbertsio-proiektuak eta Nafarroaren-tzat interes estrategikoa duen enpresa-proiektuak.

2. Jarduera bakoitzari aplikatu beharreko IGG irizpideak hartuko dira erreferentziazat, jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboari buruzko araudiaren, haren estandarren eta enpresa jardueraren IGG informazioari buruzko irizpide tekniko objektiboak eman ditzakeen beste edozein araudiaren arabera.

3. Proiektu horiek babesteko eta bidean laguntzeko interesgarriak direla uste den zerbitzuak sortuko dira, finantzaketa lortzeko aukera gehiago izan dezaten, eta, orobat, foru-legen honen esparruan sor daitezkeen berariazko programetan haien parte-hartzea errazteko. Horretarako, proiektuek lehenbizi frogatu beharko dute betetzen dituztela beren jarduerari aplikatu beharreko IGG irizpideak, nahitaezkoak edo borondatezkoak, araudiaren eta erregelamenduetan zehaztutako estandarren arabera.

4. Era berean, beren kudeaketan eta jarduera konbentzionaletan IGG irizpideak betetzen dituztela eta hobetzeko konpromisoa dutela froga dezaketenen enpresek hobariak izaten ahalko dituzte Foru-sektore Publiko Institutuzionalak eskaintzen dituen finantzaketa tresnetan.

III. KAPITULUA

Nafarroako industriara bideratutako finantzaketa sustatzeko eta zabaltzeko neurriak

99. artikulua. Finantzaketa publikoa eskuratzeko zerbitzu zentralizatua.

1. Finantzaketa publikoa eskuratzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuen zorro zentralizatu bat zehazteko, sortzeko eta mantentzeko lanak gidatuko ditu industria arloko eskumena duen departamentuak.

2. Zerbitzuen zorroak finantzaketa publikoko edo publiko-pribatuko eskaintzari buruzko informazioa eta aholkularitza bateratuko ditu, Nafarroako enpresa garapenari begira une bakoitzean interesgarriak izan daitezkeen finantzabide nagusiak sartuta.

3. Sustatuko da akordioak edo elkarlanerako beste bide batzuk ezar daitezkeen enpresa-proiektuak finantzatzen dituzten edo horietan inbertitzen duten beste erakunde batzuekin –izan estatukoak, Europakoak zein nazioartekoak–, Nafarroako enpresei

laguntzeko erakunde horiek ematen dituzten finantzaketa lerroak eskuratzen.

100. artikulua. Inbertsio eta finantza ekosistema bateratzea eta ikusaraztea.

1. Nafarroako Gobernuak elkarlan publiko-pribatua sustatuko du Nafarroako enpresetan inbertitzeko, Foru Komunitateko inbertsio eta finantza ekosistemako eragileekin batera.

2. Elkarlan horrek Nafarroaren bultzada ekonomikoa bilatuko du, bai eta enpresak eta enpresa-proiektuetarako finantzaketa ere, eta horretarako jarduketara hauek sustatuko ditu:

a) Honako hauek finantzaketa eskuratu ahal izatea: *startupek*, ekintzailletza proiektu emergenteek, langile autonomoek, ETEek, bitarteko tamainako enpresek eta enpresa handiek.

b) Inbertsio eta finantza kultura sustatzea.

c) Nafarroan inbertitzeko aukerak identifikatzea.

d) Interesgarri izan daitezkeen beste edozein jarduketa.

3. Bereziki, interesgarritzat jotzen dira Nafarroan jarduera duten entitate hauek:

a) Bankuen arloko finantza entitateak.

b) Elkarren bermerako sozietateak.

c) Inbertitzaile pribatuak, hala nola arrisku kapitalaren kudeatzaileak, *family offices* eta *business angels* direlakoak, inbertsio kolektiboko entitateak, banku fundazioak, finantza aholkularitzako entitateak, aseguru etxeak, etab.

d) Finantza entitate publikoak.

e) Enpresa eta finantza arloko aholkularitza eta kontseilatze firmak.

f) Ezagutza entitateak, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta ikerketa zentroak.

IV. KAPITULUA

Aurrezki Jasangarrirako Nafarroako Plana

101. artikulua. Aurrezki Jasangarrirako Nafarroako Plana.

1. Trantsizio ekologikorako eta ekonomia zirkularerako industria inbertsioari lotutako aurrezkiak sustatzeko figurak bultzatze aldera, Nafarroako Gobernuak bultzatuko du aurrezki plan berezi bat sortzea Nafarroan jarduten duten finantza entitateetan, herritarrei zuzendua, foru-lege honetan jasotzen diren industria jasangarritasunarekin lotutako alderdiak bultzatzen parte har dezaten.

2. Plan horrek errentagarritasun erakargarria-ekin aurrezteko aukera eman beharko die Nafarroan bizi diren pertsona fisikoei, 30 urte baino gutxiagokoak lehenetsita.

3. Aurrezki plana zehaztu beharko da halako moduz, non zenbatekoak muga bat izanen baitu, eta ezartzen ahalko da inbertsioa egiten denetik 10 urte igaro arte hura berreskuratzeko ezintasuna.

4. Erregelamenduz arautuko da, foru araudiari eta era honetako tresnei aplikatu beharreko beste arau guztiei jarraituz, nola sortuko den plana, bai eta haren funtzionamendu arauak ere, bermeen araudia eta inbertitutako funtsak azkenean zertan erabiliko diren barne.

Lehen xedapen gehigarria. Gardentasun betebeharren justifikazioa sinplifikatzea.

Foru-lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko epean, irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretua aldatuko da, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunek dituzten gardentasun betebeharrak arautzen dituen, enpresek gardentasun betebeharrak betetzen dituztela justifikatzeko modua sinplifikatzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru intereseko inbertsioak.

1. Foru intereseko inbertsioak (Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 4. artikuluan araututa daudenak) foru araudian aipatzen diren orotan eta, bereziki, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aipatzen direnean, ulertuko da aipamen horiek foru-lege honen 27. artikuluko foru intereseko inbertsio-proiektuei buruzkoak direla.

2. Kasu horietan, foru intereseko inbertsio-proiektuen deklarazioak foru-lege honen 29. artikuluan, 1. apartatutik 7.era, ezarritako ondorioak izanen ditu.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ezartzea eta garatzea Nafarroako Enpresen Behatokia eta administrazioa sinplifikatzeko eta errazteko neurriak.

Industria arloko eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuak, foru-lege honek indarra hartzen duenetik hiru hilabeteko epean, egitura organikoaren gaineko foru dekretua aldatzeko behar diren prozedurak

abiatuko ditu, 11/2019 Foru Legean ezarritakoarekin bat (11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa), Nafarroako Enpresen Behatokia eta administrazioa sinplifikatzeko eta errazteko neurriak ezarri eta garatzea ahalbidetuko duten administrazio unitateak sortzeko, baita behar diren giza baliabideez hornitzeko ere, baldin eta horretarako aukera ematen badute aurrekontuko baliabideek.

Xedapen iragankor bakarra. Foru intereseko inbertsio-proiektuen deklarazioak.

1. 15/2009 Foru Legearen babesean foru intereseko inbertsio deklaratu ziren proiektuek aipatu arau horren mende jarraituko dute, harik eta bukatzen diren arte (15/2009 Foru Legea, abenduaren 9koa, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa).

2. Foru intereseko inbertsio deklaratzeko eskaerak, foru-lege honek indarra hartu baino lehen aurkeztu zirenak, arautuko dira Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legean xedatutakoaren arabera.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Indarrik gabe uzten dira foru-lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo bertan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko arau guztiak.

2. Indarrik gabe uzten da, berariaz, 15/2009 Foru Legea, abenduaren 9koa, enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzkoa.

Azken xedapenetako lehena. Aldaketa Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean.

Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 88. artikuluko 2. apartatuari beste letra bat erantsen zaio. Hona testua:

“h) Deskarbonizazio planak egiteko betebeharra behar den epeetan ez betetzea, hots, xx (e)ko xx/2025 Foru Legeak, Industriari eta Enpresa Sustapenari buruzkoak, 82. artikuluan ezarritako epeetan”.

Azken xedapenetako bigarrena. Aldaketa apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuaren 12. artikuluan, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.

12. artikulua a) letra aldatzen da apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretuan, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko. Hona testu berria:

“a) 2 MW-eko edo gutxiagoko potentzia duten ekoizpen eta biltegiatze instalazioak, eta horien transformazioa eta ebakuazio lineak”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Aldaketa Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean, 37. artikulua 3. apartatuko e) letra aldatzen da. Hona testu berria:

“e) Industrialdeetako higiezinak direnean, edo Nafarroako Gobernuak sustatutako ezarpen berezietarako higiezinak”.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-26/PRO-00012. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea xede duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde par-lamentarioek aurkeztu dute Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarre-ko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritako-ekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege propo-samena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofi-zialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakur-keta bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artiku-luan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenke-tak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako etxebizitza babestuen araubide juridikoaren erregulazioak bilakaera mailakatua izan du, babes publikoaren egonkortasuna eta iraunkortasuna sendotzera bideratua, etxebizitza duin eta ordainerrazaren lorbidea bermatze eta espekulazio-dinamiketarik at egonen den parke bat gordetze aldera.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 43. artikulua ezartzen du etxebizitza babestuen babes-araubideak izaera mugagabea duela gaur egun, eta eragotzi egiten du haiek deskalifikatzea. Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztaila-ren 1eko 20/2022 Foru Legeak ezarri zuen xedapen hori.

Erreforma horren aurretik, aldi baterako zenbait babes-araubide zituen ezarriak Nafarroako arau-diak. Esate baterako, Nafarroako etxebizitza babes publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeak, oro har, hogeita hamar urteko iraupe-na ezartzen zuen, behin betiko kalifikaziotik aurrera, eta, gainera, epe espezifikoa ezartzen zituen errentamendu babestuko modalitate jakinetarako.

Gerora, 10/2010 Foru Legeak eutsi egin zion hogeita hamar urteko iraupen horri jabetza-araubidean eta eros-aukeradun errentamenduko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuentzat; aldiz, hamabost urteko iraupena ezartzen zuen errentamendu-araubidean kalifikatutako etxebizi-tzen babes-araubiderako.

Geroago egindako erreformen bidez, handituz joan zen pixkanaka babes publikoaren iraupena. Bereziki, izaera mugagabea ezarri zen erabilera-lagapeneko etxebizitza babeserako, azalera-esku-bideekin lotutako egoeretarako izan ezik, eta hiru-rogeita bost urteko iraupena ezarri zen 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera kalifikatutako sustapen publiko jakinentzat.

Azkenik, 20/2022 Foru Legeak orokortu egin zuen etxebizitza babestuen babes-araubidearen izaera mugagabea.

Arau-bilakaera horren ondorioz, babes-epe desberdinak dituzten etxebizitza babestuen sustapenak daude gaur egun Nafarroan, behin betiko kalifikazio jaso zuten unearen eta une hartan indarrean zegoen araubide juridikoaren arabera baitira epe horiek.

Foru-lege honen xedea da Nafarroako etxebizitza babestuen parkearen egonkortasuna eta iraunkortasuna sendotzea.

Xede horrekin, hasteko, kendu egiten da 10/2010 Foru Legearen 7. artikuluan 10. apartatua; hartara, aurrerantzean ezin izanen dira salmentara bideratu errentamendu-araubidean edo errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuak behin betiko kalifikazioa jaso zutenetik hogeita bat urte igarotzen direnean.

Arauketa berri honekin, etxebizitza horiek errentamendu-araubidean jarraitu beharko dute, eta, horrela, alokairuko etxebizitza babestuen parke egonkor bat finkatuko da, eta haren eginkizun soziala indartuko.

Aldaketa hori aplikatzekoa izanen zaie errentamendu-araubidean nahiz errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuen sustapen guztiei, haien behin betiko kalifikazioa edonoz egin zelarik ere.

Bigarrenik, indargabetu egiten da Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen lehen xedapen iragankorra. Xedapen horrek espediente jakinetara mugatzen zuen babes-araubide mugagabearen aplikazioa: behin-behineko kalifikazioaren eskabidea foru-lege horrek indarra hartu baino geroagokoa zuten espedienteetara soilik, zehazki.

Xedapen hori indargabetzearen xedea da ahalbidetzea 10/2010 Foru Legearen 43. artikuluan aurreikusitako iraupen mugagabea aplikatzea errentamendu-araubidean edo errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuei, foru-lege honek indarra hartzean indarreko babes-epea dutenei, haien behin betiko kalifi-

kazioa edonozkoa izanik ere, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako moduan.

Horrela, sustatu nahi da etxebizitza eroserraza izaten jarraitzea Nafarroako etxebizitza-merkatuan, parke babestu erabilgarria murriztea dakarten deskalifikazio-prozesuak ekiditea eta, horrela, etxebizitza babestuaren eginkizun soziala sendotzea.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

Kendu egiten da Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7. artikuluan 10. apartatua.

Xedapen iragankor bakarra. Aplikatzekoa den araubidea.

1. Foru-lege honen artikulua bakarrean aurreikusi bezala Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7. artikuluan 10. apartatua kentzeak eraginen dituen ondorioak aplikatzekoak izanen zaizkie errentamendu-araubidean nahiz errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuen sustapen guztiei, haien behin betiko kalifikazioa edonoz egin zelarik ere.

2. Errentamendu-araubideko eta errentamendu eroserrazeko araubideko etxebizitza babestuak, foru-lege honek indarra hartzean indarreko babes-araubidea dutenak, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 43. artikuluan aurreikusitako iraupen mugagabearen mende geldituko dira, haien behin betiko kalifikazioa edonoz egin zelarik ere.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetu egiten dira foru-lege honetan xedatutakoarekin kontraesanetan dauden maila bereko nahiz txikiagoko xedapen guztiak eta, zehazki, Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen lehen xedapen iragankorra.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00203. Galdera, Abaigar eta Goñiko kanpaldiei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Abaigar eta Goñiko kanpaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

VOXeko kide den Talde Mistoko foru-parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuo lehendakari María Chiviteri, ekainaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan astean, Arabako Aldundiak Nafarroako Gazteriaren Departamentuari ofizialki jakinarazi zion erabaki duela Bernedoko udalekua ixtea, antolatzaileria hiru urtez desgaitzea, zehapen ekonomiko bat ezartzea eta Gazteriaren Foru Institutua Gasteizko 3. zenbakiko epaitegian pertsonatzea. Hori ikusita, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du Sarre Euskal Udalekuak elkarteak uda honetarako antolatu dituen Abaigarko eta Goñiko udalekuei dagokienez?

Iruñean, 2026ko ekainaren 10ean

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/POR-00204. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan medikuntzako espezialistak galtzeari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan medikuntzako espezialistak galtzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru-parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Osa-

suneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024ko irailean, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek iragarri zuen iraupen luzeko kontratua eginen ziela formakuntza Nafarroan bukatzen zuten barneko mediku egoiliarrei. Medikuntzako espezialisten gabezia arintze aldera departamentuak hartutako neurriei buruzko galdera bati erantzutean egin zuen iragarpen hori.

2025eko maiatzean, Fernando Domínguezek azaldu zuen Foru Komunitateak zenbait neurri jarri zituela abian, medikuntzako espezialista izateko formakuntza (BAME) amaitzen zuten ahalik eta profesional gehien erakartzeko, espezialisten defi-

zita arintzeko eta asistentzia-estaldura ziurtatzeko. Eta nabarmendu zuen Nafarroa hiru urteko iraupeneko kontratuak eskaintzen ari zela.

Hala ere, EH Bildun jakin dugu ez zaiela kontraturik egin Tuterako Osasun Barrutian espezialisten formakuntza amaitu duten medikuntzako hainbat profesionali.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dut:

Zergatik galdu dira medikuntzako espezialistak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta, zehazki, Tuterako Osasun Barrutian?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Txomin González Martínez

11-26/POR-00205. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailearen dimisioari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailearen dimisioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oinarrizko Osasun Laguntza da osasun-sistemaren sartzeko atea eta herritarrentzako arreta hurbil, irisgarri eta kalitatezkoa emateko oinarria. Baina Gobernuak arlo horretan egindako kudeaketaren ezaugarria izan da konponbiderik eta aurrerabide eraginkorrik eza gure foru-erkidegoan arreta-maila horrek bizi dituen arazo larriei aurre egiteko.

Gauzak horrela, honako hau galdetzen dut: zer balorazio egiten du Osasuneko kontseilariak Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailearen irteerari buruz, eta zer plan du, legegintzaldia amaitzeko geratzen den urtean, arreta-maila horri eragiten dioten arazoei erantzuteko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/POR-00206. Galdera, hutsik egon litezkeen etxebizitzak automatikoki detektatzeko tresna digital berriaren emaitzei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, hutsik egon litezkeen etxebizitzak automatikoki detektatzeko tresna digital berriaren emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan aurkeztu berri duen Nafarroako Etxebizitza Hutsen 2025eko Erregistroari buruzko txostenak dio tresna digital berri bat ezarri dela, hutsik egon litezkeen etxebizitzak automatikoki detektatzeko (horren emaitzak Nafarroako Etxebizitzaren Behatokian hasi dira jasotzen).

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten dut, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zer balorazio egiten duzu hutsik egon litezkeen etxebizitzak detektatzeko tresna digital berria ematen ari den emaitzei buruz, zeinak Nafarroako Etxebizitzaren Behatokian jasotzen baitira?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/POR-00208. Galdera, Nafarroari lotutako enpresa, proiektu edo esleipenak direla-eta María Chivitek Leire Díezekin izandako bilerei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroari lotutako enpresa, proiektu edo esleipenak direla-eta María Chivitek Leire Díezekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak heldu den ekainaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain arte dakiguna ikusita, María Chivitek berresten al du ez duela inoiz izan bilerarik, elkarriketarik edo inolako harreman zuzen nahiz zeharkakorik Leire Díezekin, Nafarroari lotutako enpresez, proiektuez edo esleipenez jarduteko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Javier García Jiménez

11-26/POR-00209. Galdera, Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunaren inplementazioaren kudeaketari buruzkoa

JAVIER OLLO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Ollo Martínez jaunak egindako galdera, Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunaren inplementazioaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Ollo Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2026ko ekainaren 12an Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna indarrean sartuko baita, ezinbestekoa da gobernantza-esparru partekatu bat sortzea Espainiako Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen artean.

Hori dela-eta, Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuari zer informazio helarazi dio Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Itunaren inplementazioaren kudeaketari buruz?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

11-26/POR-00210. Galdera, jakiteko ea noiz egingen den ikasketa-beken eta -laguntzen deialdia, eskumenen kudeaketa jada transferituta baitago

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea noiz egingen den ikasketa-beken eta -laguntzen deialdia, eskumenen kudeaketa jada transferituta baitago.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du egingen dela ikasketa-beken eta -laguntzen deialdia, eskumenen kudeaketa jada transferituta baitago?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

11-26/POR-00211. Galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konektibitatea hobetzeko bigarren lizitazioari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konektibitatea hobetzeko bigarren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Iruñeko aireportuko aire bidezko konektibitatea hobetzeko bigarren lizitazioa, zeina maiatzaren 6an iragarri baitzuen Gobernuak?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-26/POR-00212. Galdera, jakiteko ea Gobernuak zer aurreikuspen darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko hitzarmena Estatuarekin sinatzeko

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, jakiteko ea Gobernuak zer aurreikuspen darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko hitzarmena Estatuarekin sinatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egiteko hitzarmena Estatuarekin sinatzeko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-26/POR-00213. Galdera, sektore aeroespazialerako aurreikusitako laguntza-neurriei baldintzak jartzeko aukerari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, sektore aeroespazialerako aurreikusitako laguntza-neurriei baldintzak jartzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak 2026ko ekainaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Sektore aeroespaziala, zeinak barne hartzen baititu industria espazialari, aeronautikoari eta droneen industriari (UAV) lotutako balio-kateak, hazkunde handia izaten ari da Europan; hein batean, defentsaren arloko inbertsioa areagotzen ari delako, Europan nahiz mundu osoan.

Joan den ostiralean, martxoak 6, jakin genuen Irujo kontseilariak "apustu irmoa" egiten duela Nafarroan sektore aeroespaziala bultzatzearen alde, Nafarroan sektorea bultzatzeko ekintza-plan bat diseinatu baitu, 2027tik aitzina neurri zehatzen bidez zertuko dena.

Horren ondoren, gure talde parlamentarioak bi galdera egin ditu, idatziz erantzutekoak, ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz planteatu dituen aipatutako apustua bateragarria izan dadin Gobernu honek hainbestetan aldarrikatu duen giza eskubideen eta bakearen babesarekiko

konpromisoarekin, eta, hortaz, bermeak ezar daitezkeen, azken batean laguntza-neurrietako bakar batek ere horien urraketarik ez eragiteko, ez eta, are gutxiago, haiek gizateriaren aurkako krimenetako edo oro har gerra-ekitaldietako partaidetzarik ekartzeko ere.

Bigarren galderari (PES 11-26/PES-00112) emandako erantzunean, Nafarroako Gobernuak honako hau dio: "Gobernuak ez dauka monitorizazio hori ahalbidetzen duen tresnarik. Bakarrik ziurtatzen ahal du, adibidez, laguntza publiko gisako laguntza-neurriak Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalean jasotako sektore aeroespazialeko jardueretara bideratzen direla".

Era berean, honako hau esaten da: "Nafarroako Gobernuak ez du eskumenik era horretako balizko neurririk ezartzeko. Horretarako, beharrezkoa da lege-esparru orokor bat edukitzea, horretarako gaituko duena», eta, beraz, honako baldintza hau ezartzen du tresna bakartzat: «f) Gazan genozidioaren aurkako eta palestinarrei laguntzeko premiazko neurriak hartzen dituen irailaren 23ko 10/2025 Errege Lege Dekretuak debekatutako jardueraren bat ez garatzea».

Erantzun horretan oinarrituta, uste dugu Nafarroako Gobernuak ez daukala, eta aurreikusi ere ez duela aurreikusten inolako tresnarik edukitzea, irailaren 23ko 10/2025 Errege Lege Dekretuaz harago, bermatzeko ezen laguntza-neurri horietan aurreikusten diren Nafarroako gizarte osoaren baliabideek ez dietela laguntzen giza eskubideen urraketari eta gizateriaren aurkako krimenei.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Nafarroako Gobernuak atxiki al dezake baldintza-sortarik sektore aeroespazialarentzat aurreikusitako laguntza-neurrietan, giza eskubideen urraketarako lagungarria den amaierako erabilerarik gabeko jarduera ekonomikoetarako soilik izan daitezkeen haiek, eta/edo soilik izaera zibila, eta ez militarra, izan dezaten?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-26/POR-00214. Galdera, ikasturte honetako eskola-kanpainei buruzkoa*IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, ikasturte honetako eskola-kanpainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak bultzatutako eskola-kanpainak –horien artean daude, besteak beste, naturan egiten diren jardueren kanpaina, bela-kanpaina eta aurtengo nobedadea den izotz-kanpaina– espazio bat dira, helburutzat dutenak kirol minoritarioak bultzatzea, naturarekiko harremana hastea eta ikasleen arteko bizikidetzatza sustatzea.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer balorazio egiten du ikasturte honetako eskola-kanpainen gauzatzeaz?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-26/POR-00215. Galdera, ospitaleetako klimatizazioari buruzkoa*MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, ospitaleetako klimatizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak 2026ko ekainaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Klima-aldaketaren ondoriozko tenperatura altuak ikusita, zeinak deserosotasuna eta ondoeza sortzen ari baitira Nafarroako osasun-zentroetan ospitaleratutako pertsonen artean, honako hau galdetzen diogu Osasuneko kontseilariari:

Zer plangintza eta inbertsio aurreikusten dira Nafarroako Gobernuaren mendeko ospitaleetako gelak klimatizatzeke?

Iruñean, 2026ko ekainaren 11n

Foru-parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-26/POR-00216. Galdera, Nafarroako igerilekuek bete beharreko higie- ne eta osasun baldintzei eta segurtasun baldintzei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako igerilekuek bete beharreko higie-ne eta osasun baldintzei eta segurtasun baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Martxoaren 26ko 27/2025 Foru Dekretuak bete-behar gehiago ezarri ditu Nafarroako igerilekuek bete beharreko higie-ne eta osasun baldintzen eta segurtasun baldintzen arloan. Horren ondorioz, zenbait toki-entitatek publikoki adierazi dute ezin izanen dituztela igerilekuak udan ireki, eta kezkatuta azaldu dira instalazioak arau-esparru berrira egokitzeke egin beharko dituzten inbertsioak direla-eta. Egoera are konplikatuagoa da herri txikien kasuan, eta herri horietako biztanleak oso kezkatuta daude uda eta tenperatura altuak hemen daudelako.

Hori dela-eta:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartzeko asmoa du egoera hori konpontzearen?

Iruñean, 2026ko ekainaren 12an

Foru-parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-26/POR-00217. Galdera, Foruaren Hobekuntza gaurkotzeko ponentzian euskara behin eta berriro azaltzeari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foruaren Hobekuntza gaurkotzeko ponentzian euskara behin eta berriro azaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Euskararen auzia behin eta berriro azaldu da Foruaren Hobekuntza gaurkotzeko ponentzian izan diren parte-hartzeetan.

Zu laster joanen zarenez ponentziara, zer jarrera defendatuko duzu Nafarroako Gobernuak lehendakaria zaren aldetik?

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Foru-parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

11-26/POR-00218. Galdera, industriari eta enpresa-sustapenari buruzko foru-legearen proiektuan jasotako xedeei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, industriari eta enpresa-sustapenari buruzko foru-legearen proiektuan jasotako xedeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujok ekainaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan asteazkenean, ekainak 10, Gobernu Kontseiluak industriari eta enpresa-sustapenari buruzko foru-lege proiektua onetsi zuen, orain parlamentuan izapidetu behar dena. Kontuan hartuta gure erkidegoaren izaera bereziki industrial delako, honako hau galdetzen diogu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari: zer helburu nagusi ditu legeak?

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Foru-parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-26/POR-00219. Galdera, Nafarroako suhiltzaile-parkeetan behar diren langileei buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako suhiltzaile-parkeetan behar diren langileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak 2026ko ekainaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer neurri hartuko duzu bermatzeko behar adina langile egonen dela uda honetan Nafarroako suhiltzaile-parkeetan?

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-26/POR-00220. Galdera, “nafarrak prestazio handiko trenera igoko dira legegintzaldia bukatu baino lehen” zioen konpromisoari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, “nafarrak prestazio handiko trenera igoko dira legegintzaldia bukatu baino lehen” zioen konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan geratuko da “nafarrak prestazio handiko trenera igoko dira legegintzaldia bukatu baino lehen” zioen zure konpromisoa?

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

11-26/PES-00182. Galdera, eskola-uzte goiztiarrari buruzko datu eguneratuei, oinarrizko gaitasunen emaitzei (PISA edo baliokideak) eta eskola-porrotaren Nafarroako ratioari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, eskola-uzte goiztiarrari buruzko datu eguneratuei, oinarrizko gaitasunen emaitzei (PISA edo baliokideak) eta eskola-porrotaren Nafarroako ratioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zeintzuk dira eskola-uzte goiztiarrari buruzko, oinarrizko gaitasunen emaitzei buruzko (PISA edo baliokideak) eta eskola-porrotaren Nafarroako ratioari buruzko datu eguneratuak? Eman 2020tik 2026ra bitarteko datuok ikastetxe publikoen eta itunduen arabera xehakaturik.

Iruñean, 2026ko ekainaren 7an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00183. Galdera, 2023 eta 2026 bitarteko itxaron-zerrendei eta bitarte horretan oinarrizko osasun-laguntzako medikuek eta ospitaleetako espezialistek sistema publikotik alde egiteari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, 2023 eta 2026 bitarteko itxaron-zerrendei eta bitarte horretan oinarrizko osasun-laguntzako medikuek eta ospitaleetako espezialistek sistema publikotik alde egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1) Portzentajea zenbat igo dira Nafarroan 2023tik 2026ra bitarte kirurgiako eta kontsulta espezializatuetako itxaron-zerrendak?

2) Oinarrizko osasun-laguntzako zenbat medikuk eta ospitaleetako zenbat espezialistak alde egin dute sistema publikotik bitarte horretan? Gobernuak ze plan zehatz eta zer epe dauka larrialdien egungo asetasun-egoera eta osasungintzaren kolapsoa leheneratzeko? Izan ere, Espainiako onenatariko bat izatetik okerrenetako bat izatera igaro da.

Iruñean, 2026ko ekainaren 7an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00184. Galdera, jakiteko ea Nafarroan zertan den etxebizitzaren okupazio ilegala

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, jakiteko ea Nafarroan zertan den etxebizitzaren okupazio ilegala.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1) Titulartasun publikoko edo babestutako zenbat etxebizitza daude une honetan ilegalki okupaturik Nafarroan, eta zenbat berreskuratu ditu Nafarroako Gobernuak azken bi urteotan?

2) Zer neurri zehatz eta zer egutegirekin ezarriko ditu Gobernuak nafarren etxebizitza-eskubidea bermatzeko okupazioaren aurrean, okupen arretari lehentasuna eman beharrean, erroldatutako gazteen eta familien kaltetan?

Iruñean, 2026ko ekainaren 7an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00185. Galdera, Nafarroan Hithium enpresa ezartzeko prozesuari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Nafarroan Hithium enpresa ezartzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak ekainaren 2an Industria Batzordean egin zuen agerraldiaren ondoren, non Hithium enpresa Nafarroan ezartzeko prozesuari buruz informatu baitzuen, erantzun gabe gelditu ziren hainbat galdera eta beste galdera berri batzuk sortu ziren, Gobernuak erantzun beharrekoak.

1. Zer egutegi aurreikusten da egiteke dauden jardueretarako?

2. Noiz aurreikusten da formalki eratzea Hithium eta Sodenaren arteko enpresa bateratua?

3. Hithium-en kapital-ekarpenari buruz:

- Zer portzentaje aurreikusten da *know how* izatea?

- Zer portzentaje aurreikusten da transferentzia teknologikoa izatea?

- Zer portzentaje aurreikusten da ekarpen ekonomikoa izatea?

4. Enpresak Nafarroarekin duen errotzean eta tokiko enpleguan Sodena partekatutako enpresa-ko bazkide gisa egotea justifikatuta, zein da tokiko enplegua erreserbatzeko konpromisoa?

5. Noiz aurreikusten da eratuko dela enpresa bateratua?

6. Zer aurreikuspen dago 81 milioi euroko laguntza proposatzen duen Renoval 2 ESEPEa onartzeko?

7. Noizko dago aurreikusita zehaztapen-orria edo *term sheet* onartzea?

8. Zer jarrera izaten ari da Nafarroako Gobernu negoziatioetan?

9. Nafarroak egindako 50 milioi euroko ekarpena alde batera utzita, aurreikusten al da foru-administrazioak kapital-ekarpen gehiago egitea kanpoko finantzaketa posibleari aurre egiteko?

10. Elektrifikazioari dagokionez, kontseilariak erantzun zuen bermatuta dagoela lehenengo fasea. Zein da lehenengo fasea? Lehen fasea gainditu ondoren, nola bermatuko da beharrezko elektrifikazioa geroagoko une batean?

11. Elektrifikazioa behar duten hainbat industria-proiektu daudenez Nafarroan instalatu ahal izateko Ministerioaren Horizon 2030 plangintza elektrikoa- ren zain, horietako zein, bat edo gehiago, ezin izanen litzateke egin?

12. 2025eko abenduan Nafarroako Gobernuaren ordezkariak batek Txinara egindako bidaiari, Hithium kenduta, beste enpresa batzuk ere bisitatu ziren: CITIC Group eta TCL Solar. Zein proiektu motatan izan dute interesa Nafarroan garatzeko? Zer sektoretan?

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-26/PES-00186. Galdera, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren legegintzaldi honetako erabakiak betetzeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren legegintzaldi honetako erabakiak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak legegintzaldi honetan onetsitako zenbat erabaki dauzka gauzatzeke Nafarroako Gobernuak, eta zeintzuk dira ez-betetze horren arrazoiak?

Iruñean, 2026ko ekainaren 9an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00187. Galdera, foru-sektore publikoko enpresa publikoak, fundazioak edo erakunde instrumentalen galera errepikatuei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, foru-sektore publikoko enpresa publikoak, fundazioak edo erakunde instrumentalen galera errepikatuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Foru-sektore publikoko zer enpresa publikok, fundaziok edo erakunde instrumentalek dituzte galera errepikatuak, edo transferentzia arrunten mende daude iraunen badute, eta zer neurri hartzea aurreikusten du Gobernuak haien bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 9an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00188. Galdera, mendekotasunaren balorazio-eskaria egiten denetik aitortutako prestazioa edo zerbitzua egiaz jasotzen denera arte batez beste igarotzen den denbora errealari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, mendekotasunaren balorazio-eskaria egiten denetik aitortutako prestazioa edo zerbitzua egiaz jasotzen denera arte batez beste igarotzen den denbora errealari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Mendekotasunaren balorazio-eskaria egiten denetik aitortutako prestazioa edo zerbitzua egiaz jasotzen denera arte zenbat denbora igarotzen da egiaz? Eman erantzuna mendekotasun-mailaren arabera.

Iruñean, 2026ko ekainaren 9an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00189. Galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak antolatutako udalekuak debekatzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak antolatutako udalekuak debekatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Arabako Foru Aldundiak debekatu egin du Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak Bernedon antolatutako udalekua, eta zehapena ezarri dio sexu-askatasunaren aurkako delituengatik iragan udan izan zituen hogeitabat salaketa direla-eta (ezin izanen du haurren edo gazteen aisialdiko jarduerarik egin heldu diren hiru urteotan, lurralde horretan ezin izanen du laguntza publikorik jaso eta Euskadiko Gazteria Legean ezarritako desgaituntza-epetik

handiena ezarri dio, bai eta 9.000 euroko isuna ere). Hori horrela,

1. Zer egin du Nafarroako Gobernuak joan den udan elkarte horrek antolatutako udalekuetara joan ziren adingabeen familiek salaketak jarri ondoren?

2. Zer egin du Nafarroako Gobernuak zehapen horren berri izan ondoren, kontuan hartuta joan den udan elkarte horrek udalekuak antolatu zituela Goñin eta Abaigarren?

3. Jarri al da harremanetan Nafarroako Gobernu Arabako Foru Aldundiarekin?

4. Harremanetan jarri baldin bada, zer harreman izan da? Zer edukirekin? Zeren bidez izan da harremana?

5. Jarri al da harremanetan Nafarroako Gobernu elkarte antolatzailearekin eta iazko udan udalekuak finantzatu zituzten entitateekin?

6. Harremanetan jarri baldin bada, zer harreman izan da? Zer edukirekin? Zeren bidez izan da harremana?

7. Nafarroako Gobernuak txostenik egin al du, bere departamentuetako edozeinetan, adingabeen babesaren arloan duen erantzukizunean izandako utzikeriari buruz, joan den udan Nafarroan egindako udaleku horietan izandako gertakarien aurrean jarritako salaketei dagokienez?

8. Nafarroako Gobernuak udaleku horiek uda honetarako baimendu baldin baditu, berriz aztertu al du baimenak ematea Arabako Foru Aldundiaren zehapena ezagutu ondoren?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 10ean

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-26/PES-00190. Galdera, Errege Bardeako berriztagarrien proiektuari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Errege Bardeako berriztagarrien proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Talde Mistoko foru-parlamentari eta VOXeko kide den Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chiviteri, idatziz erantzun ditzan:

1. Izan al zuen Nafarroako Gobernuko lehendakariak edo haren goi-kargudunen batek Leire Díezen eskuz idatzitako oharren berri, UCOK esku hartutakoak, zeinetan berariaz aipatzen baita “María Chi. eta Teresa MITECOren artean zuzenean hitz eginen dela”, “Bardenas” energia berriztagarrien proiektuari “babes handiagoa” emateko?

2. Izan al zen edo koordinatu al zen elkarrizketa edo bilera zuzenik María Chivite presidentearen eta Teresa Ribera orduko ministroaren (MITECO) artean, Nafarroako Errege Bardeetan/Erriberan

berriztagarrien proiektua desblokeatzeko edo arintzeko, Leire Díezek 2021eko uztailaren 6an egindako oharretan islatzen den bezala?

3. Lehendakariak ba al daki Antxon Alonsok, Servinabar enpresaren jabeak eta UCOK ikertutako sareari loturikoak, bilerak izan ote zituen harekin edo bere Gobernuako kideekin (bereziki 2021eko apirilaren 21ekoa eta 2021eko irailaren 17koa Nafarroako Jauregian) "Bardenas" proiektua edo energia berriztagarriari lotutako beste edozein lantzeko?

4. Zer kudeaketa zehatz egin zituen Nafarroako Gobernuak, Leire Díezek, Antxon Alonsok edo Vicente Fernándezek eskatuta, "Bardenas" berriztagarrien proiektua edo Servinabarrek edo hari lotutako enpresek sustatutako antzeko beste edozein ekimen izapidetzen laguntzeko?

5. Leire Díezen oharretan aipatutako goi-mailako kudeaketen ondoren, Nafarroako Gobernuak eman edo arindu al zuen Nafarroako Bardean/Erriberan energia berriztagarrien proiekturako baime-nik, lizentziarik, aldeko txostenik edo administrazio-laguntzarik?

6. Leire Díezi konfiskatutako oharretan aipatzen den Bardeako/Nafarroako Erriberako energia berriztagarrien proiektua bat al dator Caparrosen, Cabanillasen, Fustiñanan eta Errege Bardean lau haize-parkeren birpotentziazioa dela-eta Gobernuak egin zuen foru-erkidegoaren intereseko inbertsio-deklarazioarekin?

7. Zertan da Nafarroako Erriberan "Bardea. Energia berriztagarriak "(edo beste edozein izen baliokide) proiektua? Onetsi da, izapidetzen ari da edo artxibatu egin da? Erantzuna baiezkoa bada,

zer enpresa da edo dira sustatzaileak eta zer lotura dute Antxon Alonsorekin edo Servinabarrekin?

8. Jaso al du Nafarroako Gobernuak UCOK eta Audientzia Nazionalak Leire Díez, Santos Cerdán eta Antxon Alonsoren sareari buruz egindako ikerketari buruzko informaziorik, berriztagarrien kontratu eta proiektuen amarruari buruz, eta hasi al du barne-jarduketaren bat Nafarroan izan daitezkeen ondorioak argitzeko?

9. Ba al dago protokolorik edo hitzarmenik Nafarroako Gobernuaren eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren (MITECO) artean, Teresa Ribera ministro zenean, Leire Díezen oharretan jasotako kudeaketetatik erator daitezkeenik, "Chiviteretikiko protokoloa. Ongi doa" oharrean adierazten den bezala?

10. Zenbat milioi euro publiko (dirulaguntzak, IDAeren laguntzak, abalak, hobari fiskalak edo bestelakoak) konprometitu dira edo konprometituko dira "Bardea" berriztagarrien proiektuarekin edo Antxon Alonsori edo ikertutako inguruneari lotutako enpresek sustatutako beste edozein proiektuarekin?

11. Lehendakariaren ustez, Leire Díezen oharretan deskribatutako goi-mailako kudeaketak, zeinak zuzenean lotzen baitute bere Gobernu berriztagarrien proiektuetan ustezko eragin-trafiko-agatik ikertutako sare batekin, bateragarriak al dira nafarren interes orokorraren gardentasun-, objektibotasun- eta defentsa-printzipioekin, edo interes publikoa harrapatzeko arriskua al dakar enpresa jakin batzuen mesedetan?

Iruñean, 2026ko ekainaren 10ean

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/PES-00191. Galdera, Abiadura Handiko Trenaren hirigintza-kudeaketaz arduratzen den partzuergoaren bilerarako deialdia egiteko aurreikuspenari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Abiadura Handiko Trenaren hirigintza-kudeaketaz arduratzen den partzuergoaren bilerarako deialdia egiteko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Aurreikusita al dauka gobernuak AHTaren hirigintza-kudeaketaz arduratuko den partzuergoaren bilkura deitzea laster?

Noiz?

Data jakin bateko hurrengo deialdirik aurreikusita ez badago, zein da deialdia ez egiteko arrazoia?

Informatuta al daude Udalez Gaindiko Plan Sektorialari egindako alegazioak?

Oraindik ez badugu alegazio-txostenik ebazteko, zein da arrazoia?

Zein da Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren hurrengo izapideetarako data-aurreikuspena?

Iruñean, 2026ko ekainaren 10ean

Foru-parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/ELCR-00003. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 15ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko kontseilari delegatuak idazki bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari 2026ko ekainaren 10ean, egun berean sartu zena Legebiltzarraren Erregistroan, zeinaren bidez jakinarazten baitu 2026ko uztailaren 29an amaitzen dela Koldo Amezketa Díaz jauna, Ainhoa Unzu Gárate andrea eta Asier Baztán Bepere jauna Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko Administrazio Kontseiluko kide izendatzeko epea (izendapen-proposamena Nafarroako Parlamentuak egin du).

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da hautaketa hori egiteko prozedurarik aurreikusten; beraz, erregelamendu horren 42.1.bederatzigarrena artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak hautaketa horri buruzko arauak onetsitzan, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 3.4 artikuluan xedatzen da bere Administrazio Kontseiluko kideen heren bat izendatuko dela Nafarroako Parlamentuak proposatuta, eta aipatu 3. artikuluko 3. apartatuan ezartzen baita "Administrazio Kontseiluan modu proportzionalean egonen direla gizonetakoak eta emakumezkoak, halako moduz non ehunekoak ez den izan, ez batzuen ez besteen kasuan, ehuneko 60tik goitikoa".

Aipatu artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehenena. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko prozedura hastea.

Bigarrena. Honako arau hauek onestea:

«1. Nafarroako Parlamentuak hiru pertsona hautatuko ditu Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietateko administrazio kontseiluko kide izateko.

2. Talde parlamentarioek hiru pertsonaz osatutako hautagaitzak aurkezten ahalko dituzte, bana-bana nahiz batera. Hautagaitzaren bi pertsona sexu batekoak izanen dira eta hirugarrena beste sexukoa. Pertsona horiek konprometitu beharko dira Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legeko 3.2 artikuluan ezarritako erantzukizun eta bateraezintasun araubidea betetzera.

3. Talde parlamentarioek idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaiak aurkezteko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia eta aurreko arauan aurreikusitako konpromisoaren adierazpena.

4. Talde parlamentarioek Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietatearen Administrazio Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 18an amaituko da, 15:00etan.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du proposatutako hautagaiak 2. eta 3. arauetan eskaturiko baldintzak betetzen ote dituzten, eta, jarraian, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu. Halaber, Mahaiak egoki irizitako erabakia hartuko du, 2. arauan ezartzen den gizonetako eta emakumezkoen arteko proportzionaltasuna betetzeari buruz.

6. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietatearen administrazio kontseiluko hiru kideen hautapena Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

Bozketa txartelen bidez egingen da, eta foru parlamentari bakoitzak gehienez hiru izen jartzen ahal du txartelean; horietatik bi sexu batekoak izanen dira, eta bat beste sexukoa. Bi izen jartzekotan, bat sexu batekoa izanen da eta bestea beste sexukoa.

8. Mahaiak botoak zenbatuko ditu eta boto gehien lortu dituzten hiru hautagaiak aldarrikatuko ditu.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte”.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

